

+



Izaskun Larrañagari
elkarrizketa
(Lacor-Ibili Taldea)

Garai berriak
Gipuzkoako
futbolarentzat



URDELARDERO: UMEAK KALEAN ETA JAKIAK ZIRIETAN

Aratustek bertan dira eta Eskoriatzan atzo hasi zituzten, Urdelardero Egunarekin;
Oñatin eta Bergaran, berriz, Inauteri-dantzak egin zituzten arratsaldean eta iluntzean / 17

Eskoriatzako hainbat haur plazan atzo, Urdelardero Eguna, zirikin. XABIER URZELAI

Elikagaiak eta arropak batzen ari dira Turkiako eta Siriako lurrikaren kaltetuendako / 3

SINADURAK



MERKEALDIA

2MÓ 79€

BETAURREKO GRADUATU
(LEHEN 99€)

+
UKIPEN LENTEAK
OPARI

Azken egunak!



kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

Adinberrik lau proiektu bultzatuko ditu bailaran

Zahartzearen eta zainketaren lanketan dabilzan proiektuak dira eta tartean daude Auzo Lagun, Fagor Healthcare, Isea eta Aretxabaletako Udala. Laguntzaren bultzatzaileen arabera, proiektuekin "adinekoak eta mendekoak artatzeko era eraldatzen" dabil

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Zahartze osasuntsua bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren estrategia berritzailea garatzen du Adinberri Fundazioak. Bi milioi euroko aurrekontuarekin, 2022 eta 2024 arteko laguntzen deialdian hautatutako 24 proiektuen berri eman du, eta tartean dira Debagoieneko lau. Hala, horietan guztietan helburu du, alde batetik, *Silver Economy* arloan aukera berriak bultzatzeko proiektuak sustatzea; alegia, 50 urtetik gorakoen beharrik asetzea. Bestetik, adinekoen zaintza hobetzera bideratutako proiektu berritzaileak bultzatu nahi ditu.

Bailaran garatuko diren proiektuei dagokienez, *Silver Economy* arloan Auzo Lagunen *Aise Jan* dago. Honek oinarri du etxeko etxe sukaldaritza eskaintza personalizatua diseinatzea, adineko pertsonen nutrizio-premietara egokitua izango dena. Nabarmendu baitute nutrizio egokiak "modu erabakigarrian" laguntzen duela pertsona horien osasunean, ongizatean eta bizikalitateran.

Fagor Healthcare

Eremu berebean, Fagor Healthcarek *Medhome/Zaintza Etxean*



Pazienteei behar duten medikazioa emateko gailuetako batzuk. FAGOR HEALTHCARE

proiektua dauka martxan. Haren asmoa da mendekotasuna duten pazientei behar dituzten sendagaiak etxean entregatzeko zerbitzua ematea. Haien arabera, "irtenbide independentea" litzateke, paziente polimedikatuaren beharretara egokitzen diren hainbat aukera konfiguratu ditzakeena, paziente dagoen lekuan agindutako tratamenduarekiko atxikimendua hobetzeko. Are gehiago, azpimarratu dute sistemaren erabilera "eraman-garria eta erraza" dela.

Jakinarazi baitute bi paziente kronikotatik batek ez duela behar bezala jarraitzen tratamendua eta horrek osasun arazo batzuk dakartzala. Halere, argi dute "sistema berritzaileei esker" pazienteek behar bezala hartzen dituztela sendagaiak, "euren bizikalitateraren hobetzen eta ospitaleratzeak saihesten dira". Zehazki, 40.000 pazienteek erabiltzen dute sistema.

'Co-Housing' proiektua

Zainketa arloari dagokionez, Isea kooperatibaren *Eco Co-Hou-*

sing Intergeneracional Politta proiektuak jaso du laguntzetako bat, herritarren behar batetik abiatuta. Bertako kideek azaldu baitute Arrasaten 830 etxebizitza beharko lirakeela dagoen etxebizitza eskariari erantzuteko; batik bat, "gazteen, helduen eta ezinduen" beharrak asetzeko. Baina ez dagoela horretarako erarik. Hala, Arrasateko La Merced ikastetxea zena egokitu daitekeen ikertuko dute.

Izan ere, adierazi dutenez, gaur egun Arrasateko Udalak erabilerak dotazionalerako du eraikin hori, dauden beharrei erantzuteko, eta, beraz, Iseak aztertu nahi du ea posible litzatekeen *Co-Housing* proiektu bat garatzea bertan. Hala balitz, erabiltzaileek baldintza batzuk bete beharko lituzkete, baina guztiek helburu izan beharko lukete giza taldean bizitzea, elkar-laguntza oinarritzat izanda, belaunaldien arteko jarduerak eta harremanak bultzatuta eta sendotuta.

Arreta integralerantz

Azkenik, ekarpen ekonomikoa egin dute Aretxabaletako zentro soziosanitarioarako gobernantza eredu bat garatzeko, gizarte-zerbitzuetako langileak zein osasun-arlokoak programa soziosanitarioetan modu integratuan txertatzeko; alegia, pertsonen bideratutako zerbitzu guztiak eraikin berean egotea, arreta integrala emateko asmoz.

Hala, Rakel San Sebastian Adinberri Fundazioko zuzendariak eta Gipuzkoako Diputazio-ko ordezkariak lurraldean zahartzearen eta zainketen eremuan gertatzen ari den aldaketa nabarmendu dute, horrelako proiektuekin "adinekoak eta mendekoak artatzeko modua eraldatzen" ari dela erantsita.

Bulegoa irekiko du Goienerekin eguaztenean

Arrasaten izango da eta herritarrengandik gertuago egongo dira; arreta eskainiko dute

A.R.K. ARRASATE

Goienerekin energia berritzaileekin sorkuntza eta kontsumo kooperatibak iaz zabaldu zuen lantokia Debagoienean. Hala ere, herritarrengatik gertuago egoteko eta informatzeko, bulegoa irekiko dute eguaztenean, hilaren 22an, Arrasateko Zerkaosteta kaleko 15. zenbakian, 18:00etan.

Bertako kidea da Aratz Arregi, eta azaldu du krisi energetikoan egonik kontzientzia pizten saiatzeko asmoa dutela, eredu energetikoa eraldatzeko. Eta alderdi soziala ere landu nahi dute: "Boluntario sarea indartzeari garrantzia ematen diogu". Nabarmendu baitu energia eskubidetzat ulertzen dutela eta trantsizio energetiko justu eta duin batean aldeko apustua egiten dutela, "inor atzean utzi gabe".

Arreta zerbitzua

Herritarrei izan ditzaketen kezka argitzeko arreta zerbitzua eskainiko diete, bailarako testuingurua kontuan hartuta. "Eurek ahalik eta informazio gardenena jasotzea da helburua eta, bide batez, energiaren gaineko eztabaida arlo sozialera eramatea". Horretarako, hitzordua aurrez hartzea komeni da.

bertako -REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA

943 903 450

BIZKAIA

946 523 935

ARABA

945 712 822

NAFARROA

848 870 917

www.bertako.eus

Elikagaiak eta arropak Turkiara eta Siriara

Hotz Oñatik diru eta arropa bilketa abiatu du, lurrikarengatik kaltetutako herritarrei laguntzeko. Horrez gain, bat egin du Zaporeak-ek antolatutako elikagai bilketarekin; gaur izango da. Arrasateko Hiper Eroskin eta Aita Menni ospitalean ere egingo dute

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria DEBAGOIENA

Bi lurrikara izan ziren duela ia bi aste Ekialde Hurbilean eta gogor astindu zuten ingurua. Inoizko hondamendi handienetakoa bat eragin zuten eta NBE Nazio Batuen Erakundeak dagoeneko ohartarazi du asteburuan hildakoen kopurua 50.000ra iritsi daitekeela. Alabaina, orain lehentasunetako bat bizirik daudenei aterpea eta giza laguntza ematea da, eta horretan dabilta asteon bailaran ere.

Hotz Oñatik, esate baterako, manta eta neguko arropen bilketa egin du egun hauetan Siriara eta Turkiara bidaltzeko, Bizkaiko DYA egiten ari den bilketarekin bat eginda. Hasieran, bihar arte zegoen bilketan parte hartzeko aukera, baina, azaldu dute "sekulako erantzuna" izan dutela, eta, beraz, ez dutela arropa gehiago jasoko: "Eskertuta gaude".

Bergaran, ordea, izango da oraindik horretarako aukera. Manten, lozakuen, txamarren, txanoen eta eskularrien bilketa egingo dute gaur, 17:30etik 20:00etara, Ndank Ndank elkar-tearen Irizar kaleko murelean.

Alabaina, horrez gain, Hotz Oñatik diru-bilketa abiatu du lurrikarak kaltetutako siriarreri laguntzeko asmoz. Horretarako, zabalik dute kontu korrante bat, eta *bizum*-a ere egin daiteke. Hala, jasotako dirua AAPS gobernu kanpoko erakundearentzat izango da; hain justu, Sirian eta bere mugetan egiten du lan.

Gaur, janari bilketa

Janari bilketari dagokionez, Hotz Oñatik bat egingo du Zaporeak elkarte Euskal Herrian egiten ari den bilketarekin. Hala, Kooperatiban, Oñatiko bi Eroski dendetan eta BM supermerkatuan egingo da bilketa gaur. Arrain kontserbak, barazki eta lekale kontserbak -txerririk

gabeak-, arroza, pasta, esnea eta galletak jasoko dituzte.

Oñatin ez ezik, bailarako beste herri batzuetan ere bat egin dute bilketarekin. Arrasateko Hiper Eroskin gaur egingo dute bilketa, baita Aretxabaletako Eroskin ere.

Bergaran, berriz, Aranzadi Ikastolan egingo da, 21etik 24ra bitartean; eta Eskoriatzako Coviranen, 20tik 25era.

Baita Aita Mennin ere

Aita Menni ospitaleak ere bat egin du, eta igandera arte izango da bildutakoak bertako harrieran uzteko aukera. Itsulapikoa ere egingo da.

Bilketen egunak eta lekuak

Elikagaien bilketa:

- **Oñati.** Kooperatiban, bi Eroskitan eta BM supermerkatuan, gaur.
- **Arrasate.** Hiper Eroskin, gaur.
- **Arrasate.** Aita Mennin, domekara arte.
- **Bergara.** Aranzadi ikastolan, 21etik 24ra.
- **Aretxabaleta.** Eroskin, gaur.
- **Eskoriatza.** Coviranen, 20tik 25era.

Arropen bilketa:

- **Bergara.** Irizar kalean, gaur.

Hotz Oñatiren diru bilketa:

- **Kontu korrantea:** ES08 3035 0005 3300 50078053
- **Bizum:** 05103



Hotz Oñatik antolatutako arropa bilketa jasotakoa. IÑIGO BARRENA



Gure ikasleen ahotan



"Bideojokoen munduan murgildu nahi dut"

Irene Sandoval Antxia (Aretxabaleta, 21 urte) Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko laugarren maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?

LH, DBH eta batxilergoa Arizmendi Ikastolan egin nituen, Almenen. Batxilergoa amaitu ondoren, ikus-entzunezko Komunikazioa ikastea erabaki nuen eta Aretxabaletako Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) graduan matrikulatu nintzen. Zaletasunei dagokienez, mendia eta argazkilaritza asko gustatzen zaizkit. **Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?** Argazkilaritza asko gustatzen zait eta zinemaren munduarekiko interesa piztu zitzaidan batxilergoan; beraz, ikus-entzunezko gradua biak

konbinatzeko aukera ona zela iruditu zitzaidan. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, alde batetik, herrian bertan dagoelako eta, beste alde batetik, unibertsitateak duen metodologiarengatik. **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?** Guk moduluka ikasten dugu; hau da, ez dugu azterketarik egiten. Moduluen iraupena aldakorra da, moduluaren arabera; batzuek hilabeteak irauten dute eta beste batzuek, pare bat aste. Moduluetan ikastea asko gustatzen zait, praktikan jartzen duzulako ikasten ari zaren hori, eta, alde horretatik, oso esperientzia ona izan da, baina egia da modulu bakoitzak bere irakasleak eta kolaboratzaileak dituela, eta badaude modulu batzuk hobeto diseinatuak daudenak beste batzuk baino.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Praktiko eta, hein handian, autonomoa. **Unibertsitatez zer gustatzen zaizu gehien?** Metodologia; batez ere, lan egiteko orduan autonomia izateko ematen duen aukera. **Zeintzuk dira zure asmoak etorkizunerako?** Graduatu ondoren bideojokoen diseinuarekin zerikusia duen master bat egitea erabaki dut. Unibertsitateko hirugarren mailan bideojokoen modulu bat izan genuen eta hainbat bideojoko diseinatu eta animatu genituen. Asko gustatu zitzaidan eta bideojokoen munduan murgildu nahi nuela erabaki nuen.

"Iraultza bat ikusten da minbiziaren munduan"

FELIX ZUBIA DONOSTIAKO OSPITALEKO ZIU-ETAKO BURUA

Oñatin izan da minbiziaren gaur egungo egoerari eta etorkizunari buruz hitz egiten. Gainera, COVIDaz eta osasun publikoaren egoeraz ere mintzatu da

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Felix Zubia mediku ezaguna izan da COVID garaian, baita komunikabideetan egindako agerraldiak ere. Goienagusik gonbidatuta, minbiziaren inguruan jardun du Oñatin aste honetan.

Zein da minbiziaren gaur egungo egoera?

Minbizi geroz eta gehiago gertatzen ari den gaixotasun multzo bat da. Minbizi mota bakoitzak baditu bere ezaugarriak. Adinari lotutako gaitza da; orduan, geroz eta gehiago bizi garenez, geroz eta gaixo gehiago daude. Hiru pertsonatik batek minbizi izango duela diote. Baina, horrekin batera, minbizi geroz eta hobeto ulertzen dugu eta gehiago dakigu ze mekanismo dauden azpitik. Hori jakinda, hamar minbizitatik zortzi sendatu egingo direla diote. Orduan, berri bat txarra da, baina bestea, oso ona.

Araozak hor egoten jarraitzen du, baina irtenbideak ere gehiago daude, orduan?

Iraultza handia gertatzen ari da minbiziaren munduan; batez ere, mekanismoak ezagutzen ditugulako eta ulertzen ditugulako. Eta horien ezagutzak dakar botika eta tratamendu berriak sortzeko bidea, eta geroz eta gehiago zabalduko dira. Hortaz,



Felix Zubia. MIKEL ZUMALDE

badakigu minbizi bat gertatzen denean arazo genetiko bat dagoela.

Minbizi baten sorburuan kontrol gabe hazten den zelula bat dago; hauek hazi egin behar dute, baina ondoren, gelditu egin behar dira. Orduan, material genetikoan akats bat gertatzen da eta, horren ondorioz, onkogeno esaten zaion zelula bat aktibatzen da; kontrol gabe abiarazten den aldaketa bat da. Hori gertatzen denean, antionkogeno batek egon behar du eta horien geldialdi batek ere egon

behar du. Naturan baditugu elementu frenatzaileak eta horien geldialdi batek ere egon behar du. Minbizi garatzeko hiru faktore batek ere egon behar du, defentsei ihes egiteko gaitasuna. Uste da zelula txarrak etengabe sortzen direla, baina defentsak geldiarazten dituztela. Horrenbestez, hiru akats horiek lerrotzatzerakoan sortuko litzateke minbizi bat.

Beste arazo bat koronabirusa da; zein da egoera gaur egun?

Zorionez, hemen berri onak dauzkagu. Koronabirusaren ka-

suan, arriskua zen gaixotasuna erabat berria zela eta gure defentsak ez zeudela prestatuta horri aurre egiteko. Horrelako gaixotasun baten aurrean, jende asko izanik oinarrian, konplikazioak ere asko izaten dira eta honek ospitaleak eta ZIUak gainezka jartzea eragin zuen, baita heriotzak sortzea ere.

Bi urte hauetan immunitatea lortu dugu; hau da, defentsak garatu ditugu, batzuk txertaketarekin eta beste batzuk gaitza pasata. Une honetan ez da arazo ospitaleetan eta ZIUetan, baina arazoa izaten jarraitzen du adineko pertsonengan eta immunitatea garatzeko arazoak dituztenengan; hortaz, haiek nola babestu ikertu behar dugu. Birusa ez da desagertuko, baina ez da osasun publikoko arazoa izango.

COVIDaren arazoa arindu egin da, baina beste afera bat sortu da osasun publikoari lotuta, zergatik?

Espainiako Estatu osoan gertatzen ari den arazoa da. Plangintza falta egon da azken hamar-hamabost urteei begira. Biztanleak geroz eta zaharragoak gara eta horrek osasun eskaera handitu egiten du. Orduan, zuk lehengo mediku eta kontsulta kopuru bera izan ditzakezu, baina eskaera handitzeak baliabide gehiago izatea eskatzen du, eta hori ez da sortu.

Profesionalak erretiroa hartzen joan dira eta ez da haien ordezkapena programatu, ezta egin ere. 2006an hasi ziren plangintzak egiten, baina gero krisia etorri zen, aurrekontuak murriztu beharra izan zuten eta bakoitzak berean sartu beharra izan zuen. Horrek mediku eta erizain asko ez formatzea ekarri zuen. Gabezia hori ez zen konpondu eta orain olatuak harrapatu gaitu.

Osakidetzan ere gaizki tratatu den gaia izan da?

Zenbat mediku espezializatu prestatzea Espainiako Gobernuak erabakitzen du eta hori ez du egin. Gainera, Osakidetzan bertan ere epe motzeko politikak jarraitu dira, seguru, aurrekontu bat bete beharrekin. Hemen Eusko Jaurlaritzak da osasunera diru gehien bideratzen duen erkidegoa eta ez da nahikoa izan, eta, gainera, alde guztietan izan dira epe motzeko plangintzak.

Zein irtenbide daude honi aurre egiteko?

Epe ertainera edo luzera begirako plangintza osoa beharko litzateke. Norbaitek esaten badu hau hiru hilabetean konponduko duela gezurretan ari da, garbi. Gabezia hor dago eta hurrengo urteetan areagotu egingo da. Nik plangintza osoa eskatzen dut, diru gehiago jartzeaz gain, noski. Horretarako, osasun publiko lehentasun moduan jarri beharra dago, baina borroka politikotik kanpo.

Alde batetik, zahartzen ari den biztanleriarentzat gizarte zerbitzu gehiago jarri beharko lirateke, askotan osasun arazo izatetik gizarteko arazo izatera pasatzen direlako. Horrekin batera, plangintza osoa behar da; zenbat osasun langile behar diren ikusiz, haiek fakultateetan espezialista bezala prestatu, ospitaleetan espezialistak garatzeko postuak sortu eta pazientearengana zentratutako eredu sortuz.

"OSASUN PUBLIKO LEHENTASUN MODUAN JARRI BEHAR DA, BAINA BORROKA POLITIKOTIK KANPO"

Istripua atzo Arrasaten

Atzo eguerdian gertatu zen, Kaskonategiko biribilgunean, Hiper Eroski parean. Auto batek talka egin zuen autobus baten aurka. Anbulantzia eta Ertzaintza berehala iritsi ziren istripua gertatu zen tokira, eta, zorionez, ez zen zauritu larririk izan. Zirkulazioan ere ez zuen eraginik izan eta irekita jarraitu zuen ibilgailuentzat.



IRINA ALVAREZ

Mondragon Taldeak Mael Coccion enpresa erosi du

El economista aldizkari digitalak dioenez, Copreciren bitartez eskuratu du Zaragozako enpresaren %100. Hain zuzen ere, etxetresna elektriko osagarriak egiten ditu Mael Coccione eta BSH Electrodomesticos España du bezero nagusi. Indukzio-sukaldeentzako egiten dituen bobinak eta potentzia-elektronika dira haren berezitasunak. Talde

horren barruan daude, besteak beste, Bosch, Siemens eta Balay enpresak, eta, horrenbestez, haien hornitzaile ere izango da aurrerantzean.

Duela 40 urte sortu zen Mael Coccion enpresa eta gaur egun 130 langilez osatuta dago. Joan den urtea 30 milioi euroko fakturazioarekin amaitu zuen. 2021ean berriz, 26,4 milioi euroko salmentak izan zituen eta 2020an, 246 milioiokoak izan ziren; gainera, %7,28ko hazkundea izan du enpresak.



Garaia Parke Teknologikoan egindako jardunaldien une bat. GOIENA

Emakumeak zientzian aldarrikatzeko ekitaldiak

Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna aprobetxatuz, hainbat dira antolatu dituzten ekintza eta jardunaldiak. Helburua da emakume zientzialarien mundua eta egoera zein den aztertzea eta etorkizuneko emakume zientzialariak sustatzea

I.B.K. DEBAGOIENA

Garaia Parke Teknologikoan 2019a ezker ari dira zientzian lotutako jardunaldiak egiten eta aurten ere halaxe izan da. Oraingoan, emakume zientzialariak izan dira hizpide. Lau emakume zientzialari batu zituzten, haien egoera eta esperientziak lehen pertsona kontatzeko, egun mundu honen irakurketa egin eta emakume zientzialari gazteak mundu horretara erakartzeko –Garazi Garitaonandia, Alaitz Landaluze, Jasone Giraldo eta Nerea Gil–. Presentzialki zein online bidez, 170 pertsona inguruk jarraitu zuten hitzaldia.

Horretaz gain, Garaia Parke Teknologikoak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak ZTIM bokazioak sustatzeko lanean jarraitzen dute (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Matematika), formakuntzetan dauden emakume eta gazteen egoeraren, haien ibilbide profesionalaren eta egiteko dagoen lanaren gaineko hausnarketa eta aldaketan beharra aldarrikatzeko. Era berean, eredu femeninoak ikusarazteko eta eguneroko

adibideekin hurbiletik ezagutzeko ere bai.

Bestalde, lehiaketak antolatzen dituzte ikasleentzat; adibidez, arrautza jaurtiketa. Hain zuzen, Oñati Institutuko ikasleek irabazi zuten lehiaketa, eta sari banaketan izan ziren.

Fagor Automation-era bisita

Bigarren urtez jarraian, Fagor Automation ere egun horretara batu zen. Arizmendi Ikastolako batxilergoko lehenengo mailako 40 neska inguruk kooperatiba eta bertako emakumeen jarduna gertutik ezagutu ahal izan zuten, baita haiekin solasaldiak izan bisita gidatu baten bidez.

Laboratoriumeko proiektua

ZTB jardueren baitan, Bergarako Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetako ikasleei eta irakasleei emakume zientzialarien gaineko lan bat egiteko proposatu zuten Udalak –bideo bat sortzea–. Emakume zientzialarien erreferente historikoei balioa ematea, bokazioak sustatzea eta genero-arrakala ixten laguntzea helburu duen lankidetzaproiektua da.



Aurrematrikula:

Otsailaren 13tik 24ra



Bisita personalizatuak

Hartu zure txanda hemen!

www.arizmendi.eus/guikastola

943 77 20 25









ZABALIK

XABIER MUGARZA AIASTUI

Back is beltza

Hautsak harrotu ditu Fermin Muguruzaren *Black is Beltza II: Ainhoa* filmaren Goyarako izendapenak. Espainiako eskuin atzerakoitik boikot deialdia luzatu zuten, argudio pare bati helduta: filmak ETaren biolentzia justifikatzen duela eta biolentzia horrekiko Ferminen berak historikoki mantenduriko jarrera.

Filma oraindik ikusi ez dudanez, ezin lehenari buruzko iritzirik eman; bigarrenari buruz, aldiz, ez dut uste eztabaida handirik dagoenik; pasa den irailean DVn argitaratu zen elkarrizketa batean berresten den bezala, publikoa baita Ferminen ETaren biolentziarekiko jarrera. Adierazpen askatasunaren ikuspuntutik edukiak mugatu daitezkeela uste dudan arren, ez da zilegi pertsonak boikotatzea eta, kasu honetan, zalantzarik ez daukat bigarren bide honetatik aritu direla intrantsigentzia kokaturik dauden indar mediatiko zein politiko hauek.

BIKTIMA GUZTIAK BABESTEKO ERA BAKARRA BIKTIMA BAKOITZA BABESTE DA

da biktima hauen eskuzabaltasuna. Sakoneko aldaketak saltzen dizkiguten esparruan eman direnik zalantzan jartzen dute horrelakoek.

Bestalde, biktimen *biktima* kontsiderazioa beraien pentsamendu eta ekintzen arabera lortzen dutela gogorarazi dit egoera honek. *Biktima guztiakin gaude* esaerak guztion ahoak betetzen dituen garai honetan, biktima guztiak babesteko era bakarra biktima bakoitza babestea da, eta hori ez du ez ezker abertzaleak ez Espainiako eskuin atzerakoiak egiten.

Fermin babestu duten biktimak ezker abertzalearentzat biktima *onak* diren bitartean, Consuelo Ordoñez edo Maite Pagazaurtundua baino biktimagoa da Fermin bera, eta hau horrela den bitartean badaukagu zer landu.

Gauzak nahastu behar ez diren moduan, ahaztu ere ez dira egin behar eta!

Gai honek, gainera, beste hausnarketa batzuetarako bidea zabaltzen du. Hala, alde batetik, ETako hainbat biktimak Fermini adierazi dioten babesa aipatzekoa da. Ferminen ETarekiko izan eta mantendu duen jarrera kontuan hartuta, ikusgarria

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Guraso, eredu eta irudi

GOTZON ARZELUS GARAI

BERGARA

Igandean, Bergarako Labegaraieta kiroldegian eskubaloia partidua jokatu zuten Bergarako eta Arrasateko infanbil neskek. Eskubaloia kontaktuzko kirola dela jakina da; errespetuzkoa. Zoritxarrez, beste kirol batzuetan ikusten ditugun jarrerak izan ziren. Infantiletan, neska-mutikoei, kirol bat ikasteaz gain, balioak erakutsi behar dizkiegu.

Guraso talde bat, errespetu falta handiz, gaizki-esaka eta txistuka aritu zen. Okerrena da 16 urteko arbitro baten kontra ari zirela. Halako baten, arbitroak partidua geratu,

gurasoak isildu arte itxaron eta ez zuela arbitratzen jarraituko esan zien. Haiek zirela adinez nagusiak eta ezin zirela eredu eta irudi hori eman alabei. 16 urteko mutil batek adinez nagusia zen talde bati!

Horrelakoak, zoritxarrez, kirol, partidu eta aste bukaera askotan gertatzen dira. Hausnar dezatela seme-alabak ikustera eta animatzera doazen gurasoek. Izan ere, ahazten zaigu kirola ez dela irabazi edo galtzea bakarrik. Hori nola lortu eta egiten den, horrek duela benetako garrantzia, bereziki adin jakin batzuetan.

Bide batez, besarkada handi bat arbitratzen ibiltzen zareten neska-mutilei. Zuek barik ezingo lirateke partiduak

jokatu! Eta gurasoei, izan ere, arbitroek ere gurasoak dituzte.

Eskerrik asko!

M. CARMEN TELLERIA

BAKERO FAMILIAREN IZENEAN
ONATI

Amamarekin azken egunak pasatu behar izan ditugu Arrasateko Ospitalean. Profesionaltasuna, gertutasuna, goxotasuna, malgutasuna eta beste hainbat gaitasun erakutsi dizkigute. Jarraitu ezazue pertsona erdigunean ipintzen, arazo eta zarata guztien gainetik. Bakero familia osoaren partetik, gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu.

Bihotzez eskerrik asko.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zero Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Onatiko Udala



Arexabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Elbira izan zen gaur egungo ikastoletan loratu den hazia"

IBAN GONZALEZ PAGALDAI ZINEMAGILEA

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE

Iban Gonzalez zinemagile aretxabaletarraren azken lana da *Elbira* dokumentala. Elbira Zipitria ikastolen sortzaile, euskararen sustatzaile eta emakumeak baztertearen kontrako borrokalaria izan zen eta, hain zuzen ere, haren bizitzan eta jardunean sakontzen du ordubete inguruko ikus-entzunezkoak. **Zure gustuko pertsonaia izango litzateke, ezta?**

Ondo egongo zen gure andereñoa izatea, baina zorrotza izango zen eta, era berean, interesgarria.

Ohitura duzu horrelako pertsonaia pantailara ekartzeko.

Egia da memoria historikoaren bidean lan handia egin dugula. Gure ekoiztetxera bezero bat datorrenean norbait gogora ekartzeko, eta gu ere pertsonak garen heinean, batzuetan ilusio handiagoarekin egiten dugu, proiektuaren arabera. Kasu hau, berriz, oso ilusionagarria



Iban Gonzalez Pagaldai. IBAN GONZALEZ PAGALDAI

izan da, borrokalaria izan zelako eta haren konpromiso-maila herriarekiko, hizkuntzarekiko eta lanarekiko pedagogia-maila ez zirelako ohikoak, eta, gainera, horrelako testuinguru zailean

emakumea izanda, are gehiago. Garai hartako emakumeak, testuinguru matxista batean, gizonen ezjakintasunaz baliatzen ziren gauza handiak egiteko. Historikoki emakumeen lana

ez da behar beste aitortu; proiektua ilusio handiarekin hartu genuen. Alegia, Elbiraren dokumentala berezia da.

Tartean aurkitutako berezitasunek lanerako gogoia piztuko zizuten.

Bai; batzuek diote Elbira zorrotza zela; beste batzuek, erradikala; eta beste batzuek, maitagarria. Garai hartan gure kultura zapaldua eta debekatua zegoen eta arriskutsua zen horren alde egitea. Gerra garaian Donostiatik Iparraldera joan beharra izan zuen, baina han ere lanean izan zen eta han bertan aurkitu zituen korrante pedagogiko eta humanistikoak askoz aurreratuagoak ziren. Ondoren, etxera itzuli zenean, han ikasitakoak gure herrian egokitu eta martxan jarri zituen hemengo neska-mutikoeekin. Eta hura izan zen hazia, gaur egun herri guztietan dauden ikastola eta euskal eskoletan loratu den hazia.

Dokumental askok aurpegi serioa jartzen digute; hau, berriz, erraz ikustekoa dela esan genezake?

Kasu honetan, formatu aldetik fikzioa erabili dugu; dokumentalaren zati handi bat da. Gaur egun, jendea ohituta dago kalitatezko

gauzak ikustera eta informazioa modu ezberdinetan jasotzera. Horrenbestez, oso zorrotzak izan gara fikzioa egiteko orduan; talde profesionala izan dugu horretarako eta egin dugun guztian zehaztasun historikoa oso kontuan izan dugu. Horrela, Elbirari buruz ikasten duzu dokumentala ikusten ari zaren bitartean.

Bailaran ikusteko aukerarik izango dugu?

Aldunditik egin dena da herri guztietan eskaintza herri guztietan proiektatzeko, beti doan eta nahi den tokian, eta uste dut hori oso erabaki ona izan dela. Gainera, ikastola eta euskal eskola askoz deitu dute udaletara, ea dokumentala baduten galdezka. Debagoienean, adibidez, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin egongo da ikusgai; datak, ordea, oraindik zehazteko daude.

Gustura zaude egindako lanarekin?

Bai, oso gustura. Gogorra izan da, baina, egiten duzun lanak benetan motibatzen zaituenean eta egiten duzun lan hori maite duzunean, merezi du, amaieran zerbait lortu izanaren sentsazioa baldin baduzu.



Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Cadiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida martxoaren 3an, ostirala, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 14



Egin bazkide eta Reala ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!





lako Aratusteetan asko izan ziren mozorrotu ziren herritarrek, nahiz eta egitarau ofizialik ez izan. GOIENA

Pregoiarekin egingo dute eztanda Aratusteek bihar

2020an kuadrilla onenaren saria irabazi zutenek egingo dute pregoia bihar, zapatua, 12:00etan, Biteri plazan, eta desfilea abiatuko dute horren ostean, Garibai etorbidean zehar, Arrasate Musikaleko txarangak lagunduta; bost sari banatuko dituzte aurten

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Desfilearen ostean egingo dute sari banaketa, 13:00etan, Herriko Plazan. Kuadrilla onenaren saria 1.000 eurokoa izango da, urdaiazpikoaz eta plakaz gain; karroza onenaren saria, berriz, 500 eurokoa izango da, urdaiazpikoarekin eta plakarekin batera; kuadrilla gazte onenak 300 euro, urdaiazpikoa eta plaka eskuratuko ditu, bai-

ta taberna onenak ere; azkenik, bakarkako mozorro onenaren saria 150 eurokoa izango da, garaikurrarekin eta gaztarekin batera.

Arrasate Musikaleko txarangak, eguerdiko desfilean egingo duen moduan, arratsaldean ere giroa alaituko du herriko kaleetan zehar, 18:00etan hasita. 19:00etan, bestalde, *Verbena latina* festa egongo da

Seber Altube plazan, Amerika elkarteak antolatuta (Ikus 12. orria). Halaber, Iratzar taldearen dantzaldia ere egongo da, 19:30ean eta 22:30ean, Herriko Plazan.

Martitzenean bigarren platera Etzi, domeka, Vaiven antzerki taldeak *Familia sarekada* emanaldia egingo du Amaia antzokian, 19:00etan (Ikus 34.orria),

eta martitzenean, berriz, Aratusteen bigarren plateraren txanda izango da. 17:00etan mozorro desfilea egingo dute Biteri plazan eta, ordu berean, Muxi eta Tomax pailazoek 4 urtetik gorako haurrendako emanaldia egingo dute Amaia antzokian. Bi ipuin kontatuko dituzte: *Ahatetxo itsusia* eta *Txanogorritxo*. Sarrera doakoa izango da.

17:30ean kaleak girotzen hasiko da Samasiku txaranga eta 18:30etik aurrera Arrasateko Erraldoi eta Kilikiak kalez kale ariko dira. 19:30ean disko festa egingo du Nemux taldeak plazan.

Aratusteei amaiera emateko, sardina-ehorzketa egingo dute, SUDC elkarteak antolatuta. 20:30ean abiatuko dute desfilea, Kulturolatik, eta 21:00etan ehortziko dute sardina, plazan.

Arrasateko EH Bilduk lan-saio irekia egingo du otsailaren 23an

EH Bilduko kideak "buru-belarri" ari dira datorren udal ziklorako prestaketa-lanetan. Besteak beste, datozen urteetarako Arrasateko herri proiektua garatzen ari direla azaldu dute, eta, bide horretan, lan-saio irekia egingo dute otsailaren 23an, eguena, 18:30ean, Etxaluzen.

Ariketa kolektiboari ekin nahi dio EH Bilduk, politikagintza

ez dutelako ulertzen herritarren parte hartzerik gabe, haien esanetan: "Norbanakoen esperientzia eta ezagutza Arrasateren geroa eraikitzeke baliatu nahi dugu, eta denon artean EH Bilduren proiektua definitu".

Hori hala, honako erronka hauek izango dira saioko ardatzak: erronka demokratikoa, berdintasunaren erronka, erronka ekosoziala, zaintzaren erronka eta erronka kulturala.

Ekarpenak ere egin daitezke, arrasate@ehbildu.eus helbidean.

Haginetako pasta egiten ikasteko aukera bihar azokan

Bihar, bertako produktuen azokan, hagineta pasta naturalak egiten ikasteko tailerra eskainiko dute, menda, mihilua, eukalipto, salbia eta propolia erabiliz, Seber Altube plazan. 10:30ean hasiko dute ikastaroa eta parte hartzeko aurrez eman beharko da izena, Arrasate.eus-en, BAZen aurrez aurre edo telefonoz (943 25 20 00).

Pentsioei buruzko hitzaldia egingo dute eguaztenean

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, *Etorkezuneko eta gaur egungo pentsioak* hitzaldia egingo dute Andrea Uñak eta Jon Fanok otsailaren 22an, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduko kideak dira Uña eta Fano. Pentsiodunak astelehenean elkartuko dira, 12:00etan, plazan.

Ludoteka ibiltaririk ez da egongo asteburu honetan Musakolan

Dagoeneko martxan da Txatxilipurdik antolatzen duen ludoteka ibiltaria. Bi saio egin dituzte otsailean, baina, Aratustek direla eta, etena egingo dute asteburu honetan. Modu horretan, hurrengo saioa otsailaren 25ean izango da, Musakolan, 11:30etik 13:30era. Era berean, martxoaren 11n hasiko dituzte San Andres auzoko saioak.

"Arrasatek sinbolo gisa dituen elementuak erakutsi gura izan ditut"

IZARO SANCHEZ ARATUSTEETAKO KARTELAREN EGILEA

Arrasateko Aratusteetako kartelaren egilea da Izaro Sanchez (1987, Aretxabaleta). **Ze irudikatu gura izan duzu kartelarekin?**


Gura izan dudana da, batez ere, Arrasatek sinbolo moduan dituen elementuak erakustea eta, era berean, adieraztea edozein pertsonaia izan zaitzkeela Aratusteetan.

Zein izan da prozesua?

Idea nahiko argi neukan hasieratik. Beraz, bozetoa egin nuen lehenik koadernoan, eta ondoren, ordenagailuan tratatu nuen. Egia esan, oso gustura geratu naiz emaitzarekin, adierazi gura nuena ondo adierazi dudalako.

Ze lotura duzu Arrasatekin? Zergatik aurkeztu zara lehiaketan?

Ahalegintzen naiz Aretxabaletako zein Arrasateko lehiaketetara aurkezten. Harrotasuna sentitzen dut eta irabaztea laguntza bat ere bada. Horrez gain,



I.S.

Arrasatekin lotura dut, artisau taldean nagoelako.

Diseinu arloan diharduzu?

Argazkilaritza eta ilustrazioa ikasi nuen eta orain, artisautzaz gain, kartelak eta muralak ere egiten ditut.

Aratusteak ospatuko dituzu?

Bai. Dena dela, nahiko txarra naiz mozorroa prestatzeko eta beti azken orduan ibiltzen naiz.

Mozambikera eta Indiara iritsiko da oihartzuna

Goikobaluk eta AGAk kontzertu solidarioa egingo dute San Juan Bataiatzailearen parrokian gaur, 20:00etan hasita, Harreman elkarteak antolatuta; gobernuz kanpoko erakunde horren bi ekimen ezagutu eta laguntzeko aukera izango dute entzuleek

Hasier Larrea ARRASATE

Urtero sustatu ohi du Arrasateko Harreman elkarteak San Juan Bataiatzailea parrokian kontzertu solidarioa, herriko zenbait kantu-talderen parte-hartzearekin. Aurten, Arrasateko Gazte Abesbatzak eta Goikobaluren abesbatza nagusiak eta txikiak eskainiko dituzte kantu koralak. "Benetan estimatzekoa da koru hauek erakusten duten prestutasuna; oraingoan ere euren errepertorio onena entzun ahal izango dugu, arretaz landutakoa", adierazi du Cristina Etxenausiak, Harreman elkarreko kideak.

"Etorkizun duinagoen alde"

Emanaldia herritar eta erakunde orori eskainitakoa dela nabarmendu du Etxenausiak: "Mota guztietako ezbeharrak pairatzen dituzten eta premia larriko egoerak bizi dituzten pertsonen egoerak azalduko ditugu; bereziki, Mozambikeren eta Indian dauzkan proiektuetako kideenak.

Jendea animatu nahi dugu egitasmo horiek sostengatzera, bazkide edo laguntzaile gisa parte hartuz".

Lehenengoa herrialdeko nekazaritza ekoizpena hobetu eta areagotzean datza, nekazarien bizi kalitatea hobetzeko. Mundukide Fundazioko Beñat Arzadunek 20 urte baino gehiago daramatza Mozambikeko lurretatik bizi direnekin elkarlanean, "miseriatik pobrezia igaro daitezten"; Harremanek bere aletxoak jartzen du egiteko horretan, bazkideak kaptatuz, besteak beste.

Azalduko duten bigarren proiektua Ankur harrera-etxeari lotutakoa da. Indiako Bombay hirian dago eta, familia oso txi-

MOZAMBIKEKO NEKAZARIEI ETA INDIKO HAURREI LAGUNTZA EMATEA DA HELBURU NAGUSIA

roetako 200 haur baino gehiago artatu eta elikatzeaz gain, etorkizunerako prestatzea du helburu, bizitza duina izateko beharrezkoak dituzten ikasketak ziurtatzeko.

Egoera larriagoan

Pandemiak bi proiektuetako onuradunak "kalteberago" bihurtu dituela ohartarazi du Harremaneko kideak. Kikiltzetik urrun, ekarpen ekonomikoek "behartsuenei laguntzeko jarduerak lantzen eta antolatzen jarraitzea" animatzen dituztela dio. Gainera, "jarraipen zorrotza" egiten diote jasotako funtsen erabilerari eta zuzenean proiektuetara doazela ziurtatzen dute, bitartekariak eta egitura-gastuak saihestuta: "Harremanen gaudenak boluntarioak gara, mundu bidezkoago, jasagarriago eta justuagoa lortzeko beste asmorik gabe". Gardentasunaren aldetik, urtero egiten dute proiektuetako alderdi guztien "deskar-gu publiko eta zehatza".



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Hidraren buruez

Izebergaren puntari begira galtzen dugu denbora. Adi gaude Europar Batasunaren mugaren batera heldu den errefuxiatuari, baina ez diegu jaramonik egiten hara eraman duten kausei. Gaineko geruzak lantzea ez da nahikoa, soilik bistakoa den horrekin denbora galtzea ezer ez aldatzea da.

Horregatik, inperialismoaren ofentsiba beteetan gauden honetan, ezin gara Leopard tankeei begira geratu. Arazoa bere osotasunean ulertu behar dugu; kontua ez da Ukraina, hau aitzakia bat da, ikusgai dagoen zatia. NATO eta bere kidegoa ez da armetara mugatzen, herri langilea miseriara daramaten EBren politikak ez dira krisi koiunturalari erantzuna. Herrion aurkako eraso honi erantzun nahi badiogu, ezin gara indar militarra kritikatzera mugatu. Etsai erraldoia dugu aurrean, transnasionalki antolatua eta inongo etikarik gabekoa. Honi aurre egiteko herri antolatua behar dugu, iraultzaren haziak etengabe landatu eta zenbatezin buru dituen hidra izango dena, bat eraso orduko beste hamaika sortuko dituen. Heraklesek garaitu zuen, baina inperialismoak ez du lortuko.



Astelehenero ekimen sinbolikoa. ARRASATEKO SORTU

Torturaren gaia itzalpetik argira eramateko unea dela dio Sortuk

Otsailaren 13an, Torturaren Aurkako Egunean, ekimen sinbolikoa egin zuen Seber Altuben Arrasateko Sortuk

H.L. ARRASATE

Arrasaten azken 70 urteotako 111 tortura kasu daude dokumentatuta, eta, horiek guztiak ikustarazteko asmoz, astelehenean plastiko beltzez estalitako 111 aulki jarri zituzten Sortu erakunde politikoko Arrasateko kideek Seber Altube plazan.

Horrekin batera, aurtengo Torturaren Aurkako Eguna "testuinguru berezian" iritsi dela adierazi dute: "Lehenengoz, Nafarroa Garaian izandako tortura-kasuen errealitate gordina azalarazi du Kriminologiaren Euskal Institutuak urtarrilean

argitaratutako txostenak. Ikerketa horri eta 2017an argitaratutako Araba, Bizkai eta Gipuzkoako txostenari esker, Euskal Herriko azken 60-70 urteotako torturen lehenengo argazki bat daukagu: 5.633 tortura kasu baino gehiago jaso dira".

Ondorioz, Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroa Garaiko Gobernuari galdera gehiago erantzuteko dei egin diete: "Nork torturatu du? Non, noiz, zergatik eta zertarako? Biktimek oraindik ez dute jaso aitortza sozial, politiko eta instituzionalik".



Goikobaluk abesbatzakoak parrokian, Harremanek antolatutako kontzertu solidarioetako batean. GOIENA

"Asun pilo batez jositako bidea da amatasuna"

JUNE BAONZA 'AMA TA ASUNAK' ERAKUSKETAREN EGILEA

Diseinatzaile durangarrak egun bateko erakusketa jarriko du Kulturateko klaustroan datorren egunean; solasaldiaz eta dokumentalaz jantziko du hitzordua, 19:00etan

Hasier Larrea ARRASATE

Amatasunaren gaineko sei hitu eta bizi-esperientzia batzen ditu June Baonza Pagaldaik (Durango, 1979) *Ama ta asunak* proiektuan. Gertuko sei emakume elkarriketatu, bakoitzarekin obra grafiko bat osatu eta euren testigantzeekin ikus-entzunezkoa ere landu du. Emakume Txokoaren eskutik, hilaren 23an emango du proiektuaren berri. **Diziplina anitzeko lana aurkeztuko duzu, egun bakarrean; nolatan?**

Durangoko Udalak aurkeztutako sortzaileen beka lortu nuen eta obra kontzeptual grafiko sortzea zen hasierako asmoa. Aukeratu dudak teknika grabatua izan da, nahita, beti ematen baitu akatsen bat; aurreikusitako dezakezu nola irtengo den obra, baina ezinezkoa da berdin-berdin errepikatzea. Amatasunaren metaforarekin bat egiten du horrek. Elkarriketa batzuk egin eta gero, interesgarria iruditu zitzaidan ikus-entzunezko euskarria ere erabiltzea, hizkuntza hori errazago ulertzen delako obra kontzeptual bat baino. Beraz, dokumentala ikusita, erakusketa ikuspegi osatuarekin begiratzea ahalbidetuko dio bisitariari. Hori da egun bakarera murriztearen arrazoia. **Nolakoak dira grabatu horiek?**



June Baonza. ITZIAR BASTARRIKA

Ez dira askotan espero ditugun modukoak, hitz batzuk eta alboan ilustrazio bat edo antzeko zerbait. Esan bezala, grabatu kontzeptualak dira, batzuk beste batzuk baino figuratiboagoak. Grabatu bakoitzean kolore bat nagusitzen da besteen gainetik eta pertsona desberdinekin lotzera eraman ahal gaituzte.

Sei protagonistek badute zurekin zerikusirik?

Nitaz hitz egin nahi nuen, nik daukadan korapiloa askatzeko, baina hirugarren pertsonen bitartez hitz eginda. Sei per-

tsona horiek nire inguru hurbilean bilatu ditut: hiru ama dira eta beste hiru ez; izan ere, nire ustez, ama ez izatea ere bada hautu bat. Euren bizipenetan ez dago zehazki nik bizi izan dudak ezer, edo bai, baina ez espresuki. Hau da, agian, eurek bizi izan duten guztia ez dut nik bizi izan, baina sentitu izan dutenarekin identifikatzen naiz. Eta publiko orokorrari berdina gerta dakioke, izan gizon edo emakume. Pertsona bakoitzak leku batean edo bestean bere burua ikus-

teko aukera dauka *Ama ta asunak* erakusketan.

Amatasunaren kontzeptua asko aldatu da?

Garbi dago amatasuna zoriontasunarekin lotzearen diskurtsoa larregi esplotatuta dagoela. Orain arte saldu diguten diskurtsoa beti izan da: *ez kexatu, zaindu, egon, egin zure lana, ez nabarmendu gehiegi...* Duela urtetxo batzuk bagabiltza jende bat esanez hau ez dela hain erraza eta hain ideala; alegia, ez dela arrosa-zelai bat, baizik eta asun pilo batek lagundutako bide bat dela. Horri buruz hitz egin gura nuen.

Gai hori politizatzea aldarrikatzen duzu.

Aurkezpenerako testu laburretan beti saiatzen naiz adierazten amatasunaren politizazioa egitea nahi badugu etxe barruan pasatzen dena kalera atera beharra dagoela.

Alabei ere egiten diezu keinu.

Alaba edo emakume bezala gizarteratuak izan garenok zapalkuntza batzuk partekatzen baititugu. Horri lotuta, emakumeok dauzkagun arazoek jatorrietako bat gizarreak gudan jartzen duen espektatibetan oinarritzen da. Beraz, alabatasunetik ere bideratu nahi izan dut lan hau.

Durangoko Arte eta Historiaren Museoa egin zenuen lehen erakusketa; ze iritzi jaso zenituen?

Jaioterrian norberaren lana aurkezteak bere alde on eta txarrak dauzka. 600 lagun inguru pasa ziren, hein batean, kuriositateak bultzatuta, ezagutzen naute eta. Baina kanpotik ere etorri zen jendea. Askok esan didate buruari eragiteko balio izan diela eta ez duela inor epeluzten. Orduan, hiru aste pasatxo egon zen ikusgai; ikusiko dugu egun bakarrek zenbaterako ematen duen.

Emakume Txokoko saio batzuk, irekita

2023ko otsailetik ekainera arteko plangintza kaleratu zuen urtaril bukaeran Emakume Txokoak, guztira hamabost ikastaro eta tailerretan izena emateko aukera eskainita. Aurten ere harrera arrakastatsua izan dutela adierazi du Ester Lizarralde dinamizatzaileak, "saio gehienak, ia guztiak", atera baitituzte aurrera. Gainera, oraindik izena emateko aukera dago *Nola hitz egin jendaurrean?* ikastaroan eta martxoaren 4an izango den *Hizkuntzaren erabilera feminismoan* tailerrean.

Aste Santu ostekoei begira, beste horrenbeste gertatzen da *Betaurreko binarioak apurtzen: anitzasunaz jabetzen eta Bizi-eredu berrien eta zahartzaro komunitario baten bila* tailerrekin.

Bestalde, Martxoaren 8ko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea atzo bukatu zen. Kartel guztiak Emakume Txokoan jarriko dituzte ikusgai, martxoaren 6tik 17ra.

"EMAKUMEZKOEI ETA GIZONEZKOEI ZUZENDUTAKO LANA DA, GIZARTE OSOAK IKUSTEKO MODUKOA"

Mus torneoan aurrerapausoa

Joan den zapatuan Euskal Herriko Mus Txapelketako partidak jokatu zituzten Irati topalekuan. Xabier Garai eta Jon Elkoro –argazkikoak– izan ziren onenak, Miguel Rico eta Aitor Regaño bigarrenak eta Iñaki eta Jokin Mujika anaiak hirugarrenak. Lehen bi bikoteek Gipuzkoako kanporaketa jokatu dute Deban, martxoaren 11n. Ea handik ere otarreekin datozen!



IKER ARANBURU

Treba Gurasoak saioko beste hitzaldi bat martitzenean

Nerea Mendizabal psikopedagoak *Seme-alaben autoestimua elikatzen* izeneko berbaldia egingo du hilaren 21ean, 18:00etan, Kulturaten. Haurren eta nerabeen gurasoei dago bideratuta eta *izenemateak. arrasate.eus* atarian eman beharra dago izena aurrez. Ekitaldia Aldundiak eta Udalak babesten dute, Treba Gurasoak dinamikaren baitan.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

MU igoerako postuetan doa liderraren etxera

Liga hasiera irregularra egin ondoren, Julen Berrocalen taldeak neurria hartu dio txapelketari; bigarren daude, azken hamar partiduetatik bederatzi irabazi eta gero. Asteburuan Logroñon izango dute orain arteko kontrario gogorrena, LBC Cocinas.com

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak denboraldiaurrean izan zituen aldatetekin gutxiak aurreikusiko zuten orain momentuan talde arrasatearra horren aurrean egongo zenik. Izan ere, domekako Ardoiren kontrako garaipenak (95-80) moreen bolada ona berretsi du. Julen Berrocal entrenatzaileak domekako partidu ostean GOIENARI aitortu zion denboraldi hasieran ez zuela uste orain horren ondo egongo zirenik: "Entrenatzaile berria, jokalar berriak, lan egiteko modu berria, bestelako planifikazio bat eta izan genituen azken ordukoak... Horrekin batera,



Atxa, jaurtiketa egiten. I.S.

baja garrantzitsuak ere izan ditugu denboraldian zehar; horrenbestez, nik ere ez nuen us-teko bigarren egongo ginenik".

Baina egindakoaz konformatu barik, liga amaierara arte izango dituzten helburuen gainean ere egin du berba entrenatzaile durangarrak: "Helburu nagusiak izan behar du eguneroan zentratzea eta ondo entrenatzen saiatzea, horrek emango digulako aukera denboraldi amaierara ahalik eta ondoen iristeko". Izan ere, dena ondo bidean, liga amaiera ez da edonolako izango Berrocalen mutilendako, arrasatearrek beste igoera fase bat jokatzeko

aukera izan dezakete eta: "LBC Cocinas.com ezin dugu harra-patu; errioxarrek partidu guztiak irabazi dituzte eta ez da posible eurak harra-patzea, se-kulako talde zarrak dute. Baina Getxo, Gipuzkoa Basket Easo, Fundacion Bilbao Basket... Cant-basket ere ez nuke baztertuko... Talde horiek borrokatuko gara igoera faseko txartela ematen duen bigarren postuetatik".

Liderraren kantxara zapatuan

Mondragon Unibertsitatekoak sasoi betean daudela iritsiko dira ligako talde gogorrenaren kontrako lehiara: LBC Cocinas.com -zapata, 20:00, Logroño-. Errioxakoek oso fitxaketa onak egin dituzte, Zilarrezko LEB Mailara igotzeko apustu garbia egin dute eta, oraingoan, bide zuzenetik doaz; ligako partidu guztiak irabazi dituzte (17): "Oso partidu zaila izango da, baina Iturripen jokatu genuenean indarrak parean izan genituen; azken bi minutuetan irabazi zuten partiduak, eta, hain zuzen, Martin Buesaren hutsunea izan genuen guk. Bada, lehiakorrak izan nahi dugu Logroñon".



Esku-ohetan eraman zuten erdilaria. J.B.

"Zorionez, lesioa ez da uste genuen bezain larria", dio Santiagok

Zapatuan Mondragon eta Eibarren arteko partiduak eten egin behar izan zuten, Mondragon erdilaria Iñigo Arizmendiarriz min hartu zuelako. Anbulantzia eraman zuten ospitalera. "Lesio larria du, baina uste genuen are eta larriagoa izango zela, orkatila lekutik irtenda zeukalako. Zorionez, ebakuntza ondo joan da", adierazi du Jorge Santiago kirol zuzendariak.

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasatera!
IRATI · TAUPA · BASATI · ILUNTZ
JAI ZALE · DAT · OSORIK

etxera

Aggressive Combat, bi hamarkada taula gainean

Pandemia aurretik geldi samar bazeuden ere, Aggressive Combat indartsu bueltatu da. Arrasatearrek bost abesti dituen lana grabatu berri dute Tae Records-ekin eta dagoeneko Interneten dute lana salgai; taula gainera igotzeko gogoz daude

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

"Hau da betidanik egin dugun musika eta aurrerantzean ere egingo duguna". Aggressive Combateko kideen esanak dira, baina ez oraingoak. Duela hamarkada bat GOIENArako egindako elkarrizketan Marak, Jurgik eta Nevadok nabarmendutakoak dira. Baina denbora ez da alferrik pasatzen, ezta oi! klasikoaren bandera gogor asintzeko asmoz sortu zuten taldeko kideendako ere.

Eta orain, laugarren diskoa kaleratu berri, taldeko kide Marak aitortu du baietz, lan berriarekin jarraitzaileek aldaketa suma dezaketela: "Taldeen aldaketak izan berri ditugu: Iñaki Virus-ek taldea utzi du eta haren orde bi gitarra-jole sartu dira, Ortega eta Arri. Baina diskoa Iñakirekin grabatu dugu eta esango nuke ukitu rockerragoa duela lanak, igartzen dela Iñakiren eskua. Dena dela, jendeak ez dezala gauza arrarorik espero; badakigu zer den egin nahi duguna eta horixe egin dugu".

2024an 20 urte beteko dituzte

Atzera begiratzuz gero, 2004an Musakolako deposituetan sortu zuten talde hark laster bi hamarkada beteko ditu: "Komentatu izan dugu taldekideon artean datorren urtean zerbait berezia egin beharko dugula, baina oraindik ez dugu zehaztu zer: lan berriren bat... Ez pentsa ez duenik merituak bi hamarkadatan elkarri aguantatu izana, eta hor gaude oraindik", dio Marak, barrez. "Urte hauetan guztietan, noski, Aggressive Combatek ez du intentsitate berarekin jardun: "Esango nuke pandemia ostean indar eta gogo handiagoz bueltatu gara. Pandemiak ez gintuen geldiarazi, gu lehenagotik geunden geldi [Barreak], azken batean, taldeko kideon lan kontuek eta bestela-



Ezkerretik hasita, Nevado, Iñaki, Mara, Ortega ta Sid. AGGRESSIVE COMBAT

TAE RECORDS-EKIN GRABATU DUTE DISKOA ETA BOST ABESTIREKIN OSATU DUTE BILDUMA

koek eragina izaten dutelako, baina bai, taula gainera igotzeko gogoz bueltatu gara".

Lana Interneten dago salgai

Disko berria Tae Records-ekin grabatu dute eta "indarrez betetako" bost abestirekin osatu dute bilduma: "Izenik ere ez diogu jarri diskoari; gaur egun musika Interneten kontsumitzen denez ez dakit zentzu handirik ote daukan disko bati izena jarzteak, baina tira, lehenengo abestiaren izenburua ere izan zezakeen... Baina, izenburua pentsatzen ez hastearren, ondo dago horrela; ez gara askorik konplikatu". Bada, www.taerecords.com helbidean eros daiteke Aggressive Combaten lana.

Emanaldiak egiten dabilta

Disko berria argitaratzearekin batera, Arrasateko taldea hasi

da taula gainera igotzen. Joan den asteburuan, esaterako, Oñatin izan ziren beste talde askorekin batera Mikel Perearen omenezko kontzertuan. Aggressive Combatekoekin batera Dirty Brothers, Enboskada, Never Surrender, Neallta Fola, GBH, Arkada Social eta Bladders taldeak igo ziren taula gainera, emanaldi gogoangarrian: "Aspaldiko lagunekin elkartu ginen eta gau ederra izan zen. Gainera, bertan batutako dirua Aspainogira bideratu zen, minbiziaren kontra egiteko".

Bada, disko berriaren bueltako bigarren kontzertua izan zen hura eta hurrengoak ere lotuta dituzte dagoeneko. Maiatzaren 20an Zaldibarren joko dute eta hurrengo bi emanaldiak kanpoan egingo dituzte: "Horixe da gehien gustatzen zaiguna. Sid orain momentuan Parisen bizi da eta hilean behin saiatzen da etortzen. Bada, etortzen den egun horietarako kontzertu bat lotzen saiatzen gara, baina ekainaren 20an gu joango gara Parisera". Uda hasteko modua izango da hori, eta non amaitu ere lotuta dute, irailaren 23rako Portugalera joango dira eta.



Amerika elkartekoak, Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Egunean. GOIENA

Karibear erritmora dantzatzeko dute bihar Seber Altube plazan

Aratusteei kutsu exotikoa erantsiko die Katanga Dub musika taldeak; jana eta edana ez dira faltako

H.L. ARRASATE

Arrasaten sortutako Amerika elkartek bere ekarpena egingo die aurtengo Inauteriei, azkenaldian beste hainbat festatan egin izan duten moduan –Musakolakoetan eta San Andreskoetan, esaterako–. Biharko, hilak 18, Nafarroako Katanga Dub gonbidatu dute Seber Altube plazara. 19:00etan hasiko den dantzaldi-emanaldian dub musika-eszenako soinu elektronikoa eta Kolonbiako Karibeko landa eta hiri-erritmoak uztartuko dituzte nafarrek. Euren leloa "aurreiritzi eta mugak

apurtzea" denez gero, gogotik saiatuko dira cumbia, bullerenge, funk, elektronika, dantza, performance eta kontakizunekin uztartutako saioa taularatzen.

Ekitaldi borobila

Hori izango da plater nagusia, baina egongo dira osagai gehiago ere Seber Altuben, gauerdira arte iraungo baitu festak. Besteak beste, jaki latinoak dastatu ahaliko dira, hala nola enpanadak eta txitxi-burruntziak. Mozorro lehiaketak eta Set musika jarrailearen kantu-zerrendak jarriko diote ginga egunari.

Arrasate Musikaleko ikasleek mozorrotuta joko dute gaur

Inauterietako ohiko kontzertua izango da gaur Amaia antzokian 18:30ean hasiko dena. Guztira, bederatzi taldek hartuko dute parte, ehun ikasle inguruk, eta dohainik ikusi ahaliko da. Bestalde, martxoaren 11n 50. urterena ospatuko du Arrasate Musikalek Uarkape pilotalekuan. Banda, orkestra eta ikasleekin batera Goikobalu abesbatza, Txorbela otxotea, Izaskun Murgia elkarre lirikoak, Arrasateko Koru Parrokiala eta Bergarako Orfeoia igoko dira oholtzara. Sarrerak salgai daude Ezkiña, Kajoi eta Monte tabernetan, 10 eurotan –bazkideek 8 eurotan eskura ditzakete musika eskolako idazkaritzan–.

Bones Of Minerva taldearen metal abestiak Koolturen

Lau emakume madrildarrez osatutako taldeak borobilduko du Kooltur Ekintzaren egitaraua. Datorren egunean joko dute gaztetxean, hilaren 23an, 22:00etan. Bertan, *Embers* azken diskoko kantuak interpretatuko dituzte. 2013tik dabilta egurrean Espainiako metal alternatiboaren eszenan. Riff oldarkorak, erritmo frenetikoak eta ahots oniriko eta urratzaileak dira Bones Of Minervaren ziguila. Kaosaren eta harmoniaren artean mugitzen dira, rockaren kolore ilunenak ondo baino hobeto uztartuta. Behetik gora egin duen taldea da, duda izpirik gabe, aurtengo Azkena Rock jaialdian izango baitira.



lazko emanaldiko talde argazkia. TRIKIKALEJIRA ELKARTEA

Trikitia eta dantza Aratuste giroan sartzeko

Aratusteetan bete-betean sartuta, askotariko ekitaldiak izango dira martitzenera arte. Gaur, esaterako, musika doinuak eta Lagun Artean taldearen erakustaldiak izango dira. Trikiti taldeak kultura etxean egingo du kontzertua, 3 euroren truke

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Trikiti Eskolak Inauterietako kontzertua egingo du gaur, 18:00etan, kultura etxean. "Azkeneko bi urteetan egin dugun moduan, aurten ere ikasleen Inauterietako kontzertua egingo dugu", azaldu du trikiti irakasle Aritz Alustizak. Auspotarrak eta Larruketarrak taldeak igoko dira oholtzara. "Trikitiari eta panderoari keinu" eginez ipinitako izenak direla dio Alustizak. Kontzertua 3 euroren truke izango da.

Trikiti Eskola osatzen duten 50 ikasleek jarriko dute musika. Denetariko abestiak entzungo direla azaldu du Alustizak: "Euskal abesti tradizionalak izango ditugu, betiko moduan; baina, horrez gain, baita gaur egungo taldeak ere: Zetak eta ETS, besteak beste". Trikitiaz eta panderoaz gain, beste musika instrumentu batzuk ere egingo dira: pianoa, bateria, gitarra eta baxua.

Mozorroa jantzita

Inauterietako kontzertuak gai bat izaten du: aurten *Troglodita* izango da gaia eta musikariak modu horretan moztortuta irtengo dira oholtzara. Iaz, esaterako, *Mamma mia!* izan zen gaia. Musikariak Abba musika taldeko partaideen moduan jantzi ziren eta trikiti doinuekin 70eko hamarkada irudikatu zuten.

Alustizak dio ikasleak gogotsu eta, era berean, urduri daudela gaurko emanaldirako: "Hala ere, irakasleak eurak baino urduriago egongo gara. Ikasleak ohitura daude kalejiretan jotzera, baina oholtza gainera irtetea ezberdina izaten da".

Dantzarien emanaldia

Trikitia ez da izango gaurko kultura emanaldi bakarra: Lagun Artean dantza taldeak ere emanaldia egingo du herriko kaleetan. Frontoi aldetik irtengo dira, 19:00etan, eta kalean ibiliko dira dantzan. "Pare bat geldialdi egingo ditugu kalean", dio dantza irakasle Oihane Vicentek. Egingo dituzten dantzak izango dira: txantxo dantza, sorgin dantza, momotxoroen dantza, fandangoa, arin-arina... Nabarmendu du, gainera, aurten Momotxorro jantzita irtengo direla kalera –Altsasuko Inauterietako pertsonaia tradizionala–.

Gogotsu dagoen taldea

Lagun Artean dantza taldeak sei talde ditu aurtengo ikasturtean. 4 urtetik gorako ikasleak

TRIKITI ESKOLAKOAK TROGLODITA MOZORROTUKO DIRA ETA DANTZARIAK, MOMOTXORRO

ditu Vicentek eta adinaren arabera sailkatuta egiten dituzte entseguak. DBHko adina duten neska-mutikoen taldean, gainera, Legutiotik etortzen diren bi nerabe daudela nabarmendu du Vicentek.

Ikasturtea hasi zutenetik egingo duten bigarren ekitaldia izango da gaurkoa –Erretiratuen Egunean egin zuten lehen emanaldia–. Bi horiez gain, Martxoaren 8aren bueltan ere kalera irtengo direla adierazi du Vicente dantza irakasleak.

Herri bazkaria, bertan behera

Inauteriak betiko moduan antolatu eta ospatzeko gogoz zeuden aurten; hori horrela, bihar herri bazkaria egitekoak ziren eskolako jangelan. Bada, bazkaria bertan behera geratu da. Ez da bazkaririk egingo, baina bai moztorro lehiaketa. Izena emateko aukera zabalik dago oraindik ere eta bihar bertan ere egingo da izena emateko aukera. Kultura etxean dauden orriak bete beharko dira; behin beteta, udaletxean aurkez daitezke, baita liburutegian ere.

Lehiaketako sariak izango dira: lehenengoak 150 euro eramango ditu eta bigarrenak 90 euro –bi kategoria egingo dira eta bietan egingo dira bi sari-dun–. Horrez gain, moztorro originalena ere sarituko dute. Txokolata-jana ere egingo da, eta ondoren, musika.



Ane Arexolaleiba, Xabi Igoa, Aitor Ugarte eta Iraide Onaindia. A.E.G.

Izena Pentsau Bida taldea finalerdietarako sailkatu da

Lehen fasea amaituta, sei taldek egin dute aurrera: Aramaioko taldeak otsailaren 26an izango du finalerdia

A.E.G. ARAMAIO

Bertsu Kuadrilla Arteko lehenengo fasea amaituta, erabakita daude finalerdietan parte hartuko duten taldeak. Aramaioko kasuan, hiru taldeetatik bakarrik egingo du aurrera: Izena Pentsau Bida taldeak –A ligako irabazlea–. Aurrera egin duten gainontzeko taldeak dira: B ligako irabazle Bertxilika; D ligako irabazle Beeeertsolariak; E ligako irabazle Katuko Mui-noak; lehenengo sailkapenaren arabera, Errexala; eta, bigarren sailkapenaren arabera, Txandrio taldea.

Hiru finalurreko jokatu dituzte sei talde horiek. Aramaioko taldeak otsailaren 26an izango du finalurrekoa, domekan, Aguraingo Zabalarren: Izena Pentsau Bida eta Gasteizko Bertsilika arituko dira kantuan. Beste bi finalurrekoak izango dira: martxoaren 4an eta martxoaren 12an.

Barikuan bi saio jokatu zituzten Aramaioko Zabola elkartearen. Ibarako Periferiak eta Txandrio lehenengo eta, afariaren ondoren, Tratamendurik Gabek eta Altubepekoak. Txandrio eta Altubepekoak nagusitu ziren.



MIGEL LOITI

Erretiratuek Oñati bisitatu dute

Alaiak erretiratuen elkarteko 33 lagun Oñatira joan ziren joan den astean. Goiz partean herria bisitatu zuten –Sancti Spiritus Unibertsitatea, adibidez–, eta ondoren bazkaria egin zuten Pake Leku elkartearen. Erretiratuen elkarteko kideak gogotsu daude lanean; irteerak, ekitaldiak eta tailerrak antolatzen, besteak beste.



Komentua eta urbanizatzea aurreikusi duten haren ingurua. MIRARI ALTUBE

2023ko inbertsiorik handiena, komentua eta ingurua eraberritzeko

Udalak 15.407.226 euroko aurrekontua onartu du 2023rako eta horietatik lau milioi euro pasatxo izango dira inbertsioetarako. Udal Gobernuaren aldeko botoak jaso zituen horrek; EH Bilduk, ostera, abstenitzea erabaki zuen

Mirari Altube ARETXABALET

Agintaldi honetan agindutako eta aurreko urteetan abian jarri gabeko proiektuei ekiteko urtea izango dela adierazi zuen Unai Elkoro alkatea 2023ko udal aurrekontua onartzeko otsailaren 9an egindako osoko bilkuraren ostean: "Lanak handienak abian daude, baina hainbat errematatzea geratzen zaigu; hortaz, jarraipeneko aurrekontua dela esan daiteke".

Partida gehienetan ez dagoela aparteko gorabeherarik azaldu zuen: "Antzekoak dira. Igoera batzuk badaude partida batzuetan, inflazioaren eraginez, baina, orokorrean, nahiko antzerakoak dira". Gaineratu zuen nabarmentzeko igoerak inbertsioetan eta pertsonal gastuetan daudela: "Azken horri dagokionez, egonkortzeko fasean gaudenez, lanpostu gehiago aurreikusi dire-

lako da, baita soldaten igoeragatik ere".

EH Bilduk ez zuen babestu Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontua. Lehenengo, 2022ko aurrekontuaren balorazioa egin zuen alderdiaren bozeramaile Ion Albizuk, eta adierazi haren exekuzio maila oso baxua izan dela: "Heren bat exekutatu barik geratu da eta hori ez da batere berri ona. Kudeaketa ona egin den hausnartu beharko litzateke, aurrekontua betetzeko izaten delako". Hala, 2023ko aurrekontua "jarraipeneko" izanik, abstentziora jo zuten: "Iazko aurre-

"LANIK HANDIENAK ABIAN IZANDA, JARRAIPENEO AURREKONTUA DA"

UNAI ELKORO, ALKATEA

kontuaren luzapen bat da, gure ustez. Iaz exekutatu gabeko partidak txertatu dira, eta gutxi gehiago egin da. Gainera, kontuan hartu behar da hauteskundeak daudela aurten eta hurrengo udalbatzarrek kudeatuko duela ia bere osotasunean".

Gastuak sarrerak baino gehiago

Onartutako aurrekontuko diru sarreraren eta gastuen artean lau milioi eta erdi euro inguruko desoreka dagoela onartu zuen alkatea. Horri zelan aurre egin hilabete barru zehaztuko dute: "Ohiko sarrerak hamaika milioi euroren bueltan daude eta gastuak hamabost eta erdi milioi dira; hortaz, desoreka dago, bai. Hilabete eskas barru jakingo dugu, likidazioa jasotzerakoan, zenbateko gerakina dugun eta orduan aurkeztuko dugu zelan finantzatu. Orain dela urte pare

Udal aurrekontuaren ezaugarriak

Udalak 2023rako onartutakoa.

- Udal aurrekontua: **15.407.226 euro.**
- Inbertsioetarako: **4.175.672 euro.**

Inbertsio aipagarrienak:

- **1.507.500 euro:** Komentua eraberritzea.
- **500.000 euro:** Iturrizar plazako igogailua.
- **350.000 euro:** Komentu inguruko zubia.
- **312.000 euro:** Komentu inguruko urbanizazioa.
- **225.000 euro:** Komentu inguruko transformadorea lekuz aldatzea.
- **80.000 euro:** Arkuperako eguzki plakak.
- **60.000 euro:** Kiroldegiko led argiak.
- **9.000 euro:** Erraldoi berriak.
- **10.000 euro:** Basabeazpi parean estalkiaren proiektua.

Onartutako emendakinak:

- **8.000 euro:** Copreciko bidegorria.
- **1.000 euro:** Frontoi gorrian sare bat.
- **10.000 euro:** Energia aholkularitza bulegoa.
- **106.000 euro:** Alokairu publikoaren udal parkea.

bat kreditu bat sinatu genuen lanak bukatzeko, eta ikusiko dugu hori behar den eta zenbat".

Bereziki, energiaren gastuarekin agertu ziren kezkatuta bi alderdiak. Alkatea azaldu zuen diru-sarreraren %10 baino gehiago energiaren gasturako izango direla, eta hori "oztopo handia" dela: "Gastu horretan, gainera, pisu handia kiroldegiak du. Energia garestia den bitartean ekintza batzuk, beharbada, ez dira bidegarriak izango". EH Bilduk biomasa jartzea proposatu zuen, baina alkatea ez zuen begi onez ikusi: "Ez gara horren aldekoak, egurra erre behar delako, eta kiroldegiak duen kontsumoarekin miraririk ezin da egin. Udalak egin ditzake ekintzatxoak, baina beste batzuk dira bideratu behar dutenak energia fidagarria eta eskuragarria".

EH Bildu ez zen bat etorri Udal Gobernuarekin: "Energiak izan duen igoera pasatuko den zerbait bezala ulertzen dute eta guk uste dugu geratzeko etorri dela. Hortaz, konponbide estrukturalak planteatu behar dira".

Lanpostuak egonkortu

Hainbat udal lanpostu egonkortu egingo direla azpimarratu

"IAZKO HEREN BAT EXEKUTATU BARIK GERATU DA ETA HORI EZ DA BATERE ONA"

ION ALBIZU, EH BILDUREN BOZERAMAILEA

gura izan zuen alkatea, administrazioan gertatzen dabilen egonkortze-prozesuari esker: "Zortzi izango dira; eta erretiratzeko joango direnak kontuan hartuta eta zorrik ez dugunez gaur egun, beste bost postu sortzea lortu dugu". Horrek oreka ekarriko duela Udalera gaineratu zuen: "Aurtengo urtea trantsizio urtea izango da, baina datorrenetik aurrera orain baino egonkortasun handiagoa egongo da pertsonalean. Hori ona izango da, noski, azken urteetan izan dugun behin-behinekotasunak asko oztopatu duelako Udalaren funtzionamendua".

Era berean, alkatea onartu egin zuen iazko aurrekontuaren exekuzioa ez dela ona izan, EH Bilduk leporatutako legez. "Datuek hala diote. Aitzakiatan sartu barik, lanpostuen egonkortasunik ezak eragina izan duela esan behar da. Horregatik, hurrengo datozenei lagundu egingo die orain egindakoak".

Inbertsio handiena, komentua

Lau milioi eurotik gora bideratu dituzte inbertsioetara. Eta hor bi proiektu nabarmendu gura izan zituen Elkoro, bai kopuruagatik, bai herrian izango duten eraginagatik; biak ala biak komentuaren bueltan kokatuko dira. Batetik, adinekoendako gizarte zentroarendako izango dira milioi eta erdi euro: "Lanak abian egon arren, aurtengo aurrekontuan jaso dugu



Komentuak izango duen itxuraren irudia. ARETXABALETAKO UDALA

kopururik handiena". Eta bes-tetik, inguru osoa eraberritzeko beste 1.387.000 euro gorde dituzte. "Iturrizar plazako etxeak eraikitzen bukatzen dutenean igogailua eta eskailerak jarriko dituzte alboan. Eta Deba ibaia zeharkatzeko zubi bat. Txarapea ibilbidea herriaren erdigunea-rekin komunikatzea garrantzitsua da, baita komentuaren lorategia integratzea ere herrian", zioen.

Hain zuzen ere, Txarapea eta Iturrizar artean egingo den igogailuaren proiektua jendaurrean

jarri du Udalak eta alegazioak aurkezteko epea zabalik egongo da martxoaren 10a arte; dokumentua Udalaren webgunean *-aretxabaeta.eus-* kontsulta daiteke.

Hamaika emendakin

EH Bilduk hamaika emendakin aurkeztu zituen eta horietatik lau onartu zizkioten. Ondorioz, irakurketa gazi-gozoa egin zuen Albizuk: "Batzuk errazak eta azkar egitekoak ziren, gure us-tez, eta ez dizkigute onartu. Horien artean zeuden Portasol

ingururako proposatutako lantxo guztiak eta kiroldegian biomasa instalatzeko eta auzoetan Internet azkarra jartzeko aukerak. Pena da". Era berean, pozik agertu zen onartu egin zutelako energia aholkularitza bulegoa zabaltzea eta alokairurako etxebizitzara bideratutako diru-poltsa sortzea: "Udal honek sortuko du funts bat etxebizitzak erosi ahal izateko eta alokairuzko etxebizitza programa bat martxan jartzeko". Onartu ez ziren beste zazpi partidetako dirua azken honetara bideratzea onartu zuen Udal Gobernuak, eta, hala, 106.000 euro izango ditu. "Hurrengo urteetan etxebizitzak erositaz joan beharko da, alokairuzko sistema bat abian jartzeko", gaineratu zuen Albizuk.

Alkatea ere gustura agertu zen partida horrekin: "Udalak lau etxebizitza ditu gaur egun eta guztietan dago baten bat. Horrez gain, alokairurako ere eduki gura dira eta larrialdi kasuetarako ere izan beharko lituzke; horretarako guztirako parke bat behar da eta horrek inbertsioa eskatzen du".



Antzezlaren une bat. ORTZAI KONPAINIA

Umoretik kontatutako 'Cenicienta' antzezlana gaur

Umorea eta goxotasuna erabiltuta publiko orori egokitutako *Cenicienta* ikuskizuna eskainiko du Ortzai konpainia gasteiztarrak egubakoitzean Arkupen (19:00). Perrault idazle frantsesaren ipuin klasiko ezagunaren parodia 2007an estreinatu zuten, eta ordutik, ikusle "asko eta asko harritu eta hunkitu" ditu; Aretxabaletara ere asmo horrekin etorriko dira.

Martxoaren 8a antolatzen batzar irekiak deitu dituzte

Denon bizitzak erdigunean leloa ardatz hartuta Martxoaren 8an egin gura diren ekitaldiak antolatzen hasiko da Atxabaltako Mugimendu Feminista. Horretarako, asanblada irekiak deitu dituzte datozen bi astelehenerako: otsailaren 20a eta 27a. Bilerak izango dira Arkupeko bigarren solairuko aretoan 18:30etik 20:00etara.

OHARRAK

Elikagai bilketa

Turkiako eta Siriako lurrikaretan kaltetutakoei laguntzeko elikagai bilketa egingo du Zaporeak-ek. Eroskin jasoko dituzte egun osoan.

Odol-ateratzea

Odola emateko aukera izango da astelehenean (16:45-20:00) Durana kalean egongo den autobusean.

ondo pasan!!

ara tuste ak

EGUZKIGRAF
inprimategia

Araxa ibilbidea
20550 Aretxabaeta
Tfnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com

ISO 9001
ORGANIZACIÓN CERTIFICADA
CERTIFICADO 1794/19

Herria prest festan eta jai giroan murgiltzeko

Bi egun besterik ez da falta Aretxabaletan festak lehertzeko. Goiztiarrenak Leizarra Musika Eskolakoak izango dira; izan ere, Ibarra kiroldegian Egubakoitz Argaleko jaia ospatuko dute gaur. Herritarrek gogotsu daude urteko egun bereziena ospatzeko

Mikel Zumalde Etxabe ARETXABALETA
Guztia prest dago Aretxabaletan 2023ko Aratusteei ongietorria egiteko. Mozorroei azken ukituak ematen aritu dira egunotan aretxabaletarrak eta, hilabete luzeetako prestaketen ondoren, jai giroan murgiltzeko gosea dute. Kanean sumatzen da egun handirako soilik berrogeita zortzi ordu gelditzen direla. Aratuste-domeka baino lehen, motorrak berotzen hasiko dira gaur Leizarra Musika Eskolakoak; Ibarra kiroldegian, 18:00etan, Egubakoitz Argal jaia ospatuko dute. Bihar, berriz, bola-zaleek hitzordu garrantzitsua izango dute bolatokian; izan ere, Bolo Txapelketa jokatu da, 22:30ean.



lazko Aratusteetan UDAko jokalariek Durana kale amaieran. IMANOL SORIANO

Domekarako egitarau mardula
Otsailaren 19an, baina, etorriko da aretxabaletarrentzat urteko egun bereziena. 10:00etan hasita, dianak herria esnatuko du, eta ondoren, 11:45ean aurtengo Santa Ageda neska-mutilek txino dantza egingo dute; Herriko Plazan hasi eta buka, Durana kanean eta Mitarte kanean barrera aritu ondoren. 12:00ean, eguneko beste hitzordu garrantzitsu bat iritsiko da; kuadrillen desfilea. Hori amaitutakoan, bi eskaintza aukeran: herriko hiru musikariek kontzertua eskainiko

EGURALDI ONA IRAGARRI DUTE ETA HERRIA EGUN HANDIAREN ESPEROAN DAGO

dute Ezkutu kanpoaldean eta Gesaltza txarangak herriko kaleak girotuko ditu. 17:00etan Arlutzeko kantxan DJak egongo dira eta, beti bezala, 18:45ean mozorro lehiaketaren sari banaketa egingo dute, Herriko

Plazan. 19:00etan, Santa Ageda neska-mutilek azken dantza emanaldia eskainiko dute.

Gune morea

Eraso matxistarik gabeko Aratusteen alde, Udalak gune morea jarriko du Josu harategiaren parean 18:00etatik 22:00etara.

Aratusteak ofizialki otsailaren 21ean amaituko dira, martitzenean 20:00ean Txinen hiletarekin. Ohiturari jarraituz, Santa Ageda neska-mutilek zerraldoa eramango dute Mitarte Plazatik Herriko Plazaraino.

GORA ETA BEHERA



Araba ibilbidean kartel bat apurtuta dago

Herritar batek argazki bat bidali du GOIENARA, Araba ibilbideko 5, 11 eta 13. etxeetako helbideak adierazten dituen kartela lekualdatuta dagoela esateko. Egoera horretan hilabeteak daramatzala gaineratu du. Argazkia Errasti Zerrategia inguruan jaso da.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.




Frontenis Txapelketa izango da martxoaren 4an eta 5ean

Emakumeen Nazioarteko Eguna baino lehen, UDAk IX. Emakumezkoen Frontenis Txapelketa antolatu du martxoaren 4rako eta 5erako. Urtero lez, Iturrigorri pilotalekuan jokatu da eta izena emateko helbide honetara idatzi beharko da: emakumeen-frontenisaUDA@gmail.com. Apuntatzeko azken eguna otsailaren 28a izango da. Parte hartzeko hamar euro ordaindu beharko dira lehen neurketa jokatu baino lehen. Bikote irabazleari bertako produktuekin egindako saskia eta txapela emango dizkiote. Bederatzigarren aldiz jokatu da torneo herrian eta dagoeneko errotua dagoen egitasmoa da.


Datorren egunean Iker Pirisen kontzertua Arkupen

Datorren egunean, hilaren 23an, Iker Piris bluesman tolosarrak kontzertua eskainiko du Zaraia aretoan. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrerak bost euro balioko du. Oraingo honetan, boogie-woogiean aditu den Nirek Mocar gazte paristarra izango du lagun. Piri-sek gitarra izan du bidelagun urte hauetan guztietan eta kontzertuak eskaintzen aritu da azken hogeita bost urteetan. Hamar urte eman zituen The Romanticos taldean eta 2019an bakarkako diskoa atera zuen, *Solo* izenekoa. Oholtza partekatuko du artista ezagunekin; besteak beste, Paul Orta eta Mingo Balaguerrekin.



JOSU IRURE
ARETXABALETAKO GAZTEA

"Herrian sortzen den giroa oso berezia da; guk kontzertua antolatu dugu Ezkutu kanpoan, 13:00etarako. Animatu, ondo pasako dugu eta!"



LEIRE GONZALEZ DE MARTIN
SANTA AGEDA NESKA

"Txino dantzan irtengo gara 20 kinto. Ondoren, *bazkari golfo-ra* joango gara eta 19:00ean dantza egingo dugu Herriko Plazan. Egund betea izango da"



LIERNI ZANGITU DESFILEAN PARTE HARTUKO DU

"Aretxabaletarrentzat egund hain berezia izanda, espero dut eguraldia ere gure alde egotea. Betiko moduan, lotsa barik eta umorez irten gaitezen denek".

Jou Diaz
Karakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Urdelardero Eguna ospatu zuten herriko ikastetxeetako haurrek atzo. XABI URTZELAI ATXA

'Urdelardero' kantatuz hasi dituzte Aratusteak

Atzo Urdelardero Eguna ospatuta, mozorro desfileak berriz hartuko ditu herriko kaleak zapatuan. 13:00etan Luis Ezeizan hasita, Fernando Eskoriatza plazan geldiune txikia egin eta Santa Marina plazan amaituko dute bidea parte-hartzaileek

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Herriko gaztetxoek eman zieten hasiera Eskoriatzako Aratusteei atzo, Eguen Gizena, Urdelardero Eguna ospatuta. Haurrak, baserritar jantzita eta eskuan zirria hartuta, kantuan eta eskean aritu ziren herriko hainbat txokotan, eta aurten, berezitasun gisa, Eskoriatzako bi ikastetxeetakoak elkarrekin aritu ziren,

adinaren arabera banatuta. Hala ere, Aratusteen hasiera soilik izan da; izan ere, gaur, zapatuan eta martitzenean ere askotariko ekintzak izango dira herrian.

Mozorrotuta oholtzara

Azpimarratzeko hitzorduen artean, Eskoriatzako Musika Bandak, azken urteetako joerari eutsiz, kontzertua eskainiko du

gaur, 20:00etan, Zaldibar antzokian. 2018an egin zuen lehenengo aldiz data honetan emanaldia, eta berriro ere mozorro-jantziekin jardungo dute oholtza gainean. Emanaldia *Piztu telebista* izenpean eskainiko dute eta telebistaren historian izandako zenbait saiotako piezak izango dira entzungai, Jesus Urrutia Eskoriatzako bandaren zuzen-

dariaren gidaritzapean. Besteak beste, *Eurovision*, *Cartoon Symphony* eta *¿Cómo están ustedes?* piezak eskainiko dituzte, moldaketekin.

Mozorro desfilearen zain

Txarangarekin eta trikitilarien kalejirarekin girotuko da zapatu goiza eta kiroldegian herri-bazkaria egingo dute; arratsaldeko hitzorduekin batera, baina, eguneko ekintza nagusia mozorro desfile-lehiaketa izango da. Lehiaketan parte hartzeko, zapatuan 13:00etan egingo den desfilean irten beharko da. Hau da, sariren bat irabazteko, desfile osoa egiten duten pertsonak edo taldeak baino ez dira kontuan hartuko, Luis Ezeizaren patiotik irten eta Santa Marinan amaitzen dutenak. Horrekin batera, desfilean parte hartzeko ez da alde aurretik izenik eman behar, Luis Ezeizako patioan egon behar da 12:50erako, eta desfilean irten. Ibilbidea Luis Ezeiza-Fernando Eskoriatza plaza-Santa Marina izango da eta erakustaldia edo dantzaldia egingo duten taldeek plaza parean gelditu ahalko dute. Epaimahaia desfilea bukatutakoan elkartuko da erabakia hartzeko, eta 18:30ean jakinaraziko da irabazleak nortzuk diren eta sariak orduan banatuko dituzte.

Badatuz kukumarruak

Aratuste-martitzeneko protagonista nagusiak kukumarruak dira eta oraingoan ere Fernando Eskoriatza plaza inguruan ariko dira puxikarekin haurren atzetik. Hala ere, aurretik, goizean, 10:30ean hasita, haurren jaialdia izango da frontoian, eta egunerako prestatu dituzten zenbait dantza ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Aratusteetako egitaraua, egunez egun

Egubakoitza, 17

- **20:00** Musika Eskolako Musika Bandaren *Piztu telebista* Aratusteetako kontzertua.

Zapatua, 18

- **12:00** Gezaltza txaranga.
- **13:00** Trikitilariekin kalejira.
- **13:00** Mozorro desfile-lehiaketa, Luis Ezeizako patiotik hasita.
- **14:30** Herri bazkaria, kiroldegian.
- **17:00** Zezentxoak eta poneyak, Luis Ezeizako patioan.
- **18:00** Mozorro lehiaketako sari banaketa, Fernando Eskoriatza plazan.
- **18:30** DJ Moto.

Martitzena, 21

- **10:30** Umeen jaialdia, Joseba Iñurrategi pilotalekuan.
- **17:15** Kukumarruak, Fernando Eskoriatza plazan.
- **18:00** Eidabe taldearen *Gora bihotzak* saioa, Fernando Eskoriatza plazan.

MOZORRO DESFILEAN IZENA EMATEKO, ZAPATUAN 12:50EAN EGON BEHARKO DA ESKOLAKO PATIOAN

Bihar da mozorroa janzteko eguna

laz ez zen mozorro desfile eta lehiaketarik egin, baina kuadrilla asko irten ziren kalera mozorrotuta. Aurten berriz egingo dute, eta, norbanakoez gain, taldeak ere animatuko dira mozorrotuta Luis Ezeizan hasi eta Santa Marina plazarainoko bidea egitera. Aurreko zenbait ediziotan moduan, egunerako prestatutako dantzak ere ez dira faltako.



laz, kuadrilla bat mozorrotuta, Fernando Eskoriatza plazan. IMANOL SORIANO





Oier Etxebarria eta Nestor Arana izan ziren azalpenak ematen, Ibarraundi museoan. ARANTZA MIGUEL

Pobrezia energetikoa izan dute hizpide

Jauzi Ekosozialak antolatuta, Goieneko Nestor Arana eta Oier Etxebarria adituak izan dira asteon Ibarraundi museoan pobrezia energetikoaren gainean hitzaldia egiten. Aretoa beteta, zalantzak argitzeko tarte hartu zuten bertaratutakoek

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Pobrezia Energetikoaren Europako Astea izanda, Aretxabale-tako eta Eskoriatzako Goiener kooperatibako adituak izan ziren martitzenean Ibarraundi museoan pobrezia energetikoaren gaineko hitzaldia egiten. Jauzi Ekosoziala lan-dinamikako ki-deek antolatuta, Nestor Arana eskoriatzarra eta Oier Etxebarria aretxabaletarra izan ziren bertaratuei azalpenak ematen, eta, argindarraren eta gasaren prezioa ardatz, saioaren helburua problematikaren gainean eztabaida sustatzea izan zen.

Fakturak irakurtzen ikasten 50 lagun inguru batu ziren Ibarraundi museoan egindako ordubeteko saioan. Hizlariak zerbait kontzeptu azaldu zituzten; datuak eman eta aurrera begira egin beharreko urratsak ere adierazi zituzten. Bertaratutako herritarrek, bestalde, galderak egin zituzten saioaren amaieran eta zenbait faktura kontsulta-

tzeko ere aprobeztatu zuten hitzordua.

Energia-eredua aldatu beharra Saioren helburua pobrezia energetikoan daudenak identifikatu eta laguntzeko herritarrak formatzea izan zen, eta datuak ere jarri zituzten mahai gainean. Bertan azaldu zuten, urtean 43.000 euroko diru-sarrerak dituen hiru pertsonako familia bat gaur egun pobrezia energetikoaren mugan dago. Horrekin batera, gizarteak energia-eredua eraldatzeko beharra duela azpimarratu zuten; baita etxeko faktura elektrikoan fakturak interpretatzeko zailtasunak dituztela herritar askok. Eta, beraz, horretan eragin nahi izan zuten hizlariak.

50 LAGUN INGURU BATU ZIREN MUSEOAN POBREZIA ENERGETIKOAREN GAINEKO HITZALDIAN

Zenbait kontzeptu ezagutzeko eta barneratzeko aukera izan zuten ikus-entzuleek, eta hizlariak pozik agertu ziren eskoriatzarren erantzunarekin. "Energiaren merkatuaren inguruan oraindik ere zalantza eta zailtasunak agertzen ari diren honetan, garbi geratu da lanean jarraitu beharra dagoela eta soluzioak herritar aktiboen eskutik etorriko direla", adierazi zuten Nestor Aranak, pobrezia energetikoaren gainean berbetan aritu zen hizlarietako batek.

Zalantzak argitzeko bidea Datorren astean Arrasaten irekiko dute Goienarren Debagoieneko bulegoa, otsailaren 22an, eta hori ere izan zuten berba-gai, saioa borobiltzeko. Gasaren eta elektrizitatearen fakturen gainean herritarren zalantzak argitzeko prest daudela azpimarratu zuten. Zerkaosteta kaleko 15. zenbakian egongo da bulegoa; Kontzezino kalearen izkinan, hain zuzen ere.

NIRE USTEZ



ITSASO ERRARTE

Txikitik

Txikitik irekitzen dira ateak eta txikitik bideak. Alabaina, handitasunaren agorafobiak eta txikiaren klaustrofobiak ito egiten naute. Biek ala biek, baina txikiak behar handia eta handiak txikia. Horrela da? Ez dakit, bai, tartekoa ere hortxe da; zuri, beltz, gris... Kolore guztiak gero. Batzuetan ahaztu egiten zaigu nola behin txiki izan ginen. Eta ez jakin arren ere, zorientsuak gineneko garaiak ziren. Wifirik ez zen, baina pozik bizi ginen orduan ere: marratu egiten genuen, txabolak eraiki, zikindu, lokatzetan busti, putzuetan jolastu... Jakintasun, ezjakintasunean... Txiki izateak zituen abantaila guztiakin. Bai, bai, baita desabantaila ere –esango luke pesimistaren batek–, baina pozik. Buru bake eta gure bihotzen zorion borborio iturri. Makro, mikro, hiper, super... Txikitik handira, handitik txikira. Zaindu, eraiki, goxatuz handi izango den mundu txiki honen burrunba. Taupadaren beroa, pultsuaren pausa, arnasaren leuna... Segi egin behar, hortaz, bada, pauso txikitxoekin aurrera milaka koloreko lore aurri eta iñurritxo bihurrien kili-kili ekin sortuaz ginen, garen, izango direnen mundutxo berri hauxe.

EAJren Eskoriatzako alkategaia Joserra Zubizarreta izango da

2015a ezkerre Eskoriatzako alkate denak beste lau urtez agintean egoteko hautagaitza berretsi du, lekuko batzarrak horrela erabakita. Hala, Joserra Zubizarreta izango da Eskoriatzako EAJren alkategaia maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan. Dioenez, orain arte gauzatutako proiektuei jarraipena emateaz gain, egitasmo berriak martxan jarri gura ditu.



Joserra Zubizarreta, alkatez. I. BELOKI

Kultura hitzorduen berri izateko beste modu bat dauka Udalak

Eskuko telefonoan hileroko kultura programa Whatsapez jasotzeko aukera jarri du Udalak

I.B. ESKORIATZA

Pandemia garaian, Eskoriatzan paperezko kultur gida postontzietan banatzeari utzi zioten. Berriz ekitaldiak antolatzen hasita, Udalean gai honi buruzko hausnarketa egiteko aprobeztatu zuten: gastu ekonomikoa zein paperaren erabilerari dagokiona aztertu ziren, gida postontzietan banatzea erabilgarria edo komenigarria den... eta gida beste medio batzuetatik zabalatzeko aukerak ere aztertu zituzten. Hori horrela, kultur gida hileroko Whatsapez bidaltzen da

eta gaur egun 300 lagun baino gehiago dira modu horretan jasotzen dutenak.

Oraindik jasotzen ez dutenek honako hau egin beharko dutela adierazi dute Udaletik: 650 49 51 66 zenbakia kontaktuetan gehitu beharko da norbere eskuko telefonoan, eta izena eta abizena jarrita mezua bidali. Mezuak jasotzeari utzi nahi zaionean, nahikoa izango da zenbaki berera mezua bidaltzea, *Ez dut gida jaso nahi idatziz*, eta banaketa-zerrendatik kenduko dute.



AUZOKO ESKORIATZA

Xaboi naturalak egiten ikasten

Joan den egunean batu ziren auzotarrak, auzokideak eta ikasleak kultura etxean, xanpu eta xaboi naturalak egiten ikasteko saioan. Kristina, Jasone eta Ana izan ziren bertan Auzoko Eskoriatza egitasmoko kideei azalpenak ematen, eta, taldeko kideek adierazi dutenez, arratsalde ederra pasa zuten, eta asko ikasi.

Elikagaien bilketa egingo dute Turkiara eta Siriara bidaltzeko

Eskoriatzako mugimendu feministak bultzatuta, irabazi asmorik gabeko Zaporeak elkartearekin batera Turkiako eta Siriako lurrikarak kaltetutako errefuxiatuentzat premiazko elikagaien bilketa egingo dute datorren astean, otsailaren 20tik 25era bitartean, eta horiek batzeko hiru gune nagusi ezarri dituzte.

Ekialde Hurbileko herrialdeei laguntza eskaintzeko honako produktu hauek batu nahi dituztela adierazi dute antolatzaileek: lekaleak kontserban, arrosa eta pasta, arraina kontserban eta esnea; Coviran eta Eroski hipermerkatuetan eta Martin frunta-dendan utzi daitezke.

Ehiza txikiko txapelketa martxoaren 12an, txakurrekin

Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartekoek antolatuta, martxoaren 12an ehiza txikiko txapelketa soziala jokatu da Zanbranan, Castillo ehiza-eremuan; txakurrekin. 07:30ean hasiko da txapelketa eta bertan aritu nahi duten ehiztariek 28 euro ordaindu beharko dituzte. Hala ere, txapelketan parte hartzeko baldintza batzuk betetzea ezinbes-

Ekofeministotik kontzientziak zabaltzeko hitzaldia

Otsailaren 22an, *Ekofeministotik kontzientziak zabaltzeko* hitzaldia izango da, 18:30ean, Ibarraundi museoa. Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, laster izango dela kontuan hartuz, Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldekoek antolatu dute saioa. Feminismoa eta ekologia lotzen dituen kontzeptua oinarri, garapen iraunkorrean dagoen ideologia eta batzen dituen korranteak izango dituzte hizpide berbaldean. Gizarte patriarkalaren emakumeekiko menpekotasunaren aurka borrokatu behar dela adierazteaz batera, naturaren defentsan ere borrokatu behar dela azpimarratuko dute.

tekoa dela adierazi dute Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkartetik. Honako hauek, zehazki: Aldaype elkarteko bazkidea izatea; Aldaype elkartetik federatuta egotea; arma-lizentzia, ehiza-lizentzia eta federazio-lizentzia indarrean edukitzea eta txalekoa eramatea.

Izena emateko azken eguna martxoaren 10a izango da, eta, horretarako, Aldaype elkarteko bulegora joan daiteke, edo telefono zenbaki hauetara deitu: 628 73 43 23 edo 671 24 84 85.

"Mendi lasterketek ez dute etenik; gertu nago"

AITOR AJURIA MENDI LASTERKARIA

Jaiotzez gatzagarra den arren, Otxandion bizi da Aitor Ajuria (Leintz Gatzaga, 1998), Domusa Teknik taldeko mendi lasterkaria. Asmo handiak ditu denboraldi berrirako

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Jaiotzez gatzagarra den arren, Otxandion bizi da Aitor Ajuria (Leintz Gatzaga, 1998) mendi lasterkaria. Amari Hiru Handiak proba prestatzen hasi zen murgiltzen mendi lasterketen zaletasunean, eta, ordutik, gogor entrenatzen jarraitzen du 24 urteko gazteak, eta hasi zenetik palmares ikusgarria du batuta Ajuriak.

Mendiarekin txikitatik lotura izan arren, noiz hasi zinen mendi lasterketetan lehiatzen?

Mendian beti aritu izan naiz, baina, korrika barik, oinez edo bizikletan. Zehazki, 17-18 urte nituela hasi nintzen mendiko lasterketetan. Futbola utzi berri neukan eta nire ama Hiru Handiak proba prestatzen ari zen. Hori horrela, harekin batera hasi nintzen mendira joaten, txakurrarekin batera, hari laguntzen, eta orduan zaletu nintzen.

Arrasate-Udalatx, Sorginen Lasterketa... Mendi lasterketa asko irabazi dituzu. Gogoangarririk?

Garaipen guztiak dira gogoangarriak, baina duela bi urteko Aloñako Igoera izan zen lasterketa bereziarena. Bertan izaten den giroa izugarria da eta ilusio berezia egiten dit Oñatiko lasterketak. Hala ere, Arrasate-Udalatx, esaterako, Otxandioko beste lagun batekin sartu nintzen helmugan; iaz, Munduko Kopako finalean, Gorbeian, seigarren izan nintzen; Euskal Herriko txapelkun izan nintzen Kilometro Bertikalean...

Irabaztea duzu helburu beti?

Ez; disfrutatzea da nire asmoa eta hasi nintzenetik ahal dudana egiten saiatzen naiz. Aurkariek uzten didatena. Nik egiten ditudan lasterketak 30 kilometrorainokoak izaten dira; beraz, lasterketa horiek prestatzen ari bazara, kilometro bertikalarako ere gertu zaude. Gainera, kilometro bertikalak izan ziren



Aitor Ajuria mendi lasterkaria. DOMUSA TEKNIK TEAM

"OÑATIKO ALOÑAKO IGOERA IRABAZTEA IZAN ZEN NIRE GARAIPEN BEREZIENA"

nire lehenengo lasterketak eta asko gustatzen zaizkit. Era berean, osagarriak dira lineakoe-kin, eta, beraz, bietan arituko naiz aurtengo denboraldian ere. **Mendi lasterketarako gertu egoteko ondo entrenatzea ezinbestekoa da, baita elikadura ondo zaintzea, ezta? Askok exijitzen diozu zeure buruari?**

Kepa Larrea da nire entrena-tzailea eta hark markatzen dit entrenamendua. Asteaz zapi edo zortzi entrenamendu-ordu izaten ditut, asko jota, eta ondo doakit horrela. Gogoa izatea eta konstantzia da garrantzitsuena. Horrekin batera, elikadura ere garrantzitsua da, eta ni, baserrikoa izanda, etxean prestatzen dutena jaten dut; produktu ona jatea, hori da gakoa. Lasterketa aurretik gutxiago jan behar izaten dut, baina ez naiz obsesionatzen.

Domusa Teknik taldea sortu da puntako korrikalariekin. Tartean da, esaterako, Ainara Urrutia mendi lasterkari aretxabaletarra. Nola sortu da taldea?

Domusa Errezilgo kooperatiba bat da, galdarak egiten dituen. Iaz, Azpeitiko lasterketa batean sartu ziren babesletza eskaintzera eta aurten, berriz, apustu sendoagoa egin dute mendi lasterketetan talde propioa sortzeko. Formatu berria da; izan ere, Salomonek, Sportivak edo Euskal Herriari kirol denda batek eskaini ohi du babesletza.

Denboraldia hastear, dagoeneko prestatzen hasita, helburu jakinik baduzu?

Denboraldiak ez du etenik. Proba ugari daude eta ez dago garbi noiz hasten den eta noiz amaitu. Hala ere, orain hasten dela esan dezakegu. Antzuolako 8 Miliak proba izango da nire hurrengo urratsa; eta Euskal Herrikoan, kilometro bertikaletan eta lineakoetan, hau da, Kilimon (Mendaro) eta Txindokiko bertikalean emaitza onenak lortzea izango da helburua. Munduko Kopako zirkuitua ere izango da eta bertan lan onena egitea izango da asmoa.

Desfile eta musika artean datoz Aratusteak

Mariaren Lagundiko eta Aranzadi Ikastolako ikasleen desfileek hartuko dituzte kaleak gaur, eta martitzenean izango da San Martin Herri Eskolako txanda; halaber, gaur gauean izango da Musika Bandaren eta Orkestraren Aratusteetako kontzertua

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Aratusteetan murgiltzeko aurreneko zertzeladak eman dituzte aste honetan, torradak eta pellak egiteko ikastaroarekin eta sorgin dantzarekin, baina martitzenera arte iraungo duen festa gaur lehertuko da.

Haur, gazte nahiz helduak izaten dira jai hauetako protagonistak. Herriko hiru ikastetxeek kalejirak egingo dituzte: Mariaren Lagundiak eta Aranzadi Ikastolak, gaur; San Martin Herri Eskolak, martitzenean.

Mariaren Lagundia Ikastolako neska-mutilak izango dira kalera aterako diren lehenak; zehazki, 14:30ean. Animaliarik gabeko zirkua gai hartuta, trapezistak, pailazoak, mimoak eta magoak ibiliko dira, besteak beste, kaleak girotzen ikastolara itzuli arte. Aranzadi Ikastolako ikasleen Euskal Aratusteen kalejira, aldiz, 15:20 aldera hasiko da; eta aurreratu dutenez, kalejira "erraldoia" izango da.



Moja gaztez mozorrotutako kuadrilla iaz. GOIENA

Aratuste martitzenera arte itxarongo dute Bergarako lanbideez mozorrotutako San Martin Herri Eskolako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek. 15:10ean hasita, hainbat geldialdi egingo dituzte San Martin plazara hel-

du arte. Desfilearen ostean, Gauargi erromeria taldeak alaituko du San Martin plaza.

Mozorro txapelketa

Gazte Koordinadora Sozialistak mozorro lehiaketa antolatu du

zapatutako. Egunean bertan eman ahalgo da izena 13:00etatik 13:30era bitartean Seminarixoko karpan egongo den antolakuntza-mahaian, edo IAko nahiz GKSko kideei parte hartzeko asmoa jakinarazi beharko zaie. Talde bakoitzak izena eta abesti bat aukeratu behar ditu.

Musika protagonista

Begarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako kontzertu bereziak ohiko formatua berreskuratuko du. Gaur gauean izango da, 22:30ean, Udal Pilotalekuan, eta bitan banatuko dute: lehendabizi, hiru pieza joko ditu Musika Bandak; eta ondoren, musika eta antzerkiak bat egingo dute *Izarren gaua* izeneko ikuskizunean. Bigarren zati horretan, Bergarako Musika Bandak, Orkestrak, Aritzeta abesbatzak, Debako Kulunka dantza-taldeak eta hainbat abeslarik hartuko dute parte antzezleekin batera.

Halaber, bihar arratsaldean, Tximeletak txaranga ibiliko da kaleetan zehar eta 20:00etan Basajaun erromeria taldearen txanda izango da, plazan. Domeka arratsaldean Bergarako erraldoiak eta txistulari banda aterako dira kalera, herria alaitzeko asmoarekin. Azkenik, martitzen arratsaldean Musika Eskolako Gazteen Bandak ez du hutsik egingo eta euren doinuak izango dira entzungai herriko kaleetan.

Aratusteetako egitaraua, osorik

Otsailak 17

- **14:30** Mariaren Lagundiko ikasleen kalejira.
- **15:20** Aranzadi Ikastolako ikasleen kalejira.
- **22:30** Bergarako Musika Bandaren eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako kontzertua.

Otsailak 18

- **17:00** Tximeletak txaranga kaleetan zehar.
- **18:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots: *Urteak bete, abenturak bizi!* Frontoian.
- **20:00** Basajaun taldea San Martin plazan.

Otsailak 19

- **18:30** Bergarako erraldoi eta txistulari bandaren kalejira.

Otsailak 21

- **15:10** San Martin Agirre Herri Eskolako ikasleen kalejira.
- **16:30** Musika Eskolako Gazteen Bandaren kalejira.
- **17:30** Gauargi taldea San Martin plazan.

Amodiozko gutun onenak

Martitzenean banatu zituen Jardun Euskara Elkarteak 31. Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketako bost sariak. Gutunen sari nagusia Iñigo Legorburu hernaniarrak irabazi du eta bigarrena Amaia Artola izan da. Gazte Onenaren Saria Izar Odriozola herritarrak eskuratu du eta Bergarako Gutun Onenarena, Aroa Elortzak. Esaldi Onena Ibon Segurarena izan da.



HASIER LARREA

Bost ikastaro antolatu ditu Jabekuntza Eskolak

Begarako Udalak antolatzen dituen Jabekuntza Eskolen bigarren epealdia otsailaren 24an hasi eta maiatzean amaituko da. Doako bost tailerrek osatzen dute egitaraua eta parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea, 943 77 91 00 telefonora deituta edo berdintasuna@bergara.eus helbide elektronikora idatzita. Tailerren helburua da feminismoaren oinarriko kontzeptuak eta proposamenak modu erraz eta ulergarrian ulertzea.

Lehen jarduerak *Feminismoa guztiontzat* da eta Idoia Eizmendik gidatuko ditu saioak. Hilaren 24an hasiko da eta martxoaren 31ra arte ostiralero elkartuko dira UNEDen, 17:30etik 19:30era.

"Pistola buruan jarri eta tiroa simulatu zuten"

IÑIGO AKAITURRI GURE ARTERA TALDEKO KIDEA, GUARDIA ZIBILAK TORTURATUA 1991n Guardia zibilak atxilotua eta torturatua izan ostean, tortura "tresna politiko moduan" erabili zela aldarrikatzen segituko du Akaiturrik, hala aitortua izan arte

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bergaran bizi den Iñigo Akaiturri zornotzarrak otsailaren 13ko Torturaren Aurkako Egurenaren bueltako ekitaldien antolaketan aritu da, Gure Artera taldeko kide delako. Horrez gain, GOIENARI kontatu dizkio lehen pertsonan jasandako torturak: "Torturen kontakizun politikoa egin beharra dago".

1991n atxilotua eta torturatua izan zinen; zer egin zizuten?

1991ko otsailaren 16an Eibarren atxilotu ninduen Guardia Zibilak. Lehen momentutik jaso nituen kolpeak, eta kuartelera eraman aurretik mendira eraman ninduten. Mendian nengoela pistola bat jarri zidaten buruan eta tiro egiten zidatela simulatu zuten. Kuartelean hainbat alditan jarri zidaten poltsa, eta kolpeak zein mehatxuak ere etengabeak izan ziren. Askotariko torturak jasan nituen bahu politiko izan nintzen bitartean. **Bergaran 44 herritar torturatu zituztela diozue.**

Gure Artera taldeko kideok dugun informazioa oinarri hartuta, 44 bergararren tortura adierazpenak jaso ditugu. Guardia Zibilak, Espainiako Poliziak eta Ertzaintzak torturatutako izan dira herritar horiek.

Tortura helburu politikoetarako erabili aitortu behar dela aldarrikatzen duzue; uste duzue lortuko dela egunen baten?

Beste hainbat arlotan gertatzen den bezala, borondate politikoa araberakoa izango da hori. Estatuak azken 60 urteetan erabili duen tresna politiko bat izan da tortura; baita lehenago ere, ezin da eta ahaztu 1936ko estatu-kolpetik herri honek jasan duen errepresioa. Nire iritzia da ez dutela onartu nahi 1936an egin zutena eta, beraz, ez dituztela onartuko egin dizkiguten basakeriak.

Torturen gaineko txostenak atera dituzte Jaurilaritzak eta Nafarroako



Iñigo Akaiturri Irazabal, Seminarixoa, martitzen arratsaldean. J.B.L.

"EZ DUTE ONARTUKO 1936AN EGIN ZUTENA; BERAZ, EZ DITUZTE ONARTUKO EGINDAKO BASAKERIAK"

Gobernuak; ze bide ikusten diezu ikerketa horiei?

Aranzadi Zientzia Elkartekoek, Paco Etxeberria auzitegiko medikua buru zutela, modu zientifikoa frogatu dituzte torturak. Nafarroako Parlamentuan orain

gutxi aurkeztu dira zientifikoki frogatutako tortura kasuak eta Nafarroako Parlamentuak onartu du gaiari jarraipena ematea; ikusiko dugu zer ematen duen. Hemen, Baskongadetakako Gobernuak esan zuen txostenari jarraipena emango ziola, baina kaxoi baten gorde dute. Badakigu Ertzaintza EAJren eskuetan egon dela eta egongo dela, eta zail ikusten dut Ertzaintzak ere onartzea tortura tresna politiko moduan erabili zutela.

Bi arnas filma martitzenean eta torturaren erabilera politikoaren gaineko hitzaldia atzo; ze helburu-ekin antolatu dituzte ekitaldiok?

Torturaren gaia lantzeko ardurari herriko eragileen eskuetan geratzen da, gehienbat, eta ez instituzioen esku. Otsailaren 13a data berezia da guretzat; Joxe Arregi eta beste hamaika lagun torturapean erail zituzte lagoratzeko eguna. Badira urte batzuk data berezi horren bueltako aste bat antolatzen dugula zenbait ekitaldirekin. Horregatik erabaki dugu aurten *Bi arnas* dokumentala ekartzea eta bertako protagonistetako bat den Nekane Txapartegi gonbidatzea osteko solasaldira; tortura latzak jasan zituen, bortxatu ere egin zuten. Gainera, gaur bertan [martitzena] albiste izan da, Auzitegi Nazionalen berretsi duelako torturatu izan zela eta harekiko jazarpena amaitutzat edo, behintzat, argitutzat eman duelako.

San Joxepe: egitarau betea otsailerako eta martxorako

Aratusteetako bazkaria, ikasleekin elkarrizketak eta ikastaroak izango dituzte, besteak beste

J.B.L. BERGARA

San Joxepe erretiratu elkarteak betea dauka egitaraua datozen egunetarako. Martitzenean, otsailak 21, Aratusteak behar diren moduan ospatzeko "bazkari monumental" egingo dute. Hori bai, izen-ematea itxita dago: "Horren harrera ona izan du bazkariaren proposamenak, zerranda itxi egin behar izan dugu, gehienezko mahaikide kopurura heldu garelako".

Otsailaren 22an eta 23an Mariaren Lagundiko ikasleekin elkartuko dira bakardadearen gaia lantzeko; 65 urtetik gorako herritarrak elkarrizketatuko dituzte ikasleek bi egun horietan: "San Joxepen itxaropentsu hartu dugu ekimena eta irrikaz gaude lana bukatuta ikusteko".

Otsailaren 27tik martxoaren 30era Caixa fundazioaren laguntzarekin antolatutako *Neronek nahi bezala bizi* ikastaroa izango dute; izena eman behar da hilaren 23rako, udaletxeko BAZ bulegoan edo San Joxepeko harreragelan. Eta, azkenik, Musika Eskolak antolatutako bi saio izango dituzte martxoan zehar: *Musikarekin gozatzen* tailerra hilaren 10ean eta 17an eta *Don Giovanni* operaren gaineko saioa hilaren 16an eta 23an.

Txapartegi: "Pozik bai, baina ez guztiz"

Bi arnas dokumentaleko testigantzetako bat Nekane Txapartegi asteasuarrarena da, 1999an Guardia Zibilak bortizki torturatu eta ondoren hainbat urtez Suitzan erbesteratuta bizi izan dena. Auzitegi Nazionaletik zuzenean heldu zen Txapartegi Seminarixora: "Pozik nago, baina ez guztiz. 1999an hasitako prozesua ez da nire askatasunarekin edo itzulerarekin amaitzen, denak etxeratzean baizik. *Todo es ETA* aterkipean atxilotu ninduten; bost egunez inkomunikatuta izan ninduten terrorismo-legedi berezian. Horrek aukera eman zien guardia zibilei ni inpuniate osoz torturatzeko. Gaur egun esan dezaket 1999an txikituta sentitu



Nekane Txapartegi asteasuarra, Seminarixoa, martitzenean. J.B.L.

banintzen ere ibilbide bat egin dudala eta salatu izanak, nolabait, lagundu egin didala torturaren gaia beste era batera eramaten. Gaur [martitzena] izan da horren berrespena, gai izan

naizelako esateko Auzitegi Nazionalen, zutik eta epailearen begietara begira, torturatu egin nindutela eta torturapean oinarritutako testigantzekin kondenatu nindutela".

Turkiako eta Siriako kaltetuei laguntzeko material bilketa

Turkiako eta Siriako lurrikarek eragin dituzten kaltetuei begirako material bilketa antolatu du Ndank Ndank elkarteak. Gaur, hilak 17, Irizar kaleko muralean egongo dira 17:30etik 20:00etara. Mantak, lo-zakuak, txamarrak, txapelak eta eskularruak jasoko dituzte; jasotako materiala Hotz Oñati taldeak eta Bizkaiko DYAK kudeatuko dute.

Monzon-Ganuza saria, Xabier Amurizarendako

Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak antolatzen duten Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei Saria Xabier Amurizak jasoko du martxoaren 16an, Seminarixoan (18:30); 2021ean Libe Goñik jaso zuen aitortza eta 2022an, berriz, Mari Karmen Ayastuyk eta Jose Luis Elkoro

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Xabier Amurizak (Etxano, 1941) jasoko du III. Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei Saria. Horixe jakinarazi zuten Gorka Artola alkateak eta Olaso Dorrea fundazioko presidente Iratxe Esnaolak eguazteneko prentsurrekoan. Martxoaren 16an Seminarixoa aretoan egingo den ekitaldian (18:30) jasoko du saria Amurizak.

"Bizi osoko ekarpen oparoa"

Artolaren arabera, Amurizak Euskal Herriari, euskal kulturari eta euskarari "bizi osoko ekarpen oparoa" egin zion. Bertsogintzari "berritasun handia" ekarri ziola azpimarratu du Artolak: "Seguru aski, ezinezkoa da egungo bertsolaritza moderno ulertzea haren ekarpena kontuan izan gabe. Oro har, bertsoak egituratzeko moduak iraultza ekarri zuen bertsolaritzan. Neurri eta doinueta ere berrikuntza handiak ekarri zituen: neurri eta doinu asko sortu zituen".

Euskal kulturari egindako ekarpenaz gain, "nabarmena" da urte latzetan herri honekiko azaldutako konpromisoa, Artolaren ustez: "Gogor apaizen mugimenduari bultzatzailea izan zen frankismoan eta Derioko eta Bilboko apezpiku-etxeetan egindako entzieroetan egon zen. Horren ondorioz, zazpi urte egin zituen preso Zamoran eta Basaurin, hiru espetxealditan. Politika arloan ere urte luzez azaldu zuen herriarekiko konpromisoa eta Zornotzako Udalean zinegotzi, Bizkaiko Batzar Orokorretako batzarkide eta Gasteizko legebiltzarreko legebiltzarkide izan zen Herri Batasunaren izenean 1980ko hamarkadan. 1982. urtean berriro atxilotu zuten Bizkaiko Junte txean, Espainiako Erregearen etorreran Herri Batasunako beste ordezkariekin *Eusko gudiariak* abestu zuelako".



Artola eta Esnaola, prentsurrekoan; atzean, Xabier Amurizaren argazki bat. J.B.L.

AMURIZAK JASOKO DUEN SARIAREN EGILEA NOR DEN MARTXOAREN 1EAN JAKINARAZIKO DUTE

Goñi, Elkoro eta Ayastuy

2021eko lehenengo edizioan Libe Goñiri eman zioten saria. "Ikastolen mugimenduari keinu bat egitearekin batera, bereziki euskararen alde egindako bizitza osoko lana txalotu genuen. Lehen edizioa izatera, oso garrantzitsua zen sariak ibilbidea ondo hastea eta uste dut bete-betean asmatu genuela, Libe Goñik guztiz bat egiten duelako ekimenak izan nahi duen hori. Ekitaldia oso hunkigarria izan zen, gainera", gogoratu du Esnaolak.

2022an Mari Karmen Ayastuyk eta Jose Luis Elkoro jaso zuten saria. "Bikote baten omenezko saria bikote bati eman genion eta horrek berak oso berezi egin zuen iazkoa". Aurtengo sarituaz honako hau ere badi Esnaolak: "Sari asko jasotakoa da Amurizak, baina uste dugu Monzon-Ga-

nuza sariaren balioekin bat datorrela eta merezi duela".

Saria, belaunaldien arteko zubi

Sariaren beraren gainean hauxe adierazi du Esnaolak: "Saria sinbolikoa da eta Monzon-Ganuza sariaren bidez Euskal Herriari, haren kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omentzearekin batera, euskal artista berriak sustatzea ere bultzatzen da. Belaunaldien arteko zubi-lana eraikitzea ere bada helburua".

2022ko abenduaren 31n amaitu zen deialdiari erantzun zioten artisten artean aukeratuko du horretarako osatutako aditu talde batek: Beart elkarteko kide Karlos Galarraga, Jesus Mari Lazkano margolaria eta Mikel Lertxundi arte historialaria eta komisarioa. 3.500 euroekin ordainduko zaio aukeratutako egileari saria izateko erosiko zaion artelana; aurtengo sariaren egilearen berri martxoaren 1ean emango dute Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak. 2021eko artista aukeratua Zalao Ipiña izan zen eta 2022koa, berriz, Laida Lertxundi.



ENEKO AZURMENDI

Emakume zientzialarien izenean

Emakume Zientzialarien Egunaren bueltan, Udalak ikastetxeekin antolatutako lehiaketako saria banatu zuten Laboratoriumen. Aranzadi ikastolako Irati Aperiibaik, Mali Juaristik eta Miren Irizarrek Ada Lovelace-ren gainean egindako lana izan zen irabazlea –historiako lehen programatzailea–: "Ada Lovelace aukeratu genuen, haren lana oso interesgarria iruditu zitzaigulako".

Koldo Eleizalde: lanak entregatzeko azken eguna, apirilaren 20a

Lanak entregatzeko epea apirilaren 20an amaituko da. Bergaran jaiotakoek edo bertan bizi, ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte. Lau genero edo genero-multzotako lanak aurkez litezke: ipuin idatzia eta poesia; komikia; bertsoa; eta kontakizuna eta interpretazioa –antzerkia, podcasta, ipuin-kontaketa eta umorezko pasadizoak–.

Agintaldiaren balorazioa 'Harira' saioan hilaren 21ean

Gorka Artola alkateak, EAJko bozeramaile Maite Agirrek eta PSE-EEko eledun Alberto Alonsok 2019tik 2023ra arteko agintaldiaren balorazioa egingo dute Goiena telebistako *Harira* saioan; Goiatz Arana kazetariaren galderak erantzun dituzte Artolak, Agirrek eta Alonsok. Martitzenean izango da, otsailak 21, 21:00etan eta 23:00etan.

OHARRAK

Xaxauren 15. urteurrenerako argazkiak

Jai konpartsak erakusketa antolatu nahi du 15. urteurreneko ekitaldien barruan, eta horretarako argazkiak bidaltzeko eskatu dute: xaxaukomunikazioa@gmail.com.

Kukubaso: bertako zuhaitzak landatzeko zita

Otsailaren 25ean Gorlako kantinan elkartuko dira, 10:30ean. Mendiko botak eta arropa eroso eramatea gomendatu dute; amaitzean, mokadutxo egingo dute Altzasu elkartean. Aldez aurretik izena emateko eskatu dute antolatzaileek: kukubasoelkartea@gmail.com.

Izen-ematea: Imanol Ituñoren magia tailerra

Jardunek eta Udalak antolatuta, magia ikastaroa emango du Imanol Ituñok martxoan. Izena eman daiteke hilaren 24ra arte: 605 71 24 69 edo jardunkultura@topagunea.eus. Prezioa: 55 euro Jarduneko bazkideentzat eta 60 euro gainerakoentzat.

Odola emateko hurrengo ateratzea

Bergarako Odol Emaileen Elkartek gazteak erakarri nahi ditu, bereziki. Hurrengo ateratzea otsailaren 22an izango da, osasun etxean, 16:30etik 20:30era. Argibide gehiago: 747 42 99 20.

Gitarra-jole zorrotzenari, azken dantza bereziena

Brigade Locok festa berezia antolatu du biharko kartzela zaharrean (18:00), taldea 2017an sortu zenetik gitarra-jole nagusi izan den Mikel Sotoren azken kontzertua izango delako biharkoa: "Izugarria izan da, ahaztezina; bidelagunekin geratzen naiz"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Beste asteburu mugitu bat dator kartzela zaharrean, eta, bereziki pandemiako neurri murriztaileak bertan behera geratu zirenetik, badira asteburu batzuk dagoeneko. Joan den egubakoitzean, esaterako, Bulego taldeak umez, nerabez eta haien guraso eta senitartekoz goraino bete zuen gaztetxea. Goraino beteko da bihar ere, hilak 18; kasu horretan, Bergarako Brigade Loco taldearen jarraitzailez. Izan ere, talde 2017an sortu zenetik taldeko gitarra-jole izan den Mikel Sotori "agur borobila" egingo diote. Kartzela zaharreko atek 18:00etan irekiko dituzte eta oholta gainean izango dira Brigade Locorekin batera bospasei urteotan gertukoena izan diren musikariak. Sarrerak lau orduan agortu ziren.

Soto: "Ez da erabaki erraza izan"

Oholta gainean gitarrari soinu zorrotza ateratzen erosoago sentitzen da Soto elkarrizketatua izaten baino. GOIENARI esan dio "ondo" dagoela, baina eguna gerturatzen joan ahala "apur bat" urduritzen doala: "Ez da erabaki erraza izan taldea lagatzea. Denbora luzez pentsatu dudana zerbait izan da eta, bereziki, azkenaldian ideia bueltaka



Mikel Soto gitarra-jolea zuzeneko baten, argazkilaritari keinu egiten. BRIGADE LOCO

nuen buruan. Azkenean, buruak esan didana egitea erabaki dut; esango nuke bizitzako beste momentu baten nagoela eta beste gauza batzuk probatu nahi ditudala. Azken urte hauek agertokietan pasatu ditut, hein handi batean, eta esan beharra daukat oso gustura ibili naizela taldearekin. Hala ere, mundu honetan ari garenok badakigu nolako lana eta esfortzua ere eskatzen duen...".

Zapatura begira "azaltzeko zailak" diren sentazioak ditu bihar arte taldeko gitarra-jole

izango denak: "Oso egun berezia izango da. Bai niretzat eta baita gainerako taldekideentzat ere. Urduritasuna sentitzen dut, baina sekulako gogoa, aldi berean. Egun arraroa izango da; nik hartu dut lagatzeko erabakia, baina ez da erraza *Brigade* alde batera uztea...". Alde horretatik, izugarri gustura dago bost urteotan bizitakoarekin: "Izugarria izan da, ahaztezina. Betidanik nahi izan dut talde bat izan eta kontzertuak eman. Eta *Brigade*-k hori eskala handian eman dit. Bidean ezagutu dudana jende



Soto, Arteaga, Aperribai, Egaña eta Aznal, gaztetxearen atarian, 2020an. GOIENA

"Beti izango gaituzu hemen, Mikel"

Otsailaren 1ean sare sozialen bidez iragarri zuen Brigade Locok Mikel Sotok taldea utziko zuela, biharko Sotoren "azken dantza" iragartzearekin batera: "Sei urte pasatu dira 2017ko egun eguzkitsu haietan bostok zarata pixka bat ateratzeko asmoz elkartzen hasi ginenetik. Ez genekien nora eramango gintuen, baina ilusio eta gogoz sartzen genituen orduak eta orduak entsegu-gela txiki hartan. Ordutik, hamaika abentura, bizipen eta lagun ekarri dizkigu bide honek...". Hori bai, Brigade Locoko familiaren parte izaten jarraituko du Soto: "Zinez, bizitzan ahaztuko ez ditugun urteak pasatu ditugu zure alboan, eta orain, agertoki azpitik bada ere, sortu dugun familiaren parte izaten jarraituko duzu. Onena opa dizugu zure bizitzako alor guztietan; beti izango gaituzu hemen Mikel, edozertarako. Zure laukotea".

guztia... Horrekin geratzen naiz, bereziki, bidelagunekin".

Lekukoa hartuko diona, laster

Taldeko baxu-jole Oier Aperribairen arabera, 2022. urtearen amaieran eman zien aditzera Sotok taldea utzi nahi zuela: "Ordutik eman dituen kontzertuak taldeak beste gitarra-jole bat aurkitzeko prozesuari begira eman ditu. Hurrengo astean egingo dugu publiko nork hartuko dion lekukoa Sotori; orain arte bost izan gara *Brigade*-n, baina aurrerantzean sei izango

gara. Jotzen egongo ez bada ere, taldeko parte izango da beti".

Zapatuan oholta gainean eta azpian emozio asko egongo direla dio Aperribaik: "Guretzat oso berezia izango da eta suposatzen dut are bereziagoa izango dela Mikelentzat".

GAZTETXEKO ATEAK 18:00ETAN IREKIKO DITUZTE BIHAR; LAU ORDUTAN AGORTU ZIREN SARRERAK

Kultura sorkuntza sustatzeko beka ateratu dute, hasiberrientzat

Dirulaguntza 5.000 eurokoa da, bost urte baino ibilbide laburragoa duten sortzaile edo sortzaile-taldeentzat

J.B.L. BERGARA

Bergarako erro kultural historikoak eta, bereziki, gazteen alorrean ekoizpen kulturalak hartu duen indarrari erantzuteko, beka bat ateratu du Udalak, 5.000 eurokoa. Ibilbide motzeko

artisten kultura sorkuntza sustatu nahi dute eta bost urte baino gutxiagoko ibilbidea duten artistei edo artista-taldeei laguntzea da asmoa.

Laguntza eskatu ahal izateko, kultura sorkuntza honela defi-

nituz du Udalak: "Kultura sorkuntza moduan ulertzen da artistaren imajinaziotik eratorritako ondorengo edozein lan edota diziplina: musika; pintura edo eskultura lana; literatura obrak; antzerki obrak; zine obrak; komiki lanak; soinu konposizioak; ikus-entzunezko konposizioak; konposizio digitalak; dantza koreografiak...".

Pandemia aintzat hartu barik

Esandako moduan, sortzaile hasiberriak sustatzeko bost urte



Ktarsia talde hasiberriko Ane Arenaza. I.S.

baino gutxiagoko ibilbidea duten artista edo artista taldeak izan daitezke beka jaso ahal dutenak, eta urteen zenbaketaren eraginetarako COVID-19ak baldintzatutako urteak ez dituzte aintzat hartuko -2020. eta 2021. urteek, hain zuzen-.

Parte hartzeko baldintza zehatzak eta dirulaguntza honen nondik norakoak ezagutzeko informazioa udal webgunean dago, dirulaguntzen atalean. Eskaerak martxoaren 15era arte aurkez daitezke, udaletxean.



Sorgin dantza da Antzuolako Inauterietako tradizioetako bat. Irudian, iazko argazki bat. AITOR AGIRIANO

Inauteri-menua: dantza, bazkaria eta erromeria

Bihar ospatuko dituzte Aratusteak herrian. Hartza, tximinoa eta hezitzailea izango dira protagonista, baina, motorrak berotzen hasteko, ekitaldi xumeagoa egingo dute gaur eskolan. Martitzenean, erretiratuen txanda izango da: mozorro festa egingo dute

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Aratuste gosez dira dagoeneko herritarrak, eta, bapo asetzeko, menu aproposa antolatu dute herrian biharko.

Oinarin dantza taldeak antolatuta, kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar dantzari helduek, 10:00etan hasita. Txistulariekin batera sorgin dantza eta txerri dantza egingo dituzte auzoetan, eta alboan izango dituzte hartza, tximinoa eta hezitzailea ere, bazterrak eta bazterrekoak zirikatzen prest. Hamaketakoa egingo dute, ohi den moduan, eta, indarrak hartu ostean, dantza saioa izango da nagusi Herriko Plazan, 12:30ean. Bi dantza horiez gain, haurrek eginikoak ere protagonista izango dira; pandemia ezkerro lehenengo aldiz.

Horrez gain, nahi duenarentzako mahaiak eta eserlekuak ere egongo dira udal pilotalekuan bazkaltzeko. Ez da catering zerbitzurik izango, norberak era-

man beharko du jatekoa, eta mahaiak eta aulkiak jartzeaz, jasotzeaz eta dena txukun lagatzeaz ere norberak arduratu beharko du.

Iluntzean, berriz, Inauteri giroari ukorik egin gabe, erromeria doinuez gozatzeko aukera izango da. Intxausti, Larrañaga eta Arakama arituko dira oholtza gainean Herriko Plazan,

19:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 00:30era.

'Tomaxen abenturak'

Halere, gaur izango da Inauterietako aperitifa. Ospakizun xumea eta barrura begirakoa egingo dute Antzuolako eskolan, eta, Pausoka guraso elkarteak antolatuta, txokolatea eta torradak banatuko dizkiete haurrei.

Ostean, *Tomaxen abenturak* ikuskizuna izango da, Torresoroa aretoan, Udalak antolatuta. Bi emanaldi egingo dituzte, 17:00etan eta 18:30ean, eta Tomax mutil inozo baina jator, alai eta dibertigarriaren abenturak eza-gutzeko bide izango dute gazte-txoek, alboan izango duen Muxi lagunarekin.

Martitzenean erretiratuen Martitzenean, berriz, hilaren 21ean, erretiratuen txanda izango da. Landatxo elkarteak merienda eta mozorro jaia antolatu ditu, 18:30ean hasita, eta mozorro onena saritu egingo dute.

Ekintzak orduz ordu

- **10:00** Dantzarien kalejira, herriko kaleetan. Hartza, tximinoa eta hezitzailea lagun.
- **12:30** Dantza saioa, Herriko Plazan. Haurrak eta helduak.
- **19:00-21:00** Erromeria, Herriko Plazan; ostean, 22:30etik 00:30era.



ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

Eski irteera "arrakastatsua"

Arrola mendizale elkarteak antolatuta, 23 laguneko taldea batu zen joan den asteburuan Belaguara eginiko irteeran. "Arrakastatsua" izan zen eta parte-hartzaileek balorazio "oso positiboa" egin dute, "meteorologia bikainari eta bazkideen arteko harremanari esker". Bada, aurrerantzean ere mendizaletasunaz gozatzeko aukerak eskainiko dituzte.

Oraindik izena eman daiteke gazteen lasterketan 8 Miletan

Otsailaren 25ean egingo da Antzuolako 8 Miliak lasterketa. Izen-ematea ireki orduko banatu zituzten 16 urtetik gorakoekin artean txapelketako dortsal guztiak, baina oraindik gazteen lasterketan parte hartzeko aukera dago, irekita baitago izena emateko aukera.

2007 eta 2010 urte bitartean jaiotako gazteei zuzenduta dago -bi urteak barne-, eta ibilbidea laburrakoa da, 5,2 kilometrokoa. Guztira, 75 gazterentzako lekua dago eta, gaur-gaurkoz, 53 leku daude soberan. Bada, nahi duenak herrikrosa.eus webgunean eman dezake izena.

Lasterketa 10:20an hasiko da, helduena baino lehenago.

Jaurlaritzak txalotu egin du Erreka Taldea dibertsifikatzeko lana

Erreka Taldearen instalazioak bisitatzen izan zen hilaren 8an Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua, eta bertatik bertara ezagutu zuen Taldea dibertsifikatzeko lantzen ari diren estrategia, orain artean eginiko lana goraiatzearekin bat.

Kooperatibaren aurkezpenaz gain, Tapiak ekoizpen-planta bisitatzeko aukera ere izan zuen, eta, batik bat, Erreka Taldea "bio-osasunaren alde egiten ari den apustua" nabarmendu zuen: areto zuri berri bat eraiki dute eta polimeroz osatutako egitura mikroskopikoak egiten dituzte Biohealth sektorean erabiltzeko.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

"Paisaia abstraktua da, koloreetan oinarritua"

MIKEL LARRAÑAGA 'REMAK' MURALISTA

"Erosoa" den eskala batean ondu berri du murala bergararrak, testuingurua gogoan izanda. "Oso gustura" gelditu da lanarekin, eta "eskertuta" dagoela adierazi du

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Ione Larrañaga eta Oier Peñagarikano herrikideek muralgintza proiektu bat abiatu zuten 2021ean. Bederatzi mural egin dituzte herrian orain arte, eta, eginiko lanari jarraipena emateko asmoz, kanpoko artistak gonbidatu dituzte. Alai Gaztelumendi artista oiartzuarrek *Maitasun izkutuak* murala egin zuen abendu hasieran, eta aste honetan Mikel Larrañaga *Remak* bergararra aritu da murala margotzen, Buztinzuri kalean. Proiektuaren bultzatzaileek argi baitzuten haren lana integratzeko gune egokia zela.

Murala amaitu berri duzu; zer adierazi duzu?

Zerbait adierazi baino gehiago, esango nuke lanketa bat izan dela, testuingurua kontuan hartuta eginikoa. Bertako koloreetan oinarritutako paleta batekin paisaia abstraktu bat, forma organiko eta zuzenen arteko talka errepresentatzen duena. Zelanbait, intuizioaren eta kontrolaren arteko orekatzat.

Beraz, ingurua gogoan izanda txertatzen duzu zure lana?

Bai, hori da. Nire lana, hein handi batean, inguruan oinarritzen da. Arkitektura, koloreak... paleta erabakitze

orduan behatzen ditudan gauzak dira. Horrez gain, koloreei dagokienez, erabiltzen ditudanak kontrasterako ere badabilzkit; esate baterako, kolore hotzak erabiliz gero, beroren bat.

Gainera, gustura zaude egokitu dizuten hormarekin.

Justu niretzat aukeratu duten pareta erabat egokitzen da nire ezaugarrietara. Niretzat opari bat izan da. Eskala aldetik iruditzen zait ez dela oso inbaditzailea, lanerako ere nahiko eroso da, baina, era berean, uste dut interesgarria dela inguruko arkitekturarekin sortzen den harremana.



Mikel Larrañaga *Remak* artista bergararra, eguaztenean, muralaren aurrean. A.R.K.

Horrelako eskaletan aritzen al zara?

Egin ditut fatxadak, baina hau alde zaharrean dago eta alde zaharrak, azkenean, altuera batzuk ditu eta muralaren tamaina hau nik uste dut hobeto integratuta gelditzen dela beste handiago bat baino; halako bat balitz, inbaditzaileagoa litzateke.

Lehen lana duzu Antzuolan...

Bai, eta oso eskertuta nago Ionerekin eta Oierrekin. Hori azpimarratu nahi dut. Euren proiektuan erabaki zuten aur-

ten irudiei buelta bat ematea, beste irudi, forma eta kolore batzuekin janztea herria. Uste dut oso positiboa dela estilo ezberdinak egotea, proposamen ezberdinak, denon artean kultura aberasteko. Modu oso koherentean egin dute.

Gustura gelditu al zara egindakoa-rekin?

Oso gustura. Jendearen harrera ere ona izan zen. Kalean margotzea bada espresatzeko modu bat, elkarriketa bat sortzeko jendearrekin.

Josu Xabier Aranguren izango da EAJren alkategaia

Arrasatearra den arren, 2006a ezker bizi da Antzuolan. 2019-2023ko agintaldirako EAJren zerrendan izan zen

A.R.K. ANTZUOLA

Josu Xabier Aranguren izango da Antzuolako EAJren hautagaia maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeetan. 54 urte ditu, arrasatearra da, baina 2006a ezker bizi da Antzuolan. "Ilusioz" hartu du erronka, Antzuolaren zein antzuolarren alde lan egiteko konpromisoarekin. Hala, lehenasuntzat du "egun udal txean dagoen noraezari eta proiektu faltari buelta ematea".

Lanbide Heziketako eta Informatikako ikasketak ditu eginak, eta politikagintzari dagokionez, ez du lehen aldia zerrendetan. 2019-2023 agintaldian aurkeztu zen lehen aldiz Antzuolako EAJrenetan. Orduan, Basilio Ormazabal izan zen alderdiak Antzuolarako izan zuen alkategaia, baina hiru eserleku eskuratu zituzten, eta, beraz, Aranguren ez zuen Udalean sartzeko auke-



Aranguren, EAJko hautagaia. EAJ

rarik izan, zortzigarren lekuan baitzegoen.

Gainontzeko zerrenda-kideei dagokienez, EAJk azaldu du "esperientziak duen heldutasuna eta berritasunak duen ilusioa" uztartuko dituen "talde sendo bat" ari direla osatzen.

DEBAGOIENKO

PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ETXE ADMINISTRAZIOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

ARKITEKTOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Irargarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Bi inude eta zaintzapeko neskatila orain dela urte batzuk Elgetako Aratustean. L.Z.L.

Kokoei erreleboa hartuta, mozorro-jantzien txanda dator asteburu honetan

Inauteri-barikuarekin ospatu ohi da Aratustea Elgetan, eta aurten ere horrela izango da. Herri Eskolako neska-mutikoek eta irakasleek kalejira eta dantzak egingo dituzte arratsaldeko lehen orduan. Ondotik etorriko dira txokolate-jana eta dantzaldia

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Aurreko aste bukaeran kokoak izan ziren protagonista eta baserriz baserri ibili ziren zapatu goizean zein arratsaldean. Joan dira kokoak, eta aste bukaera honetan bestelako mozorroren txanda izango da herrian.

Urtero moduan, Inauteri-barikuarekin ospatuko dute Aratustea. Arratsaldeko lehen orduan Herri Eskolako neska-mutikoak izango dira kolorea eta festa giroa jartzen lehenengoak.

Bazkari ostean mozorrotuko dira eta kalejiran irtengo dira kalez kale, 15:00etan. Herri Eskolatik abiatuko dira eta, Domingo Iturbe kalean gora egin ostean, San Roke kaletik egingo dute plazarainoko bidea. Behin plaza heldutakoan, aurreko eguntan prestatutako dantzak eskainiko dituzte. Gurasoak, senitar-tekoak eta herritarrak gonbida-

tuta daude saioaz gozatzera eta, zergatik ez, parte hartzera.

Txokolate-jana eta dantzaldia Maala guraso elkarteak antolatutako txokolate-janarekin izango du segida Inauteri giroak Elgetan. 16:30 aldera izango da hori. Ondoren, dantzarako tartea izango da; izan ere, Udalak antolatuta, Gauargi taldea izango da herrian haurrak eta gazteak dantzan jartzeko asmoarekin. Dantzaldia 17:00etan hasiko da. Eguraldi ona bada, ekintza horiek guztiak plazan egingo dira; bestela, pilotalekuan.

GAZTELEKUAN BIHAR ELKARTUKO DIRA ETA ERRETIRATUAK, BESTALDE, MARTITZENEAN

Gaztelekuan, zapatuan Gazteleku zerbitzutik ere egin dute ahalegina Aratustea ospatzeko. Merienda eta azazkalak zein aurpegia margotzeko tailerra antolatuta dituzte zapatu arratsalderako. Saioa seigarren mailatik gorako neska-mutikoendako da eta 16:00etan izango du hasiera. Lehenengo, tailerra egingo dute, eta ondoren, merienda. Izena emateko, 943 76 80 22 telefono-zenbakira deitu behar da.

Erretiratuak, martitzenean Xalbadorpe erretiratuaren elkarteko kideek ere ospatuko dute Aratustea. Txokolate-jana eta bingo saioa iragarri dituzte Aratuste-martitzenerako. Ozkarbi elkartearen elkartuko dira, 16:30ean. Elkarteko bazkide guztiak daude lagun artean arratsalde-pasa egitera gonbidatuta.

Giro ederrean joan zen koko-batzea



Koko taldea goizean goiz Ozkarbi atarian. L.Z.L.

Egun osoko festa Konpartsako kideak 08:00etan elkartu ziren Ozkarbi elkartearen gosaria egiteko. Ondoren, Hartzarekin batera herriko zortzi baserritara eraman zuten Aratustea. Koplak abestu, dantzan egin eta baserritarrek eskainitakoaz gozatu zuten.



Salda banaketa Sesto baserrian. L.Z.L.

Harrera bikaina baserrietan Ikatzarre, Pagatza, Olaegi, Sesto, Arrota Gain eta Olatza bisitatu zituen konpartsak goizean eta Antzuategi eta Otolu, berriz, arratsaldean. Baserritarrek eskuzabaltasun handiz hartu zituzten.



Ikatzarre baserriko Mikel, Hartzarekin. I.A.A.

Umorea nagusi Musua estalita ibili ohi dira kokoak, eta baserritarrek nahikoa lan izan zuten mozorroren atzean nortzuk zeuden antzematen. Txantxa eta adar-jotzea izan ziren nagusi. Koko asko, berriz, lehen aldiz heldu ziren hainbat baserritara.

"Norberak daki zerk ematen dion plazera"

AINARA BRUSAU SALABERRIA SEXOLOGOA ETA GIZARTE-LANGILEA

Liburutegiko 'Biblibero' zikloaren barruan egingo du hitzaldia, eguenean, 18:30ean. Saioaren izenburua da: 'Sexualitateak ba al du iraungitze adinik?'

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Iaz ere egin zuen hitzaldia Elgetan. Aurten azpimarratu nahi du adinarekin ez dela plazera-errekiko gaitasunik galtzen, eta elikatzeak, besteak beste, ongi-zatea eta osasuna dakartzala.

Sexualitateak ba al du iraungitze-adinik?

Beste galdera batekin erantzungo dut: pertsonalitateak ba al du iraungitze-adinik? Gehienok ezetz erantzungo genuke, ezta? Sexualitatearekin berdina gertatzen da. Uste dut ez garelako konturatzen sexualitateari buruz ari garenean gehien-gehienetan plazerari buruz ari garelako. Sexologoek diogu gizakiak une oro ari garelako sexuatzeko; obulu-ernaldu bat garenetik hiltzen garen arte. Bizitzako prozesu bat da eta bizipenen eta testuinguruaren arabera goaz eraikitzen gure sexualitatea. Bakoitzak berea du, bakarra. Pluralean erabili beharko genuke *sexualitatea* terminoa.

Sexualitateak, orduan, ez du adinik?

Nik orain 44 urte ditut eta ez naiz 20 urte nituenean nintzen hura. Sexualitateari dagokionez ere ez. Egia da adinak baduela eragina gure gorputzaren funtzionalitate organikoan. Lubrikazioa eta eszitazio gaitasuna aldatzen doaz, zakila tentetzeko gaitasuna ere bai, eta desiratzen ditugun gauzak ere aldatzen doaz... Sexualitatea, batez ere, koitoan zentratzen badugu adin batetik aurrera baztertu egin beharko dugu, baina badaude beste joko batzuk –musuak, laztanak, samurtasuna, eszitazioa...–

Esan nahiko nuke sexualitatearekin lotuta hainbat mezu jasotzen ditugula; esaterako, bakarrik gaztaroan eta gorputz normatiboendako dela. Baina horiek eraikitako usteak dira. Adinarekin aldatzen goaz, hori horrela da, baina bizipenek adinak baino eragin handiagoa dute gai honetan.



Ainara Brusau Salaberria. MAHIBAR&CO

"SEXUALITATEARI BURUZ ARI GARENEAN PLAZERARI BURUZ ARI GARA GEHIEN-GEHIENETAN"

Gizarteak zenbateraino baldintzatzen du gure sexualitatea?

Mugak eta baimenak eraiki ditugu, eta horrek guztiak ere eragina du. Egia esan, horiek ez daude gure baitan, eraikitzen dira. Pentsatu adin batetik gorako emakumea naizela eta gogo sentitzen dudala norbait ezagutzeko edo harreman bat eraikitzen hasteko. Ba, izan dai-teke nire inguruak hori ondo ez ikustea edo epaitzea. Umeekin berdina gertatzen da. Badirudi sexualitatea haurtzarotik eta zahartzarotik kanpo gelditzen dela, eta hori ez da horrela, inondik inora. Gehituko nuke gizarte honetan kolektibo dezentze baztertzeko ditugula sexualitateak: haurrak, helduak, normatiboak ez diren gorputzak, ederrak ez direnak, ezgaitasunen bat dutenak... Baina guztiak gara gorputz sexuatuak.

Komunikazioak, konfiantzak... zer garrantzi dute?

Aldaketa handiak gertatu dira eta gu, akaso, beste belaunaldi batekoak gara. Emakumeak, batez ere, askeagoak gara adierazteko zer dugun gustuko eta nola bizi dugun maitatuak izatea. Gure amonek, esaterako, ez dute aukera hori izan eta orain ez dakite nola egin.

Aktibo jarraitzeak baditu onurak.

Adinarekin gure plazerarekiko gaitasuna ez da desagertzen. Aldatzen dena da gorputzak sententzioak bizitzeko dituen bideak, eta baita ere desiratzen ditugun gauzak. Norberak jakin behar du zerk ematen dion plazera. Batzuekako koitoa izango da eta beste batzuekako, laztanak, begiradak, edo mezu trukateta. Nik azpimarratuko nukeena da bakoitzak modu desberdinean bizi duela plazera. Modu desberdinean eskatzen dugu edo adierazten dugu eta bakoitzak aurkitu behar du satisfazioa gustuko duen horretan. Plazerarekin ahalik eta lotuen bizi bagara, horrek osasuna emango digu; izan ere, jakinekioa da satisfazioan bizitzeak ongi-zatea ematen duela.



INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

36ko gerrako beste bonba bat

Leheratu barik zegoen eta astelehenean aurkitu zuten Aporte inguruan Intxorta 1937 kultur elkartearen kideek. 115 milimetroko artilleria-jaurtigaia zen.

"Frankistek asko erabilitako jaurtigaia; batez ere, babeslekuak, etxeak eta baserriak suntsitzeko", azaldu zuten. Kontrolpeko leherketa egin zuten Ertzaintzaren lehergailu-teknikariek. Herritik entzun zen eztanda.

GORA ETA BEHERA



Plazan harrizko boletako bat bota dute



Hilaren 8an gertatu zen. "Kamioi batek bota du, erortzen ikusi dut", azaldu du argazkia bidali duen herritarrak. Udaletik esan dute bota zuenak konponduko duela. Gunea hesituta dago.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Apirilean enduro martxa eta martxoan Ahuntzen lasterketa

Endurozaleak zorioneko dira; izan ere, bueltan da, hirugarren aldiz, Piñukoku enduro martxa. Apirilaren 15erako iragarri dute Piñukoku taldeak. Laster eman-goto dute informazio gehiago. Martxoaren 26an egitekoa den Ahuntzen eta Antxumeen lasterketarako, berriz, dortsal guztiak banatuta daude eta ez dituzte gehiago aterako.

OHARRAK

Podologoa

Otsaileko kontsulta astelehenean izango da. Txanda hartzeko, deitu: 669 99 81 65 (Maite Elkoro).

Gazteen erakusketa

Gaztelekuan artista gazteen erakusketa egin nahi dute martxoan. Lanak erakutsi nahi dituzten 11-18 urte arteko elgetarrek 653 72 40 28 telefonora deitu behar dute.

Agroekologiaren bidean ikusten dute etorkizuna

Herriko elikadura sistema aztertu eta agroekologiaren bidean indartzeko urratsak proposatu dituzte Ingurumen beka irabazi duten hiru lagunek. Lau puntuko etorkizuneko plana landu dute, eta herriko lursailak bateratzen dituen aplikazioa sortu

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Udalaren ingurumen beka irabazi ostean, Oñatiko elikadura sistema aztertu eta berau agroekologiaren bidean indartzeko urrats berriak proposatzeko egindako ikerketaren aurkezpena egin dute kultura etxean Saioa Sesek, Ane Garaik eta Aintzira Oñederrak. Aurretik egindako diagnosi batean oinarrituta egin dute etorkizuneko plana eta lau puntutan oinarritu dute: tokiko elikadura sare bat egituratzea, herrigintzatik, sare hori hedatzeko sensibilizazioa eta komunikazioa indartzea, bertan ekoizten diren tokiko elikagaien salmenta puntu iraunkorra jartzea eta nekazari berriak instalatzea eta egungo nekazaritza proiektuen erreleboa bermatzea.

Tokiko elikadura sistema

Urte eta erdiko lana izan da eta herriko elikadura sistemaren diagnostia egin dute, bertako eragileekin zuzeneko harremana izanda. Elkarrizketa horietan landutakoarekin garatu dute txostena, aurrera eraman beharreko pausoak zehazteko. "Aurrez aurreko elkarrizketak egin ditugu bertako eragileekin, informazioa lortzeko eta haiekin identifikatzeko elikadura sistemak dituen abantailak eta zailtasunak. Horrek ekarri zuen lan-saio kolektiboa egitea, aterako informazioa kontrastatzeko eta ikusteko epe laburrera zer egin daitekeen, ze ekintza hartu ahal diren edo zein norabidetan joan gura dugun", azaldu du Saioa Sesek.

Zehaztutako lau helburu horiek bi epetan sailkatu dituzte: epe laburrekoak -2023 eta 2024. urteetan burutzekoak- eta epe ertainekoak -2024 eta 2027 bitartekoak-. "Tokiko elikadura sare jasagarria egituratzeko Elikadura Mahai bat sortzea, ardurak banatzea eta tokiko



Herrian ekoiztutako barazkiak Herri Eguneko azokan. GOIENA

ELIKADURA MAHAIA ERATU GURA DUTE, HERRIGINTZATIK; LEHENTASUNA IZANGO DU PUNTU HORREK

eragileen parte-hartzea bermatzea lehentasuneko pauso moduan ikusten ditugu. Komunikazioa ere landu gura dugu, batez ere, bertan ekoizten diren kalitatezko elikagaiei balio emateko eta merkatutik bereizteko; elikadura osasuntsu baten aldeko apustua da. Salerosketagunea egoteari ere garrantzia eman zitzaion elkarrizketetan. Bestalde, sektorea indartzeko nekazari gazteen instalazioa bermatzeko eta erreleboa ziurtatzeko ekintza-lerro bat egingo genuke. Oreak bat bermatzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Ikusten dugu kontsumo jasagarri batek oinarrituta egon behar duela tokiko ekoizpen agroekologikoan. Horrek esan gura du bi lerroak orekatu egin behar direla, eskaintza eta eskaria", dio Asunek Behatokiko kide Aintzira Oñederrak.

Lursailen aplikazioa

Oinarriari jarri dituzten lau puntu horiek lantzearekin batera aplikazio bat ere sortu dute, Gislán kooperatibarekin batera. Oñatiko lursail guztiak bateratu dituzte eta duten egokitzapen mailaren arabera sailkatu, Ane Garairen esanetan: "Aplikazioaren berezitasuna da filtro batzuk dituela, eta modu horretara erabiltzaile bakoitzak izango du aukera bere interesen arabera erabiltzeko. Adibidez, baratzerako lursailak aukeratu, abeltzaintzarako...".

Udala, konprometituta

Gaiarekiko konpromisoa hartzen duela adierazi du, bide batez, Oñatiko Udalak. Asier Iraeta Ingurumen batzordeburuak adierazi duenez, Udalak konpromisoa hartu du gaiari jarraipena egiteko eta, ahal duen heinean, laguntzeko. Elikadura Mahaian udal ordezkari bat egongo dela ere aurreratu du, eta mahai hori dinamizatuko duela. Talde horrek adostuko dituen aurreragoko pausoetan ere Udala bidelagun izango dutela dio Iraetak, baliabideekin edo bestelako laguntzekin.

Amaia Erostarbe izango da Oñatiko EAJren alkategaia

Erostarbe Letamendi izango da alderdi jeltzalearen zerrendaburua maiatzeko udal hauteskundeetan

O.E.G. OÑATI

Oñatiko EAJk Amaia Erostarbe Letamendi aurkeztu du alkategaia maiatzean egingo diren udal hauteskundeetarako. Erostarbek adierazi du "ilusioz, gogo biziz, prestutasunez eta konpromisoz" heltzen diola karguari: "Oñatiren eta oñatiarren alde lan egiteko, gertutasunez eta elkarlanean gure herriaren zein herritarren etorkizuna eraikitzeko". Gaur egun alderdi jeltzaleak dituen zazpi zinegotzietako bat da.

EHUn Filologian lizentziatua eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioan aditua, hezkuntza munduan egin du ibilbide profesionala. Urte luzez Gasteizko Iralen egin du lan eta gaur egun Oñati Institutuan da irakasle. "Herria oso ondo ezagutzen duen pertsona da, urteak daramatza eta herrian eta herritarrentzat lan egiten, bai institutuan eta baita



Amaia Erostarbe. OÑATIKO EAJ

Udalean ere, zinegotzi", nabarmendu dute alderdiko kideek. Batzarrak Oñatiko EAJren hautagai gisa aukeratu du Erostarbe: "Oñatik aurrera egiten jarraitzeko behar duen aldaketa gidatzeko pertsonarik hobereena delako".

Albaitaritza Fakultatea proposatu du PPK Oñatirako

Astean egin du bere buruaren aurkezpena prentsaren aurrean Alderdi Popularraren Oñatiko alkategaia, Ricardo Guisado-Balzateguik, eta lehen proiektua ere aurkeztu du: "Beharrezkoa" ikusten duen nekazaritzako eta abeltzaintzako ikasketen fakultatea. Hark dioenez, 20 milioi euroko inbertsioa eskatuko luke, bost urtean mailakatuta.



Ricardo Guisado-Balzategui. O.E.

Martitzenera arte iraungo dute Inauteriek aurten ere

Inauteri Txikiarekin Eguen Gizen egunean hasi eta martitzen iluntzeko DJ emanaldira arte iraungo dute aurtengo Inauteriek. Hitzordu nagusia, baina, biharkoa izango da: ia 400 lagunek hartuko dute parte kalez kale, goiz eta arratsalde, izango den Aratusteetako kalejiran, Oñatiko Inauteriak lantaldeak antolatuta. Domeka arratsaldean,

berri, Oñatzeko dantzariak aterako dira kalera, Luzaideko dantzak egitera.

Martitzenean, txokolate solidarioa banatuko dute elizbarrutiko misio taldeko kideek. Txorimaloak eta DJ festa ere egongo dira plazan iluntzean, eta, horien aurretik, umeendako ikuskizuna, urtero bezala. Ziri-ka Zirkus taldeak *Aurkitu gabeko altxorra* lana egingo du Zubikoan; salgai daude sarrerak. Ikastetxeak ere batuko dira Inauterietara, eta mozzorrotu.

"Basoaren funtzioak areagotzea da erronka"

JULEN ASTIGARRAGA EKOLOGIAN DOKTOREA


Iturrigorriko basoak ikertu ditu eta basoen kudeaketaren eta klima aldaketaren arteko erlazioaz arituko da eguaztenean kultura etxean, Ingurumen Jardunaldien barruan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Dendrokronolia: zuhaitzen bizitza ezkututik klima aldaketara hitzaldia egingo du Julen Astigarraga oñatiarrak Asier Herrorrek eguaztenean, hilak 22, 19:00etan, kultura etxean; 26an, domeka, irteera egingo dute Artasora. Dio basoaren egitura zenbat eta pluralagoa izan, orduan eta gaitasun handiagoa izango duela basoak klima aldaketara egokitzeko.

Zelan ulertu behar da ekologia?

Ekologia da zientzia bat ikertzen duena izaki bizidunak eta horrek ingurumenarekin duen harremana. Edozein izaki bizidunek, existitzearren bakarrik, inpak-



Julen Astigarraga oñatiarra. O.E.G.

tu bat du ingurugiroan. Intelligentzia maila handiagoa dugulako eta izaki sozialak garelako, gizakiaren inpaktua handiagoa da, bai espazioan, mundu mailan, eta bai denboran, aurrekaririk gabeko inpaktuak sortu ditugu denbora laburrean. Garrantzitsuenak dira: kutsadura, bio-niztasunaren galdera eta klima aldaketa.

Zenbateko lotura dute basoak eta klima aldaketak?

Basoaren funtzioak askotarikoak izan dira historian zehar eta funtzio horiek nola areagotu da erronka. Kudeaketa apropos hori zientziak ez du oraindik, baina teknologian oinarritu bai-

no gehiago, naturan oinarritutako soluzioak proposatzen dira. **Artasoko pagadi bat hartu duzue lagin ikerketarako; zein da emaitza?**

Pagoa aztertu dugu eta Artixa eta Iturrigorriko basoak ikertu, 1.300 hektarea inguru: pago motzak, baso gazteak –lehen ez zirenak– eta baso zaharrak, 100 urtetik gorakoak; espezie berean, eremu txikian baina kudeaketa ezberdinetan. Zuhaitzek, urtero, hazkuntza-eraztun bat sortzen dute eta eraztun hori zenbat eta zabalagoa izan, orduan eta urte oparoagoa izango da hazkuntzarako. Prezipitazioak, lehorreak eta udaberriko izozteek ze bilakaera izan duten ikusi dugu, eta aldagai horiek zuhaitzen sinkronian eta hazkuntzan izan duten eragina ikertu. Klima aldaketa gero eta nabarmenagoa dela eta zuhaitzak gero eta zaurgarriagoak direla ikusi dugu, kudeaketa bat izan edo beste bat izan. Baso gazteak, hala ere, zaurgarriagoak dira. Baso zaharrak behar ditugu. Gazteak zahartuko dira, baina zahartze hori klima aldaketaren abiadura baino motelagoa da, ez dugu denborarik.

Anonyme Popular, Asgarth eta Basati datoz gaztelekura

Anonyme Popular, batetik, eta Asgarth eta Basati taldeak, bestetik, dira gaztelekuan datozen asteetan zuzenean egongo direnak.

Igor Elortza bertsolaria da Anonyme Popular proiektuaren atzean dagoena. Ikus-entzunezko bertso jarriak eskaintzen ditu egitasmoak. Niaren eta zuaren eta guaren arteko espazio labankor horretan sartu bezala ez irteteko esperientzia eskaintzen du, hitzez, doinu eta irudiz. Otsailaren 26ko *matinee* kontzertua egingo du, 12:30ean.

Martxoaren 11n, berriz, Asgarth eta Basati taldeak etorriko dira. 1997an hasi eta hamar urtera desagertu zen Asgarth heavy talde donostiarra, baina 2020an berriro elkartu eta diskoa atera zuten 2022an. Tolosako Basati taldeak, berriz, 2020an atera zuten lehen lana.

Bi talde indartsu horiek entzuteko sarrerak bihar, zapatua, jarriko dituzte salgai, ohiko tokietan. Anonyme Popular entzutekoak salgai daude.

Etorkizuna marraztu nahi?

•MATRIKULAZIO EPEA
otsailak 13-24

Hitzordua:



Bideoak:





Tutelatraku eta Weinguter taldeen arteko partiduaren jokaldi bat. HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

Estutzeko unea iritsi da txapelketako taldeentzat

Fase erregularra amaituta, Liga eta Kopa txapelketetan banatu dira taldeak; ezustekoen txapelketa izaten ari da. Bietan ere lehen jardunaldia jokatu da eta bigarrena Inauterien ostean izango da; finalak berriz, apirileko azken asteburuan

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Herriko Futbol Txapelketa erdialdera iritsi da eta, lehenengo fase erregularra amaitu ostean, zehaztuta gelditu da zein taldek jokatu duen *Txanpionsa* eta zeinek Kopa txapelketa. *Mazedonia*, Sasquatch, Weinguter, Albok, Frakas Brabas eta Sarutobi taldeak lehiatuko dira Liga Txapelketa eskuratzeko; aldiz, Iturritxo, Shatoken Moura, Tutelatraku eta Zalaparta Kopa tituluaren bila arituko dira.

Ligako zein Kopako lehen jardunaldiak jokatu dira. Mazdoniak Weingüter hartu zuen mendean (4-2); Sasquatchek, berriz, Frakas Brabas garaitu zuen (2-1). Kopan, bestalde, Iturritxok eraman zuen neurketa Zalapartaren aurka (2-4) eta Tutelatraku taldeak Shatoken Moura garaitu zuen (1-3). Antolakuntzatik orain artekoaren balorazio positiboa egiten dute. "Momentuz, aurtengo denboraldiaren balorazio oso positiboa egiten dugu", dio Jon Ander Errastik.

Ezustekoen urtea

Balorazio positiboa egiteaz gain, ezustekoen urtea izaten ari da. Bi taldek txapelketa utzi dute, baina gazteek osatutako beste bi batu dira: Weinguter eta Sarutobi; aire freskoa eta indarra eman diote lehiaketari: "Azken urteetan beti ibili izan gara bel-durrarekin taldeak desagertu egingo direlakoan eta zazpiko edo hamaikako futbol txapelketa egin beharko zen zurrumuruarekin. Baina bi talde berri hauek Herriko Futbol Txapelketa indartu egin dute eta espero dugu hurrengo urtean talde berberak jarraitzea eta ea talde berriren bat sortzen den", dio Errastik. Gainera, bi talde horiek *Txanpionsa* jokatzeko txartela

"SORTU DIREN BI TALDE BERRIEK INDARTU EGINDA DUTE HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA"

eskuratu dute eta, lehen urtea izanik, "hori oso zaila" dela adierazi du eta "ezustekoren bat gehiago" ere egongo dela azpimarratu du.

Etorkizunerako eskakizunak

Oraindik denboraldia amaitzeko hilabete batzuk falta badira ere, antolakuntzatik etorkizunera begira jarrita daude Herriko Futbol Txapelketak urteetan zehar jarraitu dezan, eta eskakizunak ere egiten dituzte aurrera begira txapelketa sendotze aldera. "Hurrengo urtera begira, dauden taldeek jarraitu dezate eta ea bateren bat gehiago sortzen den. Gure eskakizunak, aldiz, jendeari baino gehiago, Udalarari zuzenduta daude; ordu-tegi erosoagoak eskatzen dizkiegu. Txapelketako neurketak arratsaldeko zortzietan izatea ez da egokia parte-hartzaileen-dako eta giroarendako. Aldiz, ordutegi duinak edukiz gero, gure txapelketak sendotasuna lortuko lukeela uste dugu".

"Azken urteetan herriko gazteok garaipen ugari lortu ditugu"

UXUE OSES EGAÑA PILOTARIA

Bizkaia Torneoa irabazi du Olatz Arrizabalagarekin

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Uxue Oses oñatiarrak Olatz Arrizabalagarekin batera Bizkaia Torneoa irabazi zuen joan den ostiralean, Amaia Aldai eta Nora Mendizabal 22-21 mendean hartu ostean. Bizkaiko pilotalekuan jokatuako finalean Oses-Arrizabalaga bikoteak pronostikoak hautsi zituen, finaleko aurkariak ez zuten-eta partidurik galdu aurreko ligaxkan. Oñatiko pilotari gaztea "pozik" da, aurreko jardunaldietan "egindako lanaren fruituak" jaso dituela iritzita.

Irabaztea zen asmoa, baina emaitza hori lortzea ez zen erraza izango, ezta?

Ez. Aurretik ere tokatu zitzaigun haien aurka aritzea eta nik uste dut eurak zirela faborito, partidurik galdu gabe iritsi zirelako finalera. Hala eta guztiz, guk ere gure aukerak izango genituela garbi geneukan.

Nola joan zen partidua?

Orokorrean, uste dut oso partidurik gogorra izan zela. Hasieratik genekien gogorra izango zela, baina ez genuen espero hainbestekoa izango zenik. Partiduaren lehen zatian akats batzuk egin genituen, baina ondoren tanto luzeak egiten hasi ginen, erritmo hori mantendu genuen eta markagailuan geneukan abantailari eutsi genion. Bukaeran, berriz, urduritasunak medio, pilota batzuk huts egin nituen, baina, zorionez, 21eko berdinketan, Olatzen horma-bikoarekin garaipena



Uxue Oses. IMANOL BELOKI

eta txapela eskuratzeko lortu genuen.

Zeintzuk dira hurrengo helburuak? Hemendik gutxira, Emakume Master Cup barruan binakako txapelketa hasiko da eta bertan parte hartuko dut. Presiorik gabe eta ilusioz hartuko dut; daukadan maila erakutsi, kantxan gozatu eta, posible bada, pausoz pauso, helburu handiak lortu.

Poztekoa da gazteak pilotara hurbiltzea, ezta?

Oñati oso herri kirolaria da eta azken urteetan, gainera, gazteok garaipen ugari lortu ditugu. Nik denak [gazteak] kirola egitera animatzen ditut, eta, nire kasuan, pilotarekin gozatzeri; izan ere, azken finean, gure kirola da. Azkenaldian, ordea, jende gutxi animatu da pilotan egitera, baina talde polita dugula uste dut; ea gozatzen eta emaitzak lortzen jarraitzen dugun.



GAZTEEK
GAZTEENTZAT

BERRITUA

DESKARGATU
ALDIZKARI
DIGITALA DOAN!



"Oso parean ditugu indarrak eta horrek hobetzen jarraitzera motibatzen gaitu"

MALEN RUIZ DE AZUA ETA MAIALEN AXPE ATLETAK

Asteburuan Madrilen jokatuko duten pista estaliko Espainiako Txapelketa absolutuan, pertikarekin urrezko domina eskuratzeko favorito nagusiak arrasatearrak dira

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE

Domekan, 12:00etan, Gallurko kirol instalazioetako pista hamalau pertika-jauzilarik egingo dute salto. Baina favorito nagusiak Mojategiko harrobikoak dira: Maialen Axpe (1993) eta Malen Ruiz de Azua (1995). Joan den astean, Ourense, biek egin zuten 4,40ko saltoa. Ruiz de Azuak etxean, Arrasaten, prestatu du txapelketa. Axpek, berriz, Barzelonan hartu du GOIENAREN deia. Urteko hitzordu handietako baten atarian daude.

Domekan urrezko domina lortzeko lehian kontrario zuzenak zarete.

Malen Ruiz de Azua: Bai; denboraldi bakoitzean aldatzen joaten da hori, atleta bakoitzaren saioaren arabera. Eta bistan da orain momentuan Maialen eta biok oso parean gaudela. Beste atleta batzuk ere kontuan izan behar dira, ez gaude gu bakarrik, baina bai, lehia horretan izango

gara biok. Detaile txikiak erabakigarriak izango dira.

Maialen Axpe: Ados nago eta oso pozgarria da, gainera, Arrasate moduko herri bateko bi atleta egotea maila absolutuan elkarren artean lehian. Uste dut lehia hori oso lagungarria dela nork bere onena eman dezan; izan ere, nire kasuan, badakit Malen hor egongo dela estutzen. 4,20ko marka batekin konformatu beharren gehiago estutzera eramaten zaitu lehiakide ona izateak. Andrea San Jose, Monica Clemente... beste kontrarioak ere ez ditut gutxietsi nahi eta txapelketa batean edozer gerta daiteke, baina, orain arte ikusi dugunagatik, Malen eta biok hor egongo gara.

Kasualitatea da Arrasateko bi pertika-jauzilarik hor egotea? Ez da herri askotan gertatuko...

M.R.A.: Ez, ez da casualitatea. Jonathan Perezen eragina na-

barmena izan zen nik pertika aukeratzeko, gaztetan hura ikusten nuelako entrenatzen eta gero haren pausoak jarraitu ditudalako.

M.A.: Nire ustez, pertika-jauzia aukeratu izana eta horrekin batera nazioartean lehiatzeko ahalegin etengabe horretan ibiltzea bai izan da gaztetatik kirola bizi izan dugun moduaren isla. Eta hor *Txufi*-ren [Fernando Zufiria] eta Jonathan Perezen eragina dago. Euren partetik jaso genuen hezkuntza, gure onena eman behar genuela irakatsi ziguten. Gure hastapenetan garrantzitsuak izan ziren, kirolari onak izan gintezkeela erakutsi ziguten, baina lan eginda. **Atzera egingo bazenute, ostera ere aukeratu zenukete pertika? Izan ere, beste edozein kirolerako dohain ederrak zenituzten.**

M.R.A.: Bai, zalantza barik. Onartu behar dugu pertika egiten



Maialen Axpe, joan den astean Ourense. SERGIO MATEO/SPORTMEDIA

dugunok friki hutsak gabela, baina berriro aukeratu nuke pertika, izugarri gustatzen zait. **M.A.:** Friki hutsak, zalantza barik [Barreak]. Nik ere pertika aukeratu nuke, seguruenik, baina egia da neguko kirolak asko gustatzen zaizkidala, baita borroka arteak ere. Baina bai, pertika aukeratu nuke.

Ez zaituztet erretiratu nahi, baina dagoeneko beterano bilakatu zarete...

M.R.A.: Bai, halaxe da. Oraindik ez daukat argi zenbat denbora gehiago egongo naizen

maila honetan. Datorren urte urte olinpiarra da eta ordura arte eutsi egin beharko diogu; Parisen egoten saiatu beharko dugu. Hortik aurrera, joango gara ikusten. Baina egia da kirol hau izugarri maite badut ere badudala bestelako gauza batzuk egiteko gogoia, orain arte alboratuta izan ditudanak.

M.A.: Zauden momentuaren arabera ere gauzak modu ezberdinean ikusten dira. Min hartuta egon naizenean zenbatetan pentsatu nuen horrela jarraitzeak ez duela zentzurik. Baina



**ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN
GOIENA LEHIAKETA 2023**

Bidali zure argazkiak eta eskuratu otarre bikaina!

Jon harategiaren eta Hankabeitz urdaitegiaren produktuekin osatutako otarra

Bidali zure argazkiak Goiena.eus-en aurkituko duzun inprimakiaren bidez!

Parte hartu otsailaren 17tik 21era. Zozketa: otsailaren 23an.

Zenbat eta argazki gehiago bidali, orduan eta aukera gehiago!

LAGUNTZAILEAK:



goiena
Zu hemen zaude.



Malen Ruiz de Azua, joan den astean Ourensen egindako klubaren arteko txapelketan, korrikaldiaren ulean. SERGIO MATEO/SPORTMEDIA

egoera gainditu eta ondo zaude-la ikusten duzunean... Datorren urtea urte garrantzitsua da, eta gero gerokoak. Baina, zalantza barik, adinean ere aurrera goaz eta hau ez da betirako. Pertika uzten dudana momentuan bada- kit luto moduko bat pasa behar-ko dudala, nire kasuan bizitza osoan zehar egin dudana gauza bat delako eta hutsune hori betetzea ez delako batere erraza izango.

Gaur egun pertikak ze pisu du zuen egunerokoan?

M.A.: Nire kasuan, pisu handia. Iaz Sorian egin nuen urte osoa; Iruñetik hara joan nintzen entrenatzera eta irailean Bartzelonara etortzeko aukera suertatu zitzaidan. Hango goi-errendimenduko zentroan nabil; horrenbestez, bistan dago dedikazio handia eskaintzen diodala pertikari.

M.R.A.: Ni neu Arrasaten bizi naiz eta bertan egin dut lan. Baina elitean egoteko dedikazio handia eskaini behar diozu atletismoari.

Iritsi zarete zuen onenera? Sabaia ukitu duzue?

M.R.A.: Esango nuke ezetz. Oraindik apur bat gehiago hobetu dezakedala uste dut; marka pertsonala egiteke daukat oraindik. Ez naiz arlo teknikoetan sartuko, baina uste dut arlo batzuk hobetuta salto hobe egin dezakedala.

M.A.: Nik ere oraindik koska bat gorago ibil naitekeela uste dut; horretarako egin dut lan.

Urteekin zertan hobetu duzue?

M.R.A.: Esango nuke neure burua askoz hobeto ezagutzen dudala orain, eta prestakuntza bat egiteko orduan oso garbi daukat zertan egin behar dudana. Alegia, lehen, gauza mor- doa hobetzen ahalegintzen ginen, eta orain ez. *Sota, caballo, rey* egiten dugu; alegia, badakigu zer den bereziki landu behar dudana eta horretan zentratzen gara.

M.A.: Iaz Sorian izan nuen entrenatzailearekin, bereziki, lasaitasuna bilatzen saiatu ginen, hori lantzen. Ni oso per- tsona urduria naiz eta horrek askotan ez du laguntzen. Ez egunerokoan, ez txapelketa bati aurre egiteko orduan eta ezta lesio bat gainditu behar duzue- nean ere... Hala, gauzak beste lasaitasun batekin hartzen ikasi dut, beste patxada bat izaten, txapelketa bateko une garran-

"PERTIKA-JAUZIA EGITEN DUGUNOK OSO FRIKIAK GARA, ONAR DEZAGUN"

MALÉN RUIZ DE AZUA, ATLETA

"PARISKO OLINPIAR JOKOETAN EGOTEN SAIATUKO GARA, ETA GERO GEROKOAK"

MAIALEN AXPE, ATLETA

tzitsuetan lasai egoten jakiten, indarrak gehiago dosifikatzen... Uste dut horretan hobetu du- dala asko.

Istanbulen jokatu duen Europa-ko Txapelketarako sailkatzeko 4,70eko marka eskatzen dute...

M.R.A.: Bai, baina denek ez dute gutxieneko marka hori eta hurrengo aukera da nazioarteko rankingeko hamazortzi onenen artean egotea eta Espainiako Federazioak eskatzen duen gutxieneko 4,50eko saltoa egitea. Ez dakit, ba, zintzo erantzunda... orain momentuan urrun ikusten dut aukera hori.

M.A.: 4,70ekoa oso urrun daukat, baina badira beste aukera batzuk, nahiz eta badakidan oso zaila izango dela. Ikusiko dugu zer- no- lako Espainiako Txapelketa egiten dugun.

Zein da orain arte ilusio handiena egin dizuen kirol lorpena?

M.R.A.: Espainiako Txapelketa absolutuan podiumera igo nintzen lehenengo aldian [2015]. Go- goan dut Naroa Agirrek irabazi zuela txapelketa eta Maialenek eta biok osatu genuela podiuma. Uste dut 4,10eko saltoa egin nue- la, bigarren sailkatu nintzen. Ondoren etorri dira lorpen han- diagoak, baina, edozelan ere, ni neu momentu harekin geratzen naiz.

M.A.: 2019an Antequeran marka pertsonala egin nuen momentua [4,50]. Nazioarteko txapelketetan egon naizenean izugarri gozatu dut, baina momentu hura oso berezia izan zen.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

InnJoo tableta

Parte hartzeko sariaren izena: tableta



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "seren uera" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean artean egingo da zozketa. Indarrez gero LFP 15/1999 egon ezarritako jabetza-erregulazioaren arabera, Gure Komunikazio Erabileraren Iturri automatizatutako artikuluetan. Datu-bilaketaren helburu bakarra da zozketaren digun sarietara gonaritzea. Ez da beste inongo datu-datu artetako, hark zozketako eta ezarritako helburuetan erabiltzeko. goienakide@goiena.eus

Realaren eta Cadizen arteko partidarako sarrerak futbol zelako tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Cadiz norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratzeko beste lagun batek Real Arena futbol zelako premium gunetik. Partida martxoaren 3an, ostirala, 21:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: otsailak 28



Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Gure kanoa' antzerkirako sarrerak ditugu. Arrasate | Amaia Antzokia | Otsailak 25 | 17:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "Gure kanoa" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzailean artean egingo da zozketa. Indarrez gero LFP 15/1999 egon ezarritako jabetza-erregulazioaren arabera, Gure Komunikazio Erabileraren Iturri automatizatutako artikuluetan. Datu-bilaketaren helburu bakarra da zozketaren digun sarietara gonaritzea. Ez da beste inongo datu-datu artetako, hark zozketako eta ezarritako helburuetan erabiltzeko. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntue aldizkeriko Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: otsailak 21.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jabetza [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntue aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€
Datu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Informatika-delituak, komediara eroanda

Urrian estreinatu zuten 'Familia sarekada' antzezlanaren egina du Vaiven Producciones taldeak domekan Amaia antzokian; eta otsailaren 25ean Bergarako Seminarixoan izango dira; 'Arrasate.eus' eta 'Seminarixoa.eus' atarietan daude sarrerak salgai

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Afaltzen ari den familia batek ezustekoa hartu du informatika-delitua inspektore bat etxean agertu denean. "Pornografia-sare baten nahastuta gauden susmoa du, eta, hortik abiatuta, balizko informatika-delitua ikerketaren ondorioz, familiako kideen trapu asko azaleratuko dira *Familia sarekada* antzezlanaren. Banan-banan galdekatuko dituzte algoritmo batek pornografiarekin lotutako delitu-eduki moduan identifikatu dituen irudi-artxiboei buruz. Probak aztertu ahala, beti sarera konektatuta egon arren senideak euren artean erabat deskonektatuta daudela agerian geratuko da", dio taularen gainean Koldo aita izango den Mikel Laskurainek.

Antonio Muñoz de Mesak idatzitako testua Aizpea Goenagak itzuli du euskarara eta Olga Margallo eta Dorleta Urretabizkaiek jardun dute zuzendaritza lanetan.

Agertokian eta pantailan

Laskurainekin batera Ainhoa Aierbe euskarazko lanean eta Ana Pimenta gaztelarazkoan, Nerea Gorriti eta Xanti Korostegi daude taularen gainean; eta pantaila bidez Aitziber Garmendia ere bai, atzerrian ikasten ari den Nora alaba. "Eras-musekin kanpoan dago, edo hori uste dugu, eta bideo-konferentzia bidez komunikatzen gara. Seme gaztea, Aitor, Xantik antzeztzen du. 21 urte besterik ez du eta dagoeneko bi ikuskizun eta telesaila egin ditu eta kantuan ere primeran aritzen da. Ederto moldatzen gara elkarrekin. Nerea eibartarrarekin Kepa Errastiren *Lur* lanean ari naiz; oraingo honetan, inspektorea da hura. Eta emazteak ere, Ainhoa eta Ana, aspaldiko lankideak eta lagunak ditut, oraingoan, izaera gogorreko emakumeen paperean, eta ni,



Familia sarekada antzezlanaren une bat. VAIVEN PRODUCCIONES

PUBLIKO GAZTE ETA HELDUARENTZAKO KOMEDIA "BASATIA" ARRASATEN ETA BERGARAN IKUSGAI

berri, senar txotxolo samarra naiz".

Helburua, barre eragitea

Komediatik enfokatzan dituzte familia bateko gorabeherak. "Dozena bat emanaldi egin ditugu eta jendea pozik aterata da, barre gustura eginda; tontoarena egitea egokitu zait, beste behin, eta gustura ari naiz Koldoren azalean. Hala ere, inspektorea ikertzen hasten denean *bullying*-a, sare sozialen erabilera mingarriak eta gaur egungo bestelako gai gogor asko agertuko dira. Hori bai, bukaeraren istorioak buelta eman eta ezusteko polita hartzen dute ikusleek, baina ez dut pista gehiagorik emango".

Publiko helduarentzako dago antzezlanaren sortua. "13 urtetik gorakoentzako aproposa da, gu baino abilagoak dira sare kon-

tuetan. Ordu eta erdiko tarte goxoa eskaintzen dizuegu; zatozte, bada, ez zaizue damutuko".

Arrasaten, etzi, domeka


Amaia antzokian eskainiko dute, 19:30etan hasita. "Etxe inguruan pozik ibiltzen naiz, lagunak eta ezagunen aurrean. Aretoko dotorea da Amaia antzokia, askotan antzeztu izan dut han. Garai batean, muntaketa lanetan ere ibiltzen nintzen; hortaz, aspaldiko lagunak ditut hango langileak ere".

Arrasate.eus atarian eta Amaia antzokiko leihatilan eros daitezke sarrerak, hamar eurotan.

Bergaran, datorren zapatuan

Haurtzaroko eskola, jolastoki eta lagunak topagune izan zuen Seminarixoa eta haren inguruak ere ondo ezagutzen ditu Laskurainek. "Kaniketan jolasten ginen arkupeetan eta Seminarixoko elizan ere meza bat baino gehiago jasotakoa naiz. Aretoko zabaldu zutenetik bizpahirutan izan naiz hemen antzeztzen".

Otsailaren 25ean, zapatua, 20:00etan izango da. *Seminarixoa.eus* atarian eta aretoko leihatilan eskura daitezke sarrerak, zortzi eurotan.



Aroztegi aretoan dagoen Meazuri izeneko argazki erakusketa. HASIER LARREA

Dark Red Team taldearen argazki bilduma Aroztegin

'Meazuri. Argiak eta koloreak. Iraganera bidaiak' izeneko erakusketa otsailaren 26ra bitartean izango da ikusgai

A. Aranburuzabala BERGARA

Argazkilaritza maite duten Irungo hainbat lagunek 2012an sortutakoa da Dark Red team kultura elkarteak. "Argazkilaritzan koska bat gora egin nahi genuelako elkartu ginen. *Light painting* izeneko modalitatean hasi ginen eta, pixkanaka, argi-tresnak garatu genituen; eta argiztapen teknikak hobetuz benetako irudiak sortzea lortu dugu", diote taldekideek.

'Light painting' teknika

Ilunpetan argiz marraztean datzan argazkigintza-aldaera bat da *light painting*-a. "Linternak edo bestelako argi-iturriak baliatuta sormen handiko argazki originalak sortzea da helburua. Argazkilaritzako diziplina horretan, tradizionalen ez moduan, ez dugu ukitu digitalik erabiltzen, ezta argazkien manipulaziorik egiten ere".

'Meazuri' bilduma

Argiak eta koloreak erabilita iraganera bidaiak bat proposatzen dute Dark Red Teamekoek Aroztegi aretoan dagoen argazki bildumarekin. "Aiako Harriaren inguruetan dagoen Meazuriko meategian ateratakoak dira; meategiaren ustiapen turistikorako argazkiak, hain zuzen ere. Lan hau egitea proposatu zigutenean ez genuen zalantzarik izan, dena zuen eta; hau da, iluntasuna, adrenalina, historia... Proiektu oso berezia izan da guretzat, teknikaren zailtasunez gain erronka gehiago ekarri dizkigulako".

Aurreko egubakoitzean inauguratu zuten eta otsailaren 26ra bitartean izango da ikusgai. Asteartetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30etara; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

Laburbira zirkuitua martxoan izango da Debagoienan ikusgai

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, euskarazko zazpi film laburrek osatzen duten bilduma berria izango da ikusgai Euskal Herriko 31 herritan martxoaren 7an Irunen hasi eta apirilaren 4an Aretxabaletan borobilduko duten hogeigarren zirkuituan.

Aretxabaletaz gain, Aramaion martxoaren 19an, Bergaran eta Arrasaten martxoaren 21ean eta

Oñatin martxoaren 22an izango da Laburbira.

Askotariko istorioak

28 lan aurkeztu dituzte aurten, eta horietatik honako hauek aukeratu dituzte: Maria Bartolomen, Erik Camposen eta Fernando Martinen *Olatuen isiltasuna*; Marina Perosanzen *Muskil*; Iulen Aranaren *Koadro gorriak heldu*; Maider Oleagaren *Irrits*; Ane Cuestaren *Asko falta da?*; Leire Egañaren *Erlojupekoa*; eta Josu Martinezen *Hitzak* lana.

8. ALDIA Kantari

Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuola 2023-02-11

Arizmendi Ikastolako Almen guneko, Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolako eta Antzuolako Herri Eskolako 7 eta 11 urte arteko ikasleak zapatuan izan ziren Arkupe kultura etxean dagoen Zاراia aretoan saio berriak grabatzen. Martxo hasieran izango dira Goiena telebistan ikusgai. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA JAGOBA DOMINGO




URTEURRENA

Pureza Ayastuy Garay

Juan Bautista Ruiz de Zarateren alarguna

2022ko otsailaren 14an hil zen, 89 urte zituela.



Bere aldeko urteurren meza datorren igandean, otsailaren 19an, izango da, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2023ko otsailaren 17an.

URTEURRENA

Javier Gabilondo Gorosabel

2022ko otsailaren 8an hil zen, 79 urte zituela.



Zerurik bada, han izango zara zure indarra eta kemena eredu izan dadila, beti gure bihotzean. Gero arte, Javier.

Familiakoen partetik.

Urteurreneko meza domekan, otsailaren 19an, izango da, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Aurrez esker on, bertaratuko zareten guztioi. Bergaran, 2023ko otsailaren 17an.

URTEURRENA



Justo Agirre Aretxaga

Beatriz Biziolaren alarguna

2022ko otsailaren 2an hil zen, 86 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA

Maxima Madinabeitia Elorza

—Goian bego—

Arrasateko ospitalean hil zen, 2023ko otsailaren 15ean, 92 urte zituela.



*Bizitza osoa lanean
Beti ingurukoei laguntzen
Mundua hobea egin duzu
Zure ingurua lantzen
Ta orain ez zaudela*


*Emandako maitasuna geratzen da
Eskerrik asko tia Maxi
Egindako danagatik
Beti eramango zaittugu
Gurekin bihotzean*

Boliña eta Ariako zure lobak. Eskoriatzan, 2023ko otsailaren 17an.

ESKER ONA

Palmira Rodriguez Meiriño

2023ko otsailaren 9an hil zen, 85 urte zituela.




*Amamaren altzo goxoa
Kasablankako sutondo epelean
Maitasunez sukaldetan
Galiziara ametsetan*

Bakero familiarren partetik, bihotzez eskerrak egun hauetan maitasuna eta gertutasuna helarazi diguzuen guztioi.

Ondra meza otsailaren 25ean, larunbata, izango da 19:30ean Oñatiko Agustindarren elizan.

Oñatin, 2023ko otsailaren 17an.

ESKER ONA



Josu Arealillo Ubierna

'Txuson'

2023ko otsailaren 12an hil zen, 57 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zareteno. Jaso dugun maitasun eta babesa eskertu nahi dizuegu.

Bihotz-bihotzez besarkada estu bana senideon izenean.

Bergaran, 2023ko otsailaren 17an.

OROIGARRIA



Jose Ramon Abasolo Heriz

'Coppi'

2023ko otsailaren 14an hil zen, 74 urte zituela.



*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte bakarrik.*

Hire kuadrilla. Arrasaten, 2023ko otsailaren 17an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gari deitu zuzenean edo, nahizago baduzue, jakinarazi zuei atseguru-konpainari gurekin nahi dituzela agurtu nahi dituzena.



Marioen, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balo dute horietakoak. Guk baditugu gordena zuzentzeko, gure beharra duzenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA



Dohaintza Begisare elkarteari

Arrasateko Zubia oinetako-dendak 813,13 euro eman dizkio elkarteari. Dendako itsulapiko bati esker batu dute, bezeroen borondateari esker.



Herri kirolak
Lehia eta erakustaldi paregabeak egin zituzten aurrekoan Oñatin, Urrezko Aizkorako finalerako txartel bila. Egurra moztzen eta harriak jasotzen ibili ziren.

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**'LANERAKO GERTU' ERREPORTAJEA**


Lesioen gainean egingo dute berba Malen Ruiz de Azuak eta Iñigo Barrenak aurkeztutako saioan.

'BiziOn!' Egubakoitza 21:30 eta 23:30

**'ARTXIBOTIK TIRAKA': ARATUSTEAK**

Urteko jairik koloretuenak bitxikeria eta kontakizun asko eman ditu bailaran. Horien errepaso egingo dute.

'Artxibotik tiraka' Zapatua 17:00 eta domeka 09:30

**NEREA MENDIZABALI ELKARRIZKETA**


Seme-alaben autoestimua lantzen hitzaldian kontatuko dituenak partekatuko ditu Larraitx Zeberioekin.

'Hemen Debagoien' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ZER EMAN DU AGINTALDIAK BERGARAN?**

Udalean ordezkatuta dauden alderdietako ordezkariekin egingo du berba Goiatz Aranak. Agintaldiaren errepaso egingo dute.

'Harira' Martitzena, 21:00 eta 23:00

**'JAIK': ARATUSTEAK**

Aratusteek Debagoieneko herrietan emandakoaren errepaso egingo du Aitor Agirianok.

'Jaiak' Eguaztena, 21:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 17**ELGETA Egubakoitz Argala**

15:00etan, eskolako umeen kalejira; 16:30ean, txokolate-jana; eta 17:00etan, dantzaldia Gauargi taldearekin.

Elgetan.

OÑATI Odol ematea

Otsailekoa. Aurrez hartu beharko da ordua, 943-00 78 84 zenbakian.

Enpresagintzan, 16:30ean.

ARAMAIO Hauspotarrak eta Larruketarrak taldeak

Sarrerak, hiru euro.

Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Egubakoitz Argala

Leizarra musika eskolako kideen ikuskizuna.

Kiroldegian, 18:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikalen Aratusteetako kontzertua

Ikasle musikarien eskutik.

Amaia antzokian, 18:30ean.

ARAMAIO Dantza erakustaldia

Lagun Artean taldeko dantzarien eskutik.

Herriko kaleetan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Cenicienta' ikuskizuna

Ortzai konpainiak Disneyren ipuin klasikoaren parodia egingo du. Sarrerak, bost euro.

Zaraia aretoan, 19:00etan.

OÑATI 'Ecofascismo' hitzaldia

Carlos Taibo idazleak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldietan.

Kultura etxean, 19:00etan.

ESKORIATZA Aratusteetako kontzertua: 'Piztu telebista'

Behoko Errota musika eskolako bandaren kontzertua.

Zaldibar antzokian, 20:00etan.

BERGARA Aratusteetako kontzertua: 'Izarren gaua'

Musika Bandarekin, Orkestra Sinfonikoarekin, Aritzeta Abesbatzarekin eta Kulunka dantza taldearekin.

Pilotalekuan, 22:30ean.

ZAPATUA 18**LEINTZ GATZAGA Aratusteak**

11:00etan, umeendako jolasak; 14:30ean, herri bazkaria; eta 17:30ean, Humberto DJa.

Frontoian.

OÑATI Oñatiko Inauteriak

Eltziatik hasita, kalerik kale, egun osoan. Azken ekitaldia, 20:00etan, Foruen plazan.

Eltzian, 11:00etan.

ESKORIATZA Aratuste-zapatua

12:00etan, Gesaltza txaranga; 13:00etan, trikitilarien kalejira eta mozorro lehiaketaren desfilea; 14:30ean, herri bazkaria; 17:00etan, zezentxoak eta poneyak; 18:00etan, mozorro lehiaketako sari banaketa; eta, ostean, Moto DJa.

Eskoriatzan.

ARRASATE Aratuste-zapatua

12:00etan, pregoia; eta ostean, desfilea; 13:00etan, sari banaketa; 18:00etan, kale animazioa Arrasate Musikaleko txarangarekin; 19:00etan, Katanga Dub taldearen kontzertua Seber Altuben; eta ostean, DJak eta Berbena Latina gauerdia arte; eta, 19:30ean, Herriko Plazan, Iratzar taldea.

Arrasaten.

OÑATI Kantu-bazkaria

Erretiratuendako. Aurrez hartu behar ziren txartelak.

Pake Lekun, 14:00etan.

ARAMAIO Aratusteak: bazkaria

Ostean, kalejira, mozorro lehiaketa eta txokolate-jana.

Eskolako jantokian, 14:30ean.

ARETXABALETA Aratusteak: bola-txapelketak

16:30ean, infantilak eta gazteak; eta 20:30ean, helduak.

Bolatokian.

BERGARA Aratusteak

17:00etan, Tximeletak txarangarekin kale-animazioa; 18:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Urteak bete, abentura bizi* ikuskizuna; eta, 20:00etan, Basajaun taldearekin erromeria.

Bergaran.

ARRASATE 'Erronkarnabalak' ekintza

Gaztetxoendako. Askotariko erronkak gainditu beharko dituzte.

Biteri plazan, 18:00etan.

DOMEKA 19**ESKORIATZA Gatz Bidiera irteera**

Eskoriatzatik Gatzagara joango dira, *Makila eskuan eta ibili basuan* ekimenaren baitan.

Fernando Eskoriatza plazan, 09:30ean.

ARETXABALETA Aratuste-domeka

10:00etan, diana; 11:45ean, txino dantza; 12:00etan, kuadrillen desfilea; 13:00etan, Gesaltza txaranga; 15:00etan, herri bazkaria; 16:30ean, *laser tag* eta *escape room*-a; 18:00etan, KI DJa; 18:45ean, mozorro lehiaketaren sari banaketa; eta 19:00etan, Santa Ageda neska-mutilen emanaldia.

Aratxabaletan.

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

OÑATI Luzaideko dantzak

Oñatzeko dantzariekin eta musika eskolako akordeoi ikasleekin.

Oñatin, 18:00etan.

ARRASATE Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA Aratusteak

Erraldoien konpartsaren eta udal txistularien kalejira.

Bergaran, 18:30ean.

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilen dantzak

2004an jaiotako kintoak.

Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE 'Familia sarekada' antzezlan

Vaiven Teatrotoren lana. Nerea Gorriti, Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe eta Xanti Korkostegi oholtzan. Sarrerak, hamar euro.

Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 20

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Odola emateko aukera

Autobusa egongo da.
Herriko Plazan, 16:45ean.

OÑATI 'Oñati XIX. mendean' hitzaldia

Xabier Zelaia egingo du berba.
Pake Lekun, 18:30ean.

ARETXABALETA Martxoaren 8a antolatze asanblada

Denon bizitzak erdigunean leloarekin. Batzar irekia, herritar guztiendako.
Arkupen, 18:30ean.

MARTITZENA 21

OÑATI Tolosako Aratusteetara irteera

Pake Lekuk antolatuta. Ostein, sagardotegian bazkaria.
Postetxean, 09:30ean.

ESKORIATZA Aratuste-martitzena

10:30ean, umeendako jaialdia; 17:15ean, kukumarroak; eta 18:00etan, Eidabe taldearen *Gora bihotzak!!* ikuskizuna.
Eskoriatzan.

ARETXABALETA Aratuste-martitzena

11:00etan, kalejira Irulitza txarangarekin; 18:00etan, txaranga



ORTZAI

ARETXABALETA 'Cenicienta' ikuskizuna

Gasteizko Ortzai konpainiak Disneyren ipuin klasikoaren parodia egingo du. Iker Ortiz de Zaratek gidatutako lana familia osoarendako ikuskizuna da. Sarrera bost euro da.
Gaur, egubakoitza, Zaraia aretoan, 19:00etan.

eta buruhandiak; eta 20:00etan, Txinen hileta.
Aretxabaletan.

BERGARA Aratuste-martitzena

16:30ean, Musika Eskolako Gazteen Bandaren kalejira; eta 17:30ean, familiendako erromeria Gauargi taldearekin.
Bergaran.

ELGETA Erretiratuaren Aratusteak

Txokolate-jana eta bingo saioa Xalbadorpe erretiratuaren elkartean eskutik.
Ozkarbi elkarte, 16:30ean.

OÑATI Aratuste-martitzena

17:00etan, Zirika Zirkus taldearen *Aurkitu gabeko altorra* antzezlan; eta 18:00etan, txokolate-jan solidarioa eta txorimaloak eta buruhandiak.
Oñatin.

ARRASATE Aratuste-martitzena

17:00etan, mozzorro desfilea eta Tomaxen Abenturak pailazoan emanaldia; 17:30ean, Samasiku txarangarekin kalejira; 18:30ean, Arrasateko erraldien eta kilikien kalejira; 19:30ean, Nemux taldearekin disko-festa; eta, 21:00etan, sardina-ehorzketa, eta ostein, Nemux taldearekin erromeria.
Arrasaten.

ARRASATE 'Hezitzaile galduaren bila' ekintza

Gaztetxoendako.
Biterin, 17:30ean.

ARRASATE 'Seme-alaben autoestimua elikatzen' hitzaldia

Nerea Mendizabalek egingo die berba haurren eta nerabeen gurasoei.
Kulturaten, 18:00etan.

ANTZUOLA Aratusteak Landatxopen

Mozorro festa eta merienda egingo dituzte erretiratuek.
Elkartean, 18:30ean.

ELGETA Irakurketa taldea

Bertol Arrietaren *Gezurra berdaderoa* liburuaren gainean.
Liburutegian, 19:00etan.

EGUAZTENA 22

OÑATI Joseba Sarrionandiarekin solasaldia

Munduari bira eman zion ontzia liburua esplikatu du, hasteko. Ostein, solasaldia, Esperientzia Gelak gonbidatuta.
Santa Anan, 10:00etan.

ARRASATE 'Gaur egungo eta etorkizuneko pentsioak' hitzaldia

Andrea Uñak eta Jon Fanok egingo dute berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
Kulturaten, 17:30ean.

ARRASATE Goienarren bulegoaren irekiera

Herritar guztiendako.
Zerkaosteta kaleko bulegoan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Ekofeministotik kontzientziak zabalduz' hitzaldia

Eskoitzako Mugimendu Feminista taldearen eskutik.
Ibarraundi museoan, 18:30ean.

OÑATI 'Dendrokronologia: zuhaitzen bizitza ezkututik klima aldaketara' hitzaldia

Julen Astigarraga eta Asier Herrero ekologoek egingo dute berba.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Mantícora' pelikula

Jatorrizko bertsoan eta azpittuluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 23

ARRASATE Sasoibide

Antoniña hezegunera joango dira.
Biteri plazan, 1 0:00etan.

OÑATI 'Laterandarrak' bisita gidatua

Aita Pablo Anduagaren azalpenekin eta *Oñati ezagutzen* egitasmoaren baitan. Pake Lekuko bazkideentzat.
Agustindarren eliza, 11:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia

Patxi Zubiarretaren *Julien Vinsonen hegaldia* liburuaren gaineko saioa. Egilea egongo da ekitaldian.
Kulturaten, 18:30ean.

ELGETA 'Sexualitateak ba al du iraungitze datarik?' hitzaldia

Sexologo eta gizarte laguntzaile Amaia Brusauk egingo du berba, Elgetako liburutegiak gonbidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE 'Ama ta asunak' dokumentala

June Baonza Pagaldairaren lanak ikusteko aukera ere egongo da. Dokumentala, euskaraz, gaztelaniazko azpittuluekin.
Kulturaten, 19:00etan.

ARETXABALETA Iker Piris eta Nirek Mocar oholtzan

Tolosako musikariak boogie-woogiean aditu den Nirek Mocar gazte paristarra izango du bidelagun. Sarrerak, bost euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'Fire of love' filma zineklubean

Sara Dosaren lana, Ingurumen Jardunaldien baitan. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Bones Of Minerva taldea

Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 24

ARRASATE 'Maleta kontuak' ipuin kontaketa

Maider Galarzarekin, 4 urtetik gorakoendako.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI 'GR 282 - Artzaintza natura bidea' dokumentala

Aitor Intxaurrearen lanak Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, Burgosen eta Nafarroan grabatutako irudiak ditu. Ingurumen Jardunaldien baitan. Egilea berak aurkeztuko du.
Kultura etxean, 19:00etan.

ESKORIATZA Mendi Tour Film

Los tiempos cambian, El buscador de luz, A baffin vacation, Newu way up eta *Creation Theory* film laburrak emango dituzte. Gaurko emanaldirako sarrerak, hiru euro.
Ibarraundin, 19:00etan.

BERGARA 'Otxoteszena' emanaldia

Lur Maitea Otxotearen eta Jatorri Ahots Zuriak taldearen eskutik. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

ZAPATUA 25

ANTZUOLA Antzuolako 8 Miliak lasterketa

Hamargarrena egingo dute. Gazteak 10:20ean aterako dira eta helduak, 10:30ean.
Herriko Plazatik.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako askotariko jolasak. Orduetgia: 11:30-13:30.
Musakolan, 11:30ean.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Dukakis

Michael Dukakis 1988ko Ameriketako Estatu Batuetako hauteskundeak irabazteko faborito argia zen. Hautagai demokrata Bush errepublikanoaren aurretik zen inkesta guztietan; tarte zabalarekin. Horri buelta emateko, baina, Bushen joko zikinean trebatutako aholkulari bati plan bat prestatzeko eskatu zion. Enkargua jasota, Lee Atwater –holaxe zuen izena, besteak beste, Reaganen kanpainak zuzendu zituenak– Dukakisen iragana miatzen hasi zen trapu zikinen bila.

Hasieran fruiturik ez eman arren, Atwaterrek kanpaina goitik behera aldatu zuen informazioa aurkitu zuen. Massachusettsen gobernadore zen garaian, Dukakisek lehen graduko presoei baimenak mantentzearen alde egin zuen. Garai hartakoa zen Willie Horton presoari leporatutako bortxaketa. Hortonek espetxetik irteteko zuen baimen bat probestu zuen emakume bati eraso egiteko, eta, albistea ikusita, Atwaterrek berehala jakin zuen zein izan beharko zukeen Bushen kanpainako mezu nagusiak: *Dukakisek bortxatzaileak askatu ditu.*

Bushek irabazi zuen eta Dukakis ez zen inoiz presidente izan. Badirudi 35 urte geroago taktika zikin hori bueltan dela eta Pedro Sanchezek hautagai demokrata aurpegia duela.

BUKATZEKO



Manu Gomez, *Cristo y Rey* telesailako eszena bat zuzentzen. M.G.

Manu Gomezen begirada 'Cristo y Rey' telesaillean

Telesail arrakastatsuen zuzendarietako bat da Manu Gomez arrasatearra; izan ere, emaitzarekin "oso gustura" dagoela dio. Gaur egun, apirilaren amaieran estreinatuko den 'Cuatro estrellas' telesailaren filmazioan dago murgilduta

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Zeresana ematen ari den *Cristo y Rey* telesail arrakastatsua zuzendu du Manu Gomez arrasatear zuzendariak, Daniel Ecijarekin batera. Atresplayer-en dago ikusgai eta plataformaren historiako telesailik ikusiena da; Gomezek dio bigarren ikusienaren erreproduktzio-kopuru bikoitza duela. Filmatzeak ase-

tzen du, eta, dioenez, "erronka zoragarria da begirada jartzea" hark idatzi ez duen testu batean.

Benetako gertaeretan oinarrituta dagoen telesailak Angel Cristo zirkuko artistaren eta Barbara Rey vedettearen arteko harreman gorabeheratsua kontatzen du –Javier Lorentek eta Belen Cuestak antzeztuta–, eta, zuzendariaren esanetan, espe-



Telesailko klaketa. M.G.

rientzia "bikaina" izan da berriro ere 80ko hamarkadara itzultzea –*Érase una vez en Euskadi* filmari erreferentzia eginez–; kasu honetan, baina, "beste testuinguru batean": zirkua, Barbara Rey eta "Juan Carlos I.aren trapu zaharrak", besteak beste.

Horretaz galdetuta, "telesail handia" dela uste du; izan ere, aipatu duenez, aurrerapausoa eman dute: "Erresuma Batuan aspalididatik atera izan dituzte hango errege-etxearen trapu zaharrak. Espainian, ordea, orain arte ezin izan da egin eta duela urte batzuk ezin izango zatekeen pentsatu halako zerbait egin ahalko zitekeenik. Denek zekiten zerbait kontatu diogu gizarteari; hau da, fikzioan birsortu gabe zegoen erreala den gertaera bat". Hala ere, gauza asko kontatu barik geratu direla dio, eta, duen arrakasta ikusita, uste du bigarren denboraldia egon daitekeela.

Datozen proiektuak

Daniel Ecijarekin jarraitzen lanean du arrasatearra; *Cuatro estrellas* telesailaren zuzendari nagusia da eta filmatzen ari dira aste hauetan. Antonio Resines eta Toñi Acosta dira protagonistak, hotel batean gertatzen da eta desagertu du oinarri. Dena den, "dramedia" gisa definitu du: "Drama eta komedia eskutik datoz, bizitza errealean gertatzen den bezala".

Telesail propioa idazteko ideiak baditu, baina idatziko duen hurrengo lana filma izango dela gaineratu du: "80ko hamarkadako Euskal Herrian oinarrituta egongo da. Zerbait badaukat, baina ez naiz martxan jarriko abuztura arte, gutxienez".

HARIRA BERGARA

AGINTALDIARI ERREPASOA UDAL ORDEZKARIEKIN

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA' SAIOA

OTSAILAREN 21EAN, 21.00ETAN ETA 23.00ETAN

GORKA ARTOLA (BERGARAKO ALKATEA),

MAITE AGIRRE (EAJ-REN BOZERAMAILEA BERGARAKO UDALBATZAN) ETA

ALBERTO ALONSO (PSE-EE-REN BOZERAMAILEA BERGARAKO UDALBATZAN)

GOIATZ ARANAK AURKEZTUTA.



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

